JOHN BUCHAN

39

mailak

/steps

BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

http://www.booktegi.eus/

Edizio hau elebiduna da. Euskaraz irakurri nahi baduzu, esteka honetan sakatu, mesedez:

Hogeita hemeretzi mailak

This is a bilingual edition. If you wish to read the book in English, please click on this link:

The Thirty-nine Steps

Hogeita hemeretzi mailak

Ilustrazioak: Daniel Oppenheimer
daniel.oppenheimer.ruiz@gmail.com

Itzulpena: Aritz Branton
aritz@11itzulpen.eus

Lagunek laguntzen gaituzte, laguntzen digute…

Amelia Perez, Garazi Arteagoitia, Inazio Mujika,
Amaia Lasheras, Ainhoa Sanz López de Heredia.

1 - Hil zen gizona 6

2 - Esneketariak bidaiatzeari ekiten dio 17

3 - Tabernari literarioaren abentura 23

4 - Hautagai erradikalaren abentura 34

5 - Bide-langile betaurrekodunaren abentura 44

6 - Arkeologo burusoilaren abentura 53

7 - Errekako arrantzalea 66

8 - Harri Beltzaren etorrera 76

9 - Hogeita hemeretzi mailak 83

10 - Talde anitz kostaldean elkartzen dira 90

Hitzatzea 102

1 - Hil zen gizona

Maiatzeko arratsalde hartan, hirurak aldera, bizitzaz nazkatuta itzuli nintzen Londresko Citytik. Arbasoen herrialdean hiru hilabete neramatzan eta kokoteraino nengoen. Urtebete lehenago norbaitek horrela sentituko nintzela esan izan balit, barre egingo niokeen; orain, ordea, horrela zen. Eguraldiak gaizki sentiarazten ninduen eta britainiar arrunten elkarrizketek nazka ematen zidaten. Ezin nuen kirol nahikorik egin eta Londresko dibertsioak eguzkitan egon den freskagarri bat bezain ahulak iruditzen zitzaizkidan.

"Richard Hannay, adiskide —esaten nion neure buruari behin eta berriro—, bide okerrean sartu haiz, eta hobe duk hortik ateratzea".

Lehenengo urteetan Bulawayon egin nituen planak gogoratzen nituenean, hozka egiten nien ezpainei. Dirutza biltzea lortu nuen —ez zen dirutza handia, baina niretzat aski zen—, eta ondo pasatzeko modu asko pentsatuta neuzkan. Sei urte nituela, aitak Eskoziatik eraman ninduen, eta, geroztik, ez nintzen inoiz etxera itzuli. Beraz, niretzat, Erresuma Batua Mila gau eta bat gehiago ipuinetan agertzen diren lekuen modukoa zen, eta nire bizitza han pasatu nahi nuen.

Hala ere, hasiera-hasieratik etsipena izan zen niretzat. Astebete igaro baino lehen, monumentuak ikusteaz nekatuta nengoen, eta hilabetea igaro aurretik, jatetxeez, antzerkiez eta zaldi-lasterketez ere bai. Ez nuen benetako lagunik, eta, seguruenik, horixe zen nire egoeraren arrazoia. Pertsona askok etxera gonbidatzen ninduten; baina ez zuten niregan interes handirik, antza. Hegoafrikaren gaineko galdera bat edo bi botatzen zizkidaten, eta, gero, beren aferekin jarraitzen zuten. Dama inperialista askok tea hartzera gonbidatzen ninduten, Zeelanda Berriko irakasleak eta Vancouverreko editoreak aurkezteko asmoz, eta hori zen denetan gauzarik etsigarriena. Hor nengoen ni, hogeita hamazazpi urterekin, sasoi onean, ondo pasatzeko diru nahikoarekin, eta, halere, egun osoan ahozabalka nenbilen. Alde egiteko eta Veldeko zelaietara itzultzeko erabakia ia hartuta neukan, Erresuma Batuko gizonik aspertuena nintzen eta.

Arratsaldea inbertsioei buruz hitz egiten pasatu nuen artekariekin, batez ere neure burua entretenitu nahian, eta etxerako bidean, klub batera sartu nintzen; ez zen klub oso dotorea, eta kolonietako bazkideak ere onartzen zituen. Konbinatu bat hartu eta iluntzeko egunkariak irakurri nituen. Ekialde Hurbileko gatazken informazioz beteta zeuden, eta artikulu bat Karolides Greziako presidenteari buruzkoa zen. Gizonak jatorra zirudien, nire iritziz. Iturri guztien arabera, afera hartan garrantzi handiko gizon bakarra zen; eta, horrez gain, zintzo jokatzen zuen —eta ezin zitekeen besteei buruz horrenbeste esan—. Ulertu nuenez, Berlinen eta Vienan gorroto handia zioten; baina gu haren

aldekoak ginen, eta horrela jarraitzeko asmoa geneukan. Egunkari baten iritziz, Karolides zen Europaren eta hondamendiaren artean zegoen babes bakarra. Gogoratzen dut pentsatu nuela herrialde horietan lana lortzerik ba ote zegoen. Bururatu zitzaidan Albania gizon bati aspertzeko astirik uzten ez dioten leku horietako bat izan zitekeela.

Seiak aldera, etxera joan nintzen, arropak aldatu, Café Royalen afaldu eta, gero, antzoki batean sartu nintzen musika-emanaldi bat entzutera. Emanaldi ergela zen —emakumeek memeloarena egiten, gizonek tximino aurpegia zeukaten— eta ez nintzen luzaroan geratu. Gaua ederra eta argia zen eta oinez joan nintzen Portland Placetik hurbil alokatua nuen apartamentura. Nire inguruan jendetza zebilen espaloietan, giro bizian eta hizketan, eta inbidia nion egitekoren bat zuen jende horri. Dendari, bulegari, dandy eta polizia horiek interesen bat zeukaten bizitzan, eta interes horri esker eusten zioten bizitzari. Nik, aldiz, txanpon batzuk eman nizkion eskale bati, ahozabalka ikusi nuelako: nire sufrimendu bera pairatzen zuen. Oxford Circusen udaberriko zeruari begiratu, eta hauxe hitzeman nuen: beste egun bat emango nion arbasoen herrialdeari niri zerbait eskaintzeko; ezer gertatzen ez bazen, Esperantza Oneko lurmuturrera zihoan lehen itsasontzian alde egingo nuen.

Langham Place atzean zegoen nire apartamentua. Eraikina berria zen eta apartamentua lehenengo solairuan zegoen. Eskailera komunala zuen, eta, atarian, atezaina eta igogailuzaina zeuden. Etxean mirabeak bizitzea gorroto dut eta, hortaz, egunez gizon bat etortzen zen nire gauzak txukuntzera. Goizero etortzen zen, zortziak baino lehen, eta, arratsaldeetan, zazpietan alde egiten zuen etxean inoiz afaltzen ez nuelako.

Giltza etxeko atean sartu bezain laster konturatu nintzen gizon bat nuela alboan. Ez nuen gizona hurbiltzen ikusi, eta bat-batean agertu izanak ezustekoa eman zidan. Gizon argala zen, bizar gorri motzekoa, eta begiak txikiak, urdinak eta zorrotzak zeuzkan. Banekien azkeneko solairuan bizi zela, eta eskaileretan egun on esaten genion elkarri.

—Zurekin hitz egin dezaket? —erregutu zidan—. Minutu batez sar naiteke?

Ahotsa baretzeko ahaleginetan zebilen eta besoan atzaparka egiten zidan eskuarekin.

Atea ireki eta sartzeko keinua egin nion. Atea igaro bezain azkar, atzeko gelaraino joan zen korrika: han egiten nuen erre eta gutunak idatzi. Jarraian, ziztu bizian itzuli zen niregana.

—Atea giltzaz itxita al dago? —galdetu zidan urduri, eta katea berak lotu zuen.

—Ikaragarri sentitzen dut —esan zidan apaltasunez—. Badakit atrebentzia handia dela, baina gizon ulerkorraren itxura duzu. Aste honetan, gauzak korapilatzen ari zirela, eta zuregan pentsatu dut. Aizu, mesede bat egingo al didazu?

—Entzun egingo dizut —erantzun nion—. Hori baino ezin dizut agindu.
Gizon urduri eta txiki horren portaera bitxiaz kezkatzen hasia nintzen.
Edari-erretilu bat zegoen haren ondoan, mahai baten gainean, eta whiski eta soda edalontzi bat prestatu zuen. Hiru zurrutadatan edan, edalontzia erretiluaren gainean utzi, eta kristala kraskatu zuen.
—Barkatu —esan zidan—. Urduri samar nago. Kontua da momentu honetan hilda nagoela.
Besaulki batean eseri nintzen eta pipa piztu nuen.
—Nolakoa da sentsazioa? —itaundu nion. Ziur samar nengoen ero batekin ari nintzela. Haren aurpegi nekatuan irribarre azkarra agertu zen.
—Ez nago erotuta, oraindik ez. Hara, zuri begira egon naiz egun hauetan, eta uste dut ez zarela erraz urduritzen. Gizon zintzoa zara, ez zaitu arriskuak beldurtzen. Dena kontatuko dizut. Laguntza behar dut, beste inork sekula behar izan duena baino gehiago, jakin nahi dut eta lagunduko ote didazun.
—Jarraitu istorioa kontatzen —esan nion—, eta erantzuna emango dizut.
Bazirudien bere burua ahalegin handia egiteko prestatzen ari zela, eta jarraian oso astakeria bitxia hasi zitzaidan kontatzen. Hasieran ez nuen harrapatzen eta eten behar izaten nion galderak egiteko. Hona hemen mamia:
Amerikarra zen, Kentuckykoa, eta unibertsitatean ikasi ondoren, dirua soberan zuenez, mundua ezagutzera irten zen. Denboraldi batean idazle aritu zen, Chicagoko egunkari baterako guda-berriemaile, eta urtebete edo bi eman zituen hego-ekialdeko Europan. Iruditu zitzaidan hizkuntzalari bikaina zela eta hango gizartea ondo ezagutzea lortu zuela. Egunkarietan ikusita nituen zenbait pertsonaz ondo ezagutuko balitu bezala hitz egin zidan.
Politikagintzan parte hartu zuela kontatu zidan, hasieran berezko interesagatik eta, gero, ezin ziolako jakin-minari eutsi. Gizon zorrotza eta urduria iruditu zitzaidan, eta, ziur aski, arazoen muineraino beti iritsi nahi izaten zuen horietakoa. Nahi baino urrunago joana zen, ordea.
Kontatu zidana nik ulertu bezain ondo azalduko dizuet. Aldaketa handiak gertatzen ari ziren pertsona oso arriskutsuek diseinatuta eta gobernu eta armada guztien bizkarrean. Hori kasualitatez jakin zuen. Jakin-minak liluratuta joan zen eta harrapatu egin zuten. Ulertu nuenez, gatazkaren barruan zeuden pertsona gehienak anarkista iraultzaileak ziren; baina, horiez gain, bazeuden diruagatik jokatzen ari ziren finantzariak ere. Gizon bizkor batek etekin handiak atera ditzake erortzen ari den merkatu batetik, eta bi talde horiei Europa hankaz gora jartzea komeni zitzaien.
Kontatu zizkidan gauza bitxi batzuek lehendik harrituta utzi ninduten kontu asko azaltzen zituzten, Balkanetako Gerran gertatutako gauzak, alegia: nola estatu batek tupustean beste estatuak menderatu zituen; aliantzak zergatik egin eta desegin ziren; zergatik zenbait gizon desagertu ziren; gudaren funtsa nondik

zetorren. Azpijoko osoaren helburua Errusia eta Alemania elkarren etsai bihurtzea zen.
Horren arrazoia galdetu nionean, azaldu zidan anarkistek hala uste zutela, horrek emango ziela itxaroten ari ziren aukera. Den-dena nahaspila bihurtuko zen, eta espero zuten horretatik mundu berri bat ateratzea. Kapitalistek txanponak esku-beteka bildu eta, hondamendia erosita, dirutza egingo zuten. Kapitalak ez zuen, gizonak esan zuenez, ez kontzientziarik ez aberririk. Gainera, juduak zeuden gauza guztien atzean, eta juduek Errusia infernua baino gehiago gorroto zuten.
—Eta horrek harritzen zaitu? —garrasi egin zuen—. Hirurehun urtean zehar jazarri egin dituzte, eta hau pogromen ordaina da. Juduak leku guztietan daude; baina topatu nahi baditugu, klandestinitatean sartu behar dugu. Pentsa dezagun edozein negozio alemaniar handitan. Harremanetan jartzen garenean, gure lehenengo kontaktua Von und zu zerbait printzea izango da, gizon gaztea eta dotorea, ingelesez ondo baino hobeto hitz egiten duena. Gizon horrek ez du eraginik, ordea. Gure afera handia baldin bada, atzealdera eramango gaituzte eta hor Westfaliako gizon bat aurkituko dugu, kokots handia, bekoki hondoratua eta txerri baten portaera dituena. Hori da Ingalaterrako egunkariak urduri jartzen dituen enpresario alemaniarra. Baina gure lana maila are handiagokoa baldin bada, eta benetako nagusiarekin tratatu behar badugu, litekeena da nagusia aurpegi zuriko judu txikia izatea, kriskitin-suge baten begiak dituena eta gurpil-aulki batean eserita dagoena. Bai, jauna, horixe da gaur egun mundua gobernatzen duena, eta Tsarren inperioan labana sartu nahi du, izeba bortxatu eta aita jipoitu zituztelako Volga ondoan dagoen herrixka triste batean.
Gogorarazi behar izan nion nonbait judu-anarkistak atzera samar geratu zirela.
—Bai eta ez —erantzun zidan—. Neurri batean haiek ere irabazi zuten; baina dirua baino handiagoa den gauza batekin egin zuten topo, erostezina den gauza batekin: gizakien borrokarako sena. Hil behar bagaituzte, bandera eta herrialde bat asmatzen ditugu horien alde borrokatzeko; eta, bizirik ateratzen bagara, berriz, horiek maitatzen jarraituko dugu. Soldadu txepel horiek zer maitatu aurkitu zuten, eta horrek Berlinen eta Vienan egindako plan fina oztopatu du. Baina nire lagunek oraindik ez dute azkeneko karta jokatu, ezta gutxiago ere. Amarrua dute mahukan gordeta, eta, nik hilabete honetan bizirik iraun ezean, erabili egingo dute, baita irabazi ere.
—Baina uste nuen zu hilik zeundela —moztu nion.
—Mors janua vitæ —esan zidan, irribarre eginez. Ezagutzen nuen aipu hori: latin askoz gehiagorik ez nekien—. Horretarako bidean nago; baina, abiatu baino lehen, gauza asko jakinarazi behar dizkizut. Egunkariak irakurtzen badituzu, jakingo duzu Constantine Karolides nor den.

Tente jarri nintzen, arratsalde horretan bertan gizon horren gainean zerbait irakurria bainuen.
—Horrek apurtu ditu haien azpijoko guztiak. Istorio honetan guztian buru argia duen bakarra da, eta, kasualitatez, gizon zintzoa ere bada. Horregatik, jomuga izan da azken urte honetan. Hori guztia jakin dut, eta jakitea ez da zaila izan, edozein kaikuk asmatuko zukeen eta. Baina nik nola harrapatuko duten jakin dut, eta jakintza horrek heriotza-arriskua dakar. Eta, horregatik, zendu egin behar izan dut.
Beste trago bat hartu nahi zuen eta neuk prestatu nion, gizontxoa gero eta interesgarriagoa iruditzen baitzitzaidan.
—Ezin dute bere herrialdean harrapatu, Epiroko bizkartzain errukigabea baitu. Hala eta guztiz ere, ekainaren hamabostean hiri honetara etorriko da. Kanpo Arazoetako Ministerio britainiarrak nazioarteko bilera informalak antolatzeari ekin dio eta data horretan egingo da bilerarik handiena. Karolides gonbidaturik garrantzitsuena da eta, nire lagunek nahi dutena lortzen badute, ez da inoiz miresten duten aberkideengana itzuliko.
—Hori, behintzat, erraza da —ihardetsi nion—. Planen berri eman diezaiokezu, eta, horrela, ez da etxetik irtengo.
—Eta haien jokoari mesede egin horrela? —galdetu zidan zorrotz—. Etortzen ez bada, haiek irabaziko dute, korapiloa aska dezakeen gizon bakarra da eta. Greziako Gobernuak jakingo balu, Karolides ez litzateke etorriko, berak ez dakielako ekainaren hamabostean zer egongo den jokoan.
—Eta Gobernu britainiarra? —itaundu nion—. Ez dio inori gonbidatuak erailtzen utziko. Zerbait aipatzen badiozu, neurri bereziak hartuko ditu.
—Ez litzateke nahikoa izango. Zuen hiria detektibe sekretuz bete lezake, baita polizia-agenteak bikoiztu ere; baina, hala ere, Constantine gizon kondenatua izango litzateke. Nire lagunak ez dira joko hau musu-truk jokatzen ari. Gertaera handi bat nahi dute beren planari hasiera emateko eta Europa osoa gertaera horri begira egon dadin. Karolides austriar batek erailko du, eta ebidentziek agerian utziko dute Berlingo eta Vienako handi-mandiak horrekin ados daudela. Dena gezur madarikatua izango da, noski, baina, munduaren begietan, kontu iluna izango da. Ez naiz tontakeriarik esaten ari. Infernuko azpijoko honen xehetasun guztiak jakin ditut, eta borgiarren ondoren, inork ez du inoiz hain joko maltzurrik eta finik aurrera eraman. Baina ez dute planik burutuko baldin eta aferaren gorabehera guztiak ezagutzen dituen gizon bat, ekainaren hamabostean bizirik eta hemen, Londresen, badago. Gizon hori ni nauzu, jauna: Franklin P. Scudder.
Pixkanaka-pixkanaka gizon txiki hori atsegina gertatu zitzaidan. Ahoa animalientzako tranpa balitz bezala itxi zuen, eta begi sarkor horietan

borrokarako grina antzematen zitzaion. Ipuin bat kontatzen ari bazen, oso ondo zekien antzezten.
—Nola jakin duzu hori dena? —galdetu nion.
—Lehenengo datuak Tirolen, Achensee aintziraren ondoan dagoen taberna batean jaso nituen. Horrek informazio gehiago biltzera bultzatu ninduen. Arrasto gehiago lortu nituen Budako galiziarren auzoan, Vienako bidaiari-elkarte batean eta Leipzigen, Racknitzstrassetik gertu dagoen liburu-denda txiki batean. Duela hamar egun, frogak erabat osatu nituen Parisen. Ezin dizkizut orain xehetasun guztiak kontatu, istorio luzea delako. Datuak erabat ziurtatu nituenean, iruditu zitzaidan desagertu egin behar nuela; hortaz, hiri honetara oso zirkuitu bitxi batetik etorri nintzen. Paristik, frantziar-amerikar dandy gazte alde egin nuen; Hanburgon, diamante-merkatari judu itsasoratu nintzen. Norvegian, Ibsen ikasten ari zen ingeles bat izan nintzen, eskoletarako informazioa eskuratzen ari zena; eta Bergenetik atera nintzenean, berriz, eskiatzeari buruzko filmak egiten zituen zuzendari bat. Leithetik hona, paper-orearen gaineko proposamenak ekarri nituen, Londresko egunkariei eskaintzeko. Atzo arte, nire bidea ondo ezkutatu nuela uste nuen, eta horrekin pozik nengoen. Eta gero…
Bazirudien oroipenak asaldatu zuela, eta, zurrutada batean, whiski gehiago irentsi zuen.
—Horren ondoren, eraikin honetatik kanpo, kalean, gizon bat ikusi nuen. Egun osoa neure gelan itxita igarotzen nuen, eta ilundu ondoren ateratzen nintzen ordu pare batez. Gizona nire leihotik zaintzen nuen, eta uste nuen ezagutzen nuela… Egun batean, eraikinean sartu zen, eta atezainarekin hitz egin zuen… Bart, ibilalditxoa egitetik itzuli naizenean, txartel bat aurkitu dut neure postontzian. Munduan gutxien ikusi nahi dudan gizonaren izena zeukan idatzita.
Uste dut haren begiradak eta aurpegian zuen izuak behingoz eraman nindutela zintzo ari zela sinestera. Ahotsa zorroztu nuen pixka bat, horren ostean zer egin zuen galdetu nionean.
—Konturatu nintzen sardina-lata batean bezain harrapatuta nengoela eta aterabide bat besterik ez zegoela. Hil behar nuen. Nire jazarleek hilda nengoela uste bazuten, berriro lasaituko ziren.
—Eta hori nola lortzen da?
—Nire gauzak zaintzen dituen gizonari gaizki sentitzen nintzela adierazi nion, eta oso gaixo dagoenaren plantak egin nituen. Ez zen zaila izan, mozorrotzeko trebetasun handia daukat eta. Segidan, gorpu bat eskuratu nuen (Londresen beti dago hilotz bat lortzea, nora jo jakinez gero). Kutxa batean sartu nuen, eta lau gurpileko gurdi baten gainean ekarri nuen. Gelara igotzeko, lagundu behar izan zidaten. Kontua da frogak metatu behar nituela ikerketarako. Oheratu nintzen, nire mirabeari eskatu nion lo egiteko botika bat prestatzeko eta alde

egiteko gero. Medikuari deitu nahi zion, baina birao batzuk bota, eta esan nion medikuak ezin nituela begien aurrean ikusi. Bakarrik utzi ninduenean, gorpua mozorrotzen hasi nintzen. Nire tamainakoa zen, eta, itxura denez, alkoholak hildakoa, beraz, botila batzuk jarri nituen han eta hemen apartamentuan. Bion itxuraren arteko aldeen ahulgunea masailezurra zen, eta, horregatik, errebolber batekin suntsitu nion. Segur aski bihar norbaitek tiro bat entzun zuela zin egingo du, baina nire solairuan ez dago inor, eta, hortaz, pentsatu nuen arriskua har nezakeela. Gorpua ohe gainean utzi nuen, nire pijama jantzita. Errebolber bat haren ondoan, dena anabasa handian. Gero, larrialdietarako prest neukan traje bat jantzi nuen. Aztarnarik ez uzteko, ez nintzen bizarra egitera ausartu; kalera ateratzeak ez zuen zentzurik izango, dena den. Egun osoan izan zaitut buruan: iruditzen zitzaidan ez nuela besterik, zuregana hurbiltzea eta zure laguntza eskatzea. Leihotik begira egon naiz, etxera iristen ikusi zaitudan arte, eta, gero, eskaileretan arin jaitsi naiz zure bila… Hori duzu dena, jauna, eta orain afera honen gainean zuk nik bezainbeste dakizu.

Hontz bat bezala geratu zen, begiak klisk eginez, urduritasunak jota; baina, aldi berean, betebeharra egiteko asmo handiarekin. Ordurako nahiko ziur nuen egia esaten ari zela. Oso kontakizun eroa zen; baina egiazkoak zirela frogatu nituen kontu sinesgaitz asko entzunda neuzkan, eta, erabakiak hartzeko, istorioari baino gizonari begiratzen nion. Nire apartamentuan sartu eta lepoa mozteko asmoa baldin bazuen, kontakizun arruntago bat kontatuko zidakeen.

—Eman zure giltza —eskatu nion—, eta gorpuari begirada bat ematera joango naiz. Barkatu zuhurtasunez jokatzen badut, baina zure istorioa apur bat egiaztatu nahi nuke.

Ezezkoa egin zidan buruarekin, triste.

—Banekien eskatuko zenidala, baina ez daukat soinean. Mesanotxe gainean dago, nire katean. Hor utzi behar izan nuen: ezin nuen susmoak sor zitzakeen aztarnarik utzi. Segika dudan jendea oso argia da. Gaur, nire hitza onartu beharko duzu; bihar, gorpuari buruzko frogak izango dituzu, ez izan zalantzarik.

Momentu batez hausnartzen gelditu nintzen.

—Ondo da. Gaurkoz zutaz fidatuko naiz. Gela honetan giltzapetuko zaitut eta giltza gordeko dut. Gauza bat, Scudder jauna. Uste dut gizon zintzoa zarela; baina, horrela ez bada, jakin ezazu armekin ondo moldatzen naizela.

—Jakina —esan zidan, eta arin zutitu zen—. Oraindik ez dakit zure izena zein den, baina utzi esaten zintzotasun handiz jokatzen ari zarela. Bizarra egiteko labana bat utziko didazu, mesedez?

Logelara eraman, eta bakarrik utzi nuen. Ordu erdi geroago, ia ezagutzen ez nuen gizon bat itzuli zen. Begi sarkor haiek baino ez zituen antzekoak. Bizarra egina zuen, ilea erdian artesia eginda orraztuta, eta bekainak txukunduta. Gainera, armadan irakatsi zioten erara mugitzen zen; Indian luze egona zen

ofizial britainiar baten eredua zen, gainera, azal beltzaran eta guzti. Monokulo bat ere bazuen, eta begian jarri zuen. Ahoskeran ez zitzaion batere igartzen amerikarra zenik.
—Arraioa! Scudder jauna… —esan nion totelka.
—Scudder jauna ez —zuzendu zidan—, Theophilus Digby kapitaina, Gurkhen 40. erregimentukoa: baimen-egun batzuk etxean ematen ari naiz. Jauna, ez ahaztu hori, mesedez.
Egongelan prestatu nion ohea, eta nire ohera joan nintzen ni, aurreko hilabetean zehar baino alaiago. Gauzak gertatzen ziren noizean behin, baita Jainkoak ahaztutako metropoli honetan ere.
Hurrengo goizean esnatu nintzenean, Paddock —nire zerbitzaria— izugarrizko iskanbila egiten ari zen egongelako ate ondoan. Paddocki bere garaian mesede bat egin nion Selakwen, eta Ingalaterrara iritsi bezain laster, mirabe hartu nuen. Hizketan, hipopotamo bat bezain trebea zen, eta ez zen oso zerbitzari ona; baina banekien haren leialtasuna apurtezina zela.
—Ez zalapartarik atera, Paddock —oihu egin nion—. Nire lagun bat, zera, hau da… —ezin nuen izena gogoratu—, lotara geratu da. Prestatu biontzako gosaria eta etorri gero, zurekin hitz egin behar dut eta.
Paddocki istorio eder bat kontatu nion: nire lagun hori oso garrantzitsua zela, eta, lanez gainezka ibilia zelako, urduritasunak jota zegoela, eta bakea eta atsedena behar zituela. Noski, inork ezin zuen jakin gurekin zegoenik; bestela, Indiako Ministerioak eta Lehen Ministroak bidalitako mezuz josiko gintuztela, eta lagunaren atsedena suntsitu. Aitortu behar dut gosaltzera etorri zenean Scudderrek oso ondo jokatu zuela. Paddocki monokuloz begiratu zion, ofizial britainiar baten moduan; Boerren Gerraz galdetu zion, eta niri alegiazko lagun batzuei buruzko berriak eman zizkidan. Paddock ez zen gai niri “jauna” deitzeko, baina Scudderri “jauna” esaten zion hil edo biziko kontua izango balitz bezala.
Scudder egunkariekin eta zigarro kutxa batekin utzi nuen eta ni Cityra joan nintzen bazkaltzeko ordura arte. Itzuli nintzenean, igogailuzainak aurpegi larria zuen.
—Kontu beltza izan dugu, ba, gaur hemen, jauna. 15. zenbakiko gizonak bere buruaz beste egin du arma batekin. Oraintxe bertan eraman dute ehorztetxera. Orain, polizia dago hor.
15. zenbakira igo nintzen, eta hantxe zeuden polizia pare bat eta inspektore bat azterketarekin lanpetuta. Galdera txoro batzuk egin nizkien eta berehala alde egiteko agindu zidaten. Segidan, Scudderren zerbitzariarekin egin nuen topo, eta hari ere galderak egin nizkion; baina argi zegoen ez zuela susmorik batere. Gizon kexatia zen, jainkojale aurpegia zuen, baina txanpon txiki batek kontsolatu zuen, neurri handi batean.

Hurrengo egunean, heriotzaren ikerketara joan nintzen. Argitaletxe bateko bazkide batek froga garbiak eman zituen hildakoak paper-oreari buruzko proposamen batzuk ekarri zizkiola erakusteko, eta azaldu zuen enpresa amerikar baten ordezkaria zela, bere ustez. Epaimahaiak bere buruaz beste egin zuela ebatzi zuen, hildakoak burua nahasia zuela, eta haren gauzak —gutxi ziren— Estatu Batuetako kontsulari entregatu zizkioten. Scudderri aferaren xehetasun guztiak kontatu nizkion, horretan interes handia zuen eta. Esan zidan gustura egon izango zela ikerketan, nork bere eskela irakurtzea bezain morbosoa izango zelako.

Atzeko gela hartan nirekin eman zituen bi egunetan oso lasai egon zen. Pixka bat irakurri zuen, erre ere bai. Gauza asko idatzi zituen liburuxka batean, eta gauero xakean jokatzen genuen: horretan, jipoitu egiten ninduen. Uste dut haren urduritasuna gutxitzen ari zela, aurreko egoera estu samarra izan zen eta. Hala eta guztiz ere, hirugarren egunean argi zegoen egonezina itzultzen ari zitzaiola. Ekainaren hamabostera arteko egunekin zerrenda prestatu zuen. Arkatz gorri batekin egun bakoitza seinalatu zuen eta oharrak gehitu zituen takigrafiaz. Hausnarketa sakonean aurkitzen nuen, begi zorrotzak urrunera begira eta, meditazio horien ondoren, lur jota geratzen zen.

Egun hartan ikusi nuen urduri jartzen ari zela berriro. Zarata txikiei adi egoten zen, eta Paddock fidatzeko modukoa ote zen behin eta berriro galdetzen zidan. Aldarte txarrez jarri zen pare bat aldiz eta gero barkamena eskatu zidan. Ez nuen gaizki hartu. Ez nion asko eskatzen, lan zail samarra hartua zuelako bere gain.

Ez zuen bere segurtasunak kezkatzen, prestatuta zeukan planak baizik, arrakastatsu izango ote zen. Gizon txikia bai baina sendoa zen, une bigunik gabekoa. Gau batean, oso serio jarri zen.

—Entzun, Hannay —esan zidan—. Uste dut afera hau sakonago azaldu behar dizudala. Ezingo nuke eraman ni desagertzea, borrokan jarraitzeko prest legokeen beste inor atzean utzi gabe.

Eta ordura arte era lausoan baino kontatu ez zizkidan xehetasunak azaldu zituen.

Ez nion arreta handirik eman. Egia esan, nazioarteko politika-kontuak baino gehiago interesatzen zitzaizkidan gizon haren abenturak. Uste nuen Karolidesen eta gizon horren arteko aferak ez zirela nire egitekoa. Horiek Scudderren kontuak ziren, eta berari utzi nizkion. Horrela, bada, kontatu zizkidan gauza asko ez zitzaizkidan buruan geratu. Gogoratzen dut azaldu zidala Karolides Londresera iritsitakoan hasiko zela arriskuan egoten, eta arriskua goiko mailetatik etorriko zela: inork susmagarritzat hartuko ez zituen goi-mailetatik. Emakume baten izena aipatu zuen: Julia Czecheny, hark egoerarekin zerikusia baitzuen. Ulertu nuen Karolides bizkartzainen babesetik ateratzeko amua izango

zela. Harri Beltz bati buruz hitz egin zidan, baita zizi-zaza mintzo zen gizon bati buruz ere. Horrez gain, beste gizon baten deskribapen zehatza egin zidan: zaharra zen arren, ahots gaztea zuen, eta begiak belatz batek bezala ezkuta zitzakeen. Gizon hori aipatzen zuen bakoitzean, dar-dar egiten zuen Scudderrek. Heriotzaren gainean ere asko hitz egin zidan. Scudderrentzat, lana betetzea hil edo biziko kontua zen, baina bere bizitza ez zitzaion axola.

—Nik uste, oso nekatuta gaudenean lokartzearen modukoa dela heriotza, eta, esnatzen garenean, udako egun ederra ikusiko dugu, belar-usaina leihotik sartzen delarik. Blue-Grass eskualdean nengoela, Jainkoari eskerrak ematen nizkion halako goizengatik, eta, ziur aski, hil ondoren ere eskertuko diot.

Hurrengo egunean, askoz alaiago zegoen, eta ordu asko eman zituen Stonewall Jacksonen biografia irakurtzen. Etxetik atera nintzen meatze-ingeniari batekin afaltzera eta negozioei buruz hitz egitera. Hamar eta erdiak aldera etxeratu nintzen, gure xake-jokoa egiteko garaiz oheratu baino lehen.

Gogoratzen dut zigarro bat ahoan nuela ireki nuela egongelako atea. Argiak itzalita zeuden, eta hori arraroa iruditu zitzaidan. Pentsatu nuen beharbada Scudder ohean zegoela dagoeneko.

Etengailua sakatu nuen, baina han ez zegoen inor. Hurrena, urruneneko bazterrean ikusi nuenak zigarroa lurrera botarazi zidan eta izerdi hotzean utzi ninduen.

Nire gonbidatua lurrean etzanda zegoen, ahoz gora eta hankak zabalik. Bihotzean sartuta, labana luzea zeukan; eta gorputza alderik alde igarota, zoruari lotzen zion.



2 - Esneketariak bidaiatzeari ekiten dio

Besaulki batean eseri nintzen, erabat zorabiatuta bainengoen. Horrek bost bat minutu iraun zuen eta, gero, izutu egin nintzen. Ezin nuen niri begira zegoen aurpegi zuri hura jasan; mahai-zapi bat hartu, eta gorpua estali nuen. Gero, armairu batera balantzaka hurbildu nintzen, brandya atera eta zurrutada handi batzuk egin nituen. Heriotza bortitzak ikusiak nituen, nik ere hainbat gizon hil nituen Matabeleko Gerran. Baina pertsona bat bere gelan horrela hiltzea, odol hotzean, hori ezberdina zen. Nire onera itzultzea lortu nuen. Ordulariari begiratu nion, hamar eta erdiak ziren. Susmo batek harrapatu ninduen eta etxea arreta handiz miatu nuen. Ez zegoen inor, ezta inoren aztarnarik ere; baina dardaraka nengoen, eta leiho guztiei morroiloak jarri nizkien, baita ateari katea ere.

Ordurako, pentsatzeko gai nintzen berriro. Gauzak ulertzeko ordubete behar izan nuen gutxi gorabehera. Ez nintzen azkar pentsatzen saiatu: hiltzailea itzuli ezean, pentsatzeko astia izango nuen, goizeko seiak arte edo.

Egoera larrian nengoen, hori nahiko argi zegoen. Scudderren istorioari buruzko zalantzarik banu, gertatu zenak ezabatu zidan. Mahai-zapiaren azpian zegoen froga. Etsaiek aurkitu egin zuten, baita haren isiltasuna modurik eraginkorrenean bermatu ere. Haatik, Scudderrek lau egun igaro zituen nire apartamentuan, eta etsaiek pentsatuko zuten niri sekretuak kontatu zizkidala. Hortaz, hurrengoa ni izango nintzen. Gau horretan bertan izan zitekeen, edo hurrengo egunean, edo bi egun geroago; baina orain iritsia zen nire txanda.

Halako batean, beste zerbaitez konturatu nintzen. Kalera aterako banintz, poliziari deituko banio, edo oheratu eta Paddockek gorpua aurkituko balu, zer kontatuko nieke Scudderren gainean? Paddocki gezurrak esan nizkion eta aferak oso itxura susmagarria zuen. Poliziari egia aitortu eta Scudderrek kontatutako guztia azalduz gero, barre egingo zidaten, besterik ez. Litekeena zen ni atxilotzea, hilketa leporatuta, eta bazeuden ni urkatzeko behar beste zeharkako froga. Ingalaterran, jende gutxik ezagutzen ninduen, eta ez nuen benetako lagunik ni nolakoa nintzen zinpean deklaratzeko. Beharbada, etsai sekretu horien jokoa hori zen. Nahikoa argiak ziren edozein gauza egiteko, eta Ingalaterrako kartzela bat labana bularrean sartzea bezain eraginkorra zen ekainaren hamabosta baino lehen ni gainetik kentzeko.

Gainera, istorio guztia kontatuz gero —eta, mirariz, inork sinetsiko balit—, haien jokoari mesede egingo nioke. Karolides etxean geratuko zen eta horixe nahi zuten haiek. Scudder hilaren aurpegia ikusteak haren planaren jarraitzaile amorratu bihurtu ninduen, nolabait. Scudder zendua zen, baina nigan fidatu zen, eta sentitzen nuen haren lanarekin jarraitu beharra neukala.

Beharbada, bizitza arriskuan zuen gizon batek horrela pentsatzea zentzugabe irudituko zaizue, baina nik horrela ikusten nuen. Pertsona arrunt samarra naiz, ez naiz besteak baino ausartagoa; baina ez dut gustuko gizon zintzo bat porrot egiten ikustea, eta, haren ordez jokoan parte hartzea lortzen banuen, labana luze hori ez zen Scudderren amaiera izango.

Hori guztia pentsatzeko ordubete edo bi behar izan nituen eta, ordurako, erabaki bat hartuta neukan. Nolabait desagertu egin behar nuen eta ezkutuan jarraitu ekainaren bigarren astera arte. Gero, Gobernuko jendearekin harremanetan jartzeko modu bat aurkitu beharko nuen, Scudderrek kontatu zidanaren berri emateko. Amorru ematen zidan Scudderrek niri gehiago kontatu ez izanak, baita nik arreta handiagorik eman ez izanak ere. Datu sinpleenak baino ez nekizkien eta litekeena zen, nahiz eta beste arrisku guztietatik bizirik atera, azkenean nire istorioa inork ez sinestea. Arrisku hori ere onartu behar nuen eta Gobernukoei nire istorioa baieztatuko zien zerbait gertatuko zelako itxaropenari eutsi nion. Hurrengo hiru asteetan bizirik jarraitzea, hori nuen aurreneko lana. Maiatzaren hogeita laua zen eta, horrenbestez, hogei egunez ezkutatu beharko nuen, boteredunengana hurbiltzera ausartu baino lehen. Uste nuen bi jende-mota ibiliko zirela nire bila: Scudderren etsaiak, ni akabatzeko, eta polizia, Scudderren heriotzagatik atxilotzeko. Ehiza nahasia izango zen eta, nahiz eta bitxia izan, ideia horrek lasaitzen ninduen. Hainbeste denbora ezer egin gabe igaro ondoren, ia edozein ekintza hartzen nuen ontzat. Gorpuaren ondoan eserita, bakarrik, eta niri zer gertatuko zain nengoela, zizare zapaldu bat baino ez nintzen. Baina, bizitza nire adimenaren mende baldin bazegoen, prest nengoen hori aldarte baikorrez onartzeko.

Une hartan bururatu zitzaidan: Scudderrek paper batzuk izango zituela beharbada, nik afera hobeto ulertu ahal izateko. Mahai-zapia kendu nion eta sakelak miatu nizkion. Ordurako gorpuak ez zidan beldurrik sortzen. Bat-batean eraildako gizona zen arren, oso itxura lasaia zuen. Bularraldeko sakelan ez zegoen ezer, eta txalekoan, txanpon batzuk eta zigarreta-euskarria baino ez. Praketan, labana txiki bat zuen sakeletako batean, eta txanpon batzuk, berriz, bestean. Jakaren alboko sakelan, krokodilo-larruz eginiko zigarreta-kutxa. Ordea, ez nuen gauzak idazteko zerabilen liburuxka beltza aurkitu. Hiltzaileak eraman zuen, zalantzarik gabe.

Begirada altxatu nuenean, tiradera batzuk idazmahaitik aterata zeudela ikusi nuen. Scudderrek ez zituen horrela utziko, munduko gizakirik txukunena zen eta. Argi zegoen norbait zerbaiten bila ibilia zela; agian, liburuxkaren bila.

Apartamentuan zehar ibili nintzen eta dena hankaz gora jarrita zegoela konturatu nintzen: liburuen barrualdeak, tiraderak, armairuak, kutxak, baita armairu barruko arroparen sakelak eta jangelan zegoen ontzitegia ere. Baina

liburuxkaren aztarnarik ez. Ziur asko, etsaiek hartu zuten; baina ez zuten Scudderren gorpuan aurkitu.
Segidan, atlas bat atera nuen eta Uharte Britainiarren mapa handi bati begiratu nion. Eskualde basati batera joatea bururatu zitzaidan. Han, Veldeko zelaietan ikasi nuena erabilgarri izango zitzaidan; bestela, hiri batean harrapatuta dagoen arratoia izango nintzen. Eskozia aukerarik onena iruditu zitzaidan nire familia eskoziarra zelako eta edonon eskoziar arruntzat hartuko nindutelako. Bururatu zitzaidan turista alemaniar gisa mozorrotzea, aitak bazkide alemaniarrak eduki baitzituen eta, txikitan, ondo samar ikasi bainuen alemana. Horrez gain, hiru urte eman nituen Damaralanden kobre bila. Baina eskoziarra izatea ez zen horren deigarria izango, eta poliziak niri buruz zekienarekin zerikusi txikiagoa zuen. Erabaki nuen Gallowayra joatea zela onena. Eskoziako eremu basatien artean hura zen hurbilena, ondorioztatu nuenez, eta, mapa ikusita, jende asko ere ez zen bizi.
“Bradshaw” gidan ordutegia kontsultatu ondoren, ikusi nuen St Pancras geltokitik 7:10ean tren bat ateratzen zela, eta tren hori hartuta, Gallowayko edozein geltokitan egon nintekeela arratsalde amaierarako. Hori ondo zegoen, baina hori baino garrantzitsuagoa zen St Pancrasera nola iritsi asmatzea, Scudderren lagunak eraikinaren kanpoaldean egongo zirela ziur samar nengoen eta. Horrek kezkatu ninduen une batez. Baina bat-batean inspirazioa etorri zitzaidan eta, horrela, oheratu egin nintzen; bi ordu hala moduz lo egitea lortu nuen.
Lauretan jaiki eta logelako leiho-ateak ireki nituen. Udaldiko goiz eder baten argi fina hasia zen zabaltzen eta txolarreak txorrotxioka ari ziren. Zalantza izugarri batek hartu ninduen, memelo hutsa sentitu nintzen: zergatik ez nuen dena bertan behera uzten eta ez nintzen fidatzen polizia britainiarrak nire kasua behar bezala aztertuko zuela. Hala eta guztiz ere, egoera berrikusi ondoren, ez nuen aurreko gauean hartutako erabakiaren aurkako argudiorik aurkitu eta, horrenbestez, aldarte garratz batekin, planarekin jarraitzea erabaki nuen. Ez nengoen oso izututa, baina, nolabait esateko, arazoak erakartzeko ere ez nuen gogorik.
Tweedezko traje zahar bat jantzi nuen, bota sendo batzuk, zoletan iltzeak zituztenak, eta flanelazko alkandora lepokoduna. Sakelan beste alkandora bat sartu nuen, oihalezko txano bat, musuzapi batzuk eta hortzetako eskuila bat. Bi egun lehenago banketxetik urre-kantitate handia atera nuen, apika Scudderrek dirua beharko zuelako. Horrela, berrogeita hamar libra hartu nituen, eta Rhodesiatik ekarri nuen gerriko batean sartu. Ez nuen hori baino gehiago behar. Gero, bainatu eta bibotea moztu nuen. Luzea zen eta motza utzi nuen.
Ondoren, hurrengo pausoa. Paddock zazpi eta erdietan puntual iritsi ohi zen, eta atea giltza batekin irekitzen zuen. Banekien —esperientzia txar baten

ondorioz— zazpiak hogei gutxi aldera esneketaria iristen zela, zarata handia ateratzen zuen ontziekin eta atearen ondoan uzten zidan botila. Batzuetan, goiz altxatu eta paseo bat ematera nindoanean, esneketariarekin topo egiten nuen. Gaztea zen, nire garaierakoa, gutxi gorabehera, bibote txikia zuen eta mantal zuria janzten zuen. Nire itxaropen guztia harengan jarrita zegoen.

Sartu nintzen egongela ilunean. Goizeko argi-izpiak leiho-ateetatik sartzen ari ziren pixkanaka-pixkanaka. Armairutik atera nituen whiskia, soda eta galleta batzuk eta gosaria hartu nuen. Ordurako, ia seiak ziren. Pipa sakelan sartu eta tabako-poltsa bete nuen sutondoan zegoen ontzi batetik.

Hatzak tabakoan sartu ahala, gauza gogor batekin egin nuen topo: Scudderren liburuxka beltza atera nuen…

Seinale ona iruditu zitzaidan. Gorpua estaltzen zuen mahai-zapia baztertu nuen eta hildakoaren aurpegi duin baketsuak harritu ninduen.

—Agur, lagun —esan nion—. Ahal dudana egingo dut zure partez. Zortea opa iezadazu, zauden lekuan zaudela.

Gero, atarira joan nintzen eta esneketariaren zain geratu nintzen han. Hori izan zen okerrena, etxetik lehenbailehen ateratzeko irrikaz nengoen eta. Sei eta erdiak, zazpiak hogei gutxi… ez zen iristen, ordea. Urteko egun guztien artean, kaiku hark egun hura aukeratu behar berandu iristeko!

Zazpiak hamalau gutxitan ontzien zarata entzun nuen kanpoan. Atea ireki nuen, eta han zegoen gizona, nire ontziak ateratzen eta hortz artean txistu egiten. Ezustekoa jaso zuen ni ikusi ninduenean.

—Sartu pixka batean —esan nion—. Zurekin hitz egin nahi dut.

Eta jangelara eraman nuen.

—Nik uste joko-gizona ere pixka bat bazarela zu —xuxurlatu nion—, eta mesede bat eskatu nahi dizut. Txanoa eta mantala hamar minutuz niri utzi, mesedez, eta hona hemen libra bat eragozpenen truke.

Urrea ikustean begiak ireki zituen eta irribarre zabala atera zitzaion.

—Nondik nora, ba? —galdetu zidan.

—Apustua egin dut —esan nion—. Ez dut dena azaltzeko astirik, baina apustua irabazteko, esneketaria izan behar dut hamar minutuz. Zuk egin behar duzun guztia da ni itzuli arte hemen geratzea, besterik ez. Beranduxko joaten bazara, ez da inor kexatuko, eta libra hau zurea izango da.

—Ederki! Ez naiz ni izango apustu bat zapuztuko duen gizona. Hartu arropa, jauna.

Azkar jantzi nituen txano urdin laua eta mantal zuria, ontziak hartu eta txistuka jaisten hasi nintzen eskailerak. Atezainak isiltzeko agindu zidan. Antza, nire mozorroak bere betebeharra ondo betetzen zuen.

Hasieran uste nuen kalean ez zebilela inor. Orduan, ehun metrora, polizia bat ikusi nuen eta, haren parean, eskale bat zebilen arrastaka. Bihozkada batek

bultzatu ninduen begirada ondoko etxera zuzentzera, eta lehenengo solairuan aurpegi bat ikusi nuen. Eskalea azpitik igaro zenean, gora begiratu zuen, eta iruditu zitzaidan seinale bat egin ziotela elkarri.

Kalea gurutzatu nuen, alai, txistuka eta esneketariaren ibilera baikorra imitatuz. Lehenengo kalean sartu, ezkerretara biratu eta orube baten ondotik igaro nintzen. Ez zegoen inor kale txiki hartan eta, beraz, esne-ontziak han utzi nituen, txanoa orube hartara bota nuen eta mantala ere bai. Nire oihalezko txanoa dagoeneko jantzia neraman postari bat sartu zenean kalean. Agurtu nuen eta susmorik gabe erantzun zidan. Une horretan, gertu zegoen eliza baten erlojuak zazpiak jo zituen.

Ezin nuen segundo bat ere galdu. Euston kalera iritsi bezain laster, korrika hasi nintzen. Euston geltokiaren erlojuaren arabera, zazpiak eta bost ziren. St Pancras geltokian ez nuen txartela erosteko astirik eta, gainera, artean ez nuen helmuga erabakita. Maletazain batek nasa zein zen adierazi zidan eta, nasara iritsi nintzenean, trena abian zela ikusi nuen. Geltokiko bi ofizialek bidea oztopatu zidaten, baina saihestu eta azken bagoira igo nintzen.

Hiru minutu geroago, Londres iparraldeko tuneletan bizkor eta zaratatsu gindoazela, guardia haserre batek hitz egin zidan. Newton-Stewarterako txartel bat saldu zidan —herri horren izena etorri zitzaidan bat-batean gogora—, eta lehen klaseko konpartimentu hartatik hirugarren klaseko batera eraman ninduen. Marinel bat eta ume batekin zihoan emakume gizen bat zeuden han. Guardia marmarka aldendu zen eta, bekokia lehortu ondoren, nire ahoskera eskoziarrik biziena erabiliz bidaia-lagunei esan nien noski ez zela lantegi ederra gaur egun trenak hartzea. Erabat sartuta nengoen neure paperean.

—Esango nuke nik ere, zaindari horren kopeta! —esan zuen emakumeak haserre—. Eskoziar bat behar zen haren lekua zein den gogorarazteko. Kexatu da haurrak txartelik ez duelako, abuztuan egingo ditu eta bi urte!. eta gizon honek tu egitea ere gaizki iruditu ez zaio ba.

Marinelak baieztatu egin zuen petral, eta, horrela, bizitza berriari ekin nion autoritateen aurkako gaitzespen-giroan. Gogora etorri zitzaidan astebete lehenago mundua aspergarria iruditzen zitzaidala.



3 - Tabernari literarioaren abentura

Iparralderako bidaia gauza serioa izan zen.
Maiatzeko eguraldia ederra zen, elorri zuria loretan zegoen landare hesi guztietan, eta ez nuen ulertzen zergatik, lehenago libre nintzenean, Londresen geratu nintzen mendialde eder hauetara atera ordez. Ez nintzen ausartzen kafetegi-bagoira joaten; baina Leedsen saski bat bazkari erosi eta emakume gizenarekin partekatu nuen. Goizeko egunkariak ere eskuratu nituen. Hainbat gairen gaineko albisteak zeuden: zaldi-lasterketak; cricket denboraldiaren hasiera; eta paragrafo batzuek zioten Balkanetan gauzak lasaitzen ari zirela; eta gerraontzi-eskuadra britainiar bat Kielera zihoala.
Albisteak irakurri ondoren, Scudderren liburuxka beltza atera, eta aztertu egin nuen. Oharrez beteta zegoen, zifraz batez ere, baina izen batzuk ere bazeuden. Esaterako, “Hofgaard”, “Luneville” eta “Avocado” hitzak askotan aurkitu nituen, eta, batez ere, “Pavia”.
Banekien Scudderrek ez zuela inoiz ezer egiten arrazoirik gabe eta ziur samar nengoen liburuxka kodetuta zegoela. Gai hori betidanik interesatu zait, eta, Boerren Gerran espioi ofizial nintzela, Delagoa badian, horretan aritu nintzen denboraldi batez. Xake-jokoan eta buru-hausgarrietan trebea naiz eta uste nuen kodeak asmatzen ere trebea nintzela. Kode horrek zenbakizkoa zirudien eta zifra-multzo bakoitza alfabetoko hizki bati zegokion. Buru pixka bat duen edonork kode horien gakoa aurkituko luke, ordubetez edo biz jorratu ostean. Dena den, ez nuen uste Scudderrek horren kode errazik erabiliko zukeenik. Horregatik, hitzetan kontzentratu nintzen. Zenbakizko kode on samarra egin daiteke, hizkien segida ematen digun hitz-gakoa lortuz gero.
Orduak eman nituen horretan, baina ezin izan nuen hitz baliagarririk asmatu. Gero, loak hartu ninduen eta Dumfriesen esnatu nintzen justu garaiz trenetik azkar atera eta Galloway gurutzatzen zuen tren motelean garaiz sartzeko. Nasako gizon baten itxura ez zitzaidan batere gustatu, baina ez zidan ezta begiratu ere egin eta, neure burua makina automatiko bateko ispiluan ikusi nuenean, ez nintzen harritu. Aurpegi beltzaranarekin, tweedezko arropa zaharra jantzita eta ibilera erdi-makurrarekin, hirugarren klaseko bagoiak betetzen zituzten baserritarren itxura peto-petoa nuen.
Baserritar haietako dozena-erdiren batekin ekin nion bidaiari, tabako merkez eta buztinezko pipaz inguratuta. Asteroko azokatik zetozen eta salneurrien gainean baino ez zuten hitz egiten. Ardien erditzeei buruzko berriak entzun nituen, Cairne, Deuche eta beste dozena bat ibar txikiri zegozkienak. Askok bapo bazkaldu zuten, whiski-usain handia zerien eta ez zidaten kasu handirik egin. Pixkanaka eta burrunbaka haran txikiz eta basoz osatutako eskualde bat

gurutzatu genuen. Gero, zuhaitzik gabeko landa zabalean sartu ginen; aintzira txiki distiratsuz zipriztinduta zegoen. Iparraldera begiratuta, mendi handi urdinak ikusten ziren.
Bostak aldera, bagoia hustu zen, eta, espero nuen moduan, bakarrik geratu nintzen. Hurrengo geltokian jaitsi nintzen, lokazti baten erdi-erdian. Ez nion herrixkaren izenari erreparatu. Karrooko geltoki txiki eta ahaztuak ekarri zizkidan gogora. Geltokiko arduradun zaharra baratzean ari zen aitzurrean. Pala sorbalda gainean hartu, treneraino motel gerturatu, fardel bat hartu eta patatetara itzuli zen. Hamar urteko ume batek nire txartela hartu zuen eta landa marroia sigi-saga gurutzatzen zuen errepide zurira atera nintzen.
Udaberriko iluntze izugarri ederra zen eta muino guztiak amatista landuak bezain argi ikusten ziren. Airean, lokaztien usain bitxi sustraitsua sumatzen zen, baina giroa ozeanoaren erdialdekoa bezain arina zen, eta horrek oso eragin berezia zuen nire aldartean. Izan ere, alai eta lasai sentitzen nintzen. Polizia atzetik zeukan hogeita hamazazpi urteko gizona baino errazago izan nintekeen udalekuetara zihoan mutikoa. Veld garaietan izotz zuriz estalitako goizetan ibilbide luze bat egitera nindoanean bezala sentitzen nintzen. Beharbada ez didazue sinetsiko, baina txistuka hasi nintzen errepide horretan aurrera nenbilela. Ez neukan kanpatzeko edo gelditzeko asmorik, usain atsegineko landa muinodun eta zoriontsu hartan aurrera joan besterik ez nuen nahi. Zenbat eta kilometro gehiago egin, orduan eta hobeto sentitzen nintzen.
Errepide ondoan zegoen hurritz bati adar bat moztu eta makila bat egin nuen. Geroxeago, errepidetik atera eta erreka arin baten pareko bide batean sartu nintzen. Iruditzen zitzaidan edozein jazarpenetatik oso urrun nengoela eta gaua horrekin goza nezakeela. Aspaldi jan gabe nengoen, eta oso gose nintzen, bazter batean, ur-jauzi baten ondoan zegoen artzain baten etxolara iritsi nintzelarik. Aurpegi beltzaraneko emakume bat zegoen atari ondoan eta landako jendearen portaera lotsati atseginaz agurtu ninduen. Gaua han pasatzerik al nuen galdetu nionean, ganbarako ohea erabil nezakeela erantzun zidan eta handik oso gutxira afari handi bat eskaini zidan: urdaiazpikoa, arrautzak, opilak eta esne kondentsatu lodia.
Iluntzean, senarra itzuli zen menditik. Erraldoia zen eta oso argala, haren oinkada bat gizaki arrunton hiru oinkada adinakoa zen. Ez zidaten ezer galdetu, mendialdeko herri horietan jaiotako biztanle guztien jokabide zuzena baitzuten. Hala ere, argi zegoen tratularitzat hartu nindutela eta ahalegindu nintzen burutazio hori indartzen. Azienden gainean asko hitz egin nuen: horri buruz gutxi baitzekien nire anfitrioiak eta Gallowayko azokari buruzko gauza asko ikasi nituen. Memorian gorde nituen, beharbada aurrerago erabiltzeko. Hamarrak helduta, aulkian eserita lo geratzen ari nintzen eta ganbarako oheak oso gizon

nekatua hartu zuen. Ez nuen goizeko bostak arte batere begirik ireki, ordu hartan hasten baitzen etxalde txiki hura martxan.
Edozein ordainketa jasotzeari uko egin zioten eta seietarako, gosalduta eta oinkada luzez, hegoalderako bideari ekin nion berriro. Nire ideia trenbidera itzultzea zen, aurreko egunean baino geltoki bat edo bi urrunago jaitsiko nintzen, eta, hurrengo egunean, atzera egingo nuen. Uste nuen horixe zela planik ziurrena. Seguru asko, poliziak Londresetik urruntzen ari nintzela pentsatuko zuen, mendebaldeko porturen baterantz. Abantaila txiki bat nuelakoan nengoen. Ziurrenik, ordu batzuk behar izango zituzten hilketaren errua niri egozteko, eta beste hainbat, St Pancras geltokian trena hartu zuen gizona identifikatzeko.
Eguraldia aurreko egunaren berdina zen: udaberrikoa, garbia, alaia. Ezin nuen neure burua kezkatuta imajinatu. Izan ere, aurreko lau hilabeteetan baino aldarte hobea nuen. Landako gailur luze baterako bidea hartu nuen, muino garai bat —artzainak Cairnsmore of Fleet deitu zuena— alde batera utzita. Habiak egiten ari ziren txirritxoak eta kurlintak txilioka, eta, erreken ondoko larre berdeetan, bildotsak zebiltzan. Joaneko hilabeteen mugimendu-falta hezurretatik joaten ari zitzaidan eta lau urteko mutiko baten gisa nenbilen. Segidan, erreka txiki batera iritsi nintzen, eta, kilometro bat eta erdi aurrerago, txilarren artetik gora, tren baten kea ikusi nuen.
Iritsi nintzenean, ikusi nuen geltokia nire planetarako ezin hobea zela. Mortuak inguratzen zuen, eta ez zuen askorako espazioa uzten: errei bakarra, bazterbidea, itxarongela, bulegoa, geltokiko arduradunaren etxe txikia eta lorategi oso txiki bat, andere-mahatsekin eta krabelinekin. Bazirudien ez zegoela hara eramaten zuen inongo errepiderik, eta, bakardadea gehiago areagotzeko, aintzira baten olatuek granito grisezko hondartza laztantzen zuten kilometro-erdira. Txilar trinkoen artean itxaron nuen, zeruertzean ekialdera zihoan tren baten kea ikusi arte. Orduan, txartel-bulego txikira hurbildu eta Dumfrieserako txartel bat erosi nuen.
Bagoiko bidaiari bakarrak artzain zahar bat eta haren txakurra ziren. Txakurrak begi hotzak zituen eta ez nintzen harekin fidatzen. Gizona lotan zegoen eta bere ondoko kuxinen gainean ikusi nuen goiz hartako Scotsman egunkaria. Grinatsu heldu nion, informazio baliagarria emango zidala uste bainuen.
Portland Placeko Hilketaren —horrela deitzen zioten— gaineko bi zutabe zeuden. Paddock zerbitzariak poliziari deitu zion, eta horiek esneketaria atxilotu zuten. Gizagaixoa: libra hura garesti atera zitzaion. Baina niretzat merkea izan zen. Antza denez, poliziak ia egun osoa igaro zuen horretan. Azken albisteetan istorioaren jarraipena aurkitu nuen. Esneketaria askatu zutela irakurri nuen eta, poliziaren ustez, benetako hiltzaileak —ez zuen haren identitatea azaleratu nahi— Londresetik iparraldera trenez egin zuen ihes. Niri buruzko ohar bat ere

bazegoen, pisuko jabea nintzelako. Pentsatu nuen ohar hori poliziak jarri zuela, susmagarria ez nintzela sinetsarazteko saiakera traketsa.
Egunkarian ez zegoen albiste interesgarri gehiagorik, ez nazioarteko politikaren gainean, ez Karolidesen gainean, ezta Scudder kezkatzen zuten gaien gainean ere. Utzi egin nuen, eta orduan jabetu nintzen hurbiltzen ari ginela aurreko egunean trenetik atera nintzen geltokira. Patatak lantzen zituen geltokiko arduradunak zeregin txiki bat zuen eskuartean. Mendebalderako trenaren zain zegoen, guri aurrera egiten uzteko. Tren hartatik hiru gizon jaitsi ziren, arduradunari galdera batzuk egitera. Uste izan nuen bertako polizia zela, Scotland Yardek zirikatuta, eta geltoki txiki-txiki horretaraino nire arrastoaren bila etorri zirela. Atzerantz eseri nintzen, itzalak babestuta, eta kontu handiz begiratu nien. Batek liburuxka bat zuen eta oharrak egiten ari zen. Antza denez, patatazale zaharra haserre zegoen, baina nire txartela hartu zuen mutilak ez zirudien kezkaturik eta gogoz hitz egiten ari zen. Guztiak landari begira zeuden, errepide zuriaren norabidean. Espero nuen nire arrastoari harantz jarraitzea.
Geltokitik urrundu ahala, bagoi-kidea esnatu zen. Begirada galdu batekin so egin zidan, zakurrari ostiko bortitza eman zion, eta non zegoen galdetu zidan. Argi zegoen oso mozkortuta zegoela.
—Hauxe duk abstemio izatearen ondorioa —esan zuen minduta eta damututa.
Esan nion ez nuela hain zuzen abstemio amorratutzat jo.
—Ene!, abstemio handia egina nagok ba —erantzun zidan oldarkor—. San Martin egunean erabakia hartu, eta geroztik ez diat whiski-tantarik ere probatu. Ezta Urtezaharretan ere, eta tentazioa handia zela ez diat ukatuko.
Orpoak aulki gainean jarri zituen eta buru narrasa kuxinetan murgildu zuen.
—Ezer edan gabe, hola nebilek —kexatu zen—. Burua infernua baino beroago diat, eta begiak egutegian, igandea noiz iritsiko.
—Zer hartu duk? —galdetu nion.
—Brandy izeneko edari bat. Abstemioa naizenez, ez nioan whiskiari usainik ere hartu nahi, baina egun osoan brandy horri hurrupaka jardun diat; hamabost egun hauetan ez nauk ederki ibiliko, ez diat uste.
Ahotsa totelka itzali zitzaion eta gogoz hartu zuen loak berriro.
Nire plana urrunagoko geltoki batean ateratzea zen, baina, bat-batean, trenak hori baino aukera hobea eman zidan. Pendiz baten ertzean gelditu zen, errekasto marroi baten ondoan. Burua atera, eta ikusi nuen bagoi guztietako leihoak itxita zeudela eta inguruetan ez zegoela inor. Beraz, atea ireki nuen eta bide ertzeko hurritzetara salto egin nuen.
Infernuko txakur hori izan ez balitz, dena ondo aterako zen. Jabearen gauzekin alde egiten ari nintzelakoan, zaunka egiten hasi zen eta ia-ia praketatik heldu zidan. Horrekin artzaina esnatu zen eta, neure buruaz beste egin nahi nuelakoan, garrasika hasi zen. Sasien artean katamarka joan nintzen, errekaren

ertzeraino iritsi eta, zuhaixkekin babestuta, ehun bat metroz urrundu nintzen. Hor ezkutatuta, atzera begiratu eta han ikusi nituen guardia eta hainbat bidaiari bagoiko ate irekitik nire aldera begira zeudela. Ez nuen ihesaldi nabarmenagoa egingo turuta joz eta haize-instrumentuzko orkestra batekin atera izan banintz.
Eskerrak artzain mozkortuak arreta desbideratzeko modua eman zuen. Gizona eta txakurra —soka batez gerritik helduta— bagoitik behera erori ziren bat-batean, eta pendizean behera joan ziren biraka tarte batez. Erreskatean, txakurrak norbaiti hozka egin zion, eta oso hitz gordinak entzun ziren. Pixkanaka-pixkanaka nitaz ahaztu ziren, eta, laurehun bat metro gehiago katamarka ibili ondoren, atzera begiratu nuen berriro. Trena martxan zegoen, eta lubaki artean desagertzen ari zen.
Zirkulu-erdi itxurako mortu batean nengoen, erreka marroia erradio gisa, eta muino garaiak iparraldeko zirkunferentzia osatzen. Ez zegoen gizakien seinalerik, ezta soinurik ere: uraren mugimendua eta kurlinten txilio etengabea besterik ez zen entzuten. Hala ere, nahiz eta bitxia iruditu, lehenengo aldiz nintzen harrapatzaileen beldur. Ez nintzen poliziaz gogoratzen, beste jende horretaz baizik, Scudderren sekretua banekiela zekiten jendeaz, ezin baininduten bizirik utzi. Ziur nengoen legegizon britainiarrek ezagutzen ez zituzten kemenaz eta arretaz ibiliko zirela nire atzetik eta, harrapatuz gero, ez luketela gupidarik izango.
Atzera begiratu nuen, baina ez zegoen ezer inguruetan. Eguzkiak bideko metaletan eta errekako harri bustietan egiten zuen distira, eta, ziurrenik, ez zegoen munduan ikuspegi hori baino baketsuagorik. Hala ere, korrika hasi nintzen. Lokaztiko erreka txikietan makurtuta, izerdiak itsutu ninduen arte egin nuen korrika. Ez nuen sentsazio hori burutik kendu gailurreraino iritsi nintzen arte, eta han, erreka marroiaren iturburuari begira, lur gainean etzan nintzen, arnasestuka.
Talai hartatik, landa osoa ikusten nuen burdinbideraino eta are hegoalderago —txilarren ordez larreek betetako eremuraino—. Nire ikusmena belatz batena bezain ona da, baina inguru osoan ez nuen ezer ikusten. Orduan, gailurretik ekialdera begiratu eta beste paisaia bat ikusi nuen: sakonera txikiko bailara berdeak, izei basoez gainezka, eta hauts-lerro finak ostertzean, errepideen salatari. Azkenik, maiatzeko zeru urdinari begiratu nion eta beste gauza bat ikusi nuen han, zainetako odola azkarrago mugiarazi zidana…
Hegoaldean, zeruertzean, hegazkin bat ari zen airean igotzen. Norbaitek hala esan izan balit bezala, ziur nengoen hegazkin hura nire bila zetorrela, eta hegazkina ez zen poliziarena izango. Ordu batez edo biz txilar arteko zulo batetik begiratu nion. Muinoaren gailurretik gertu egin zuen hegan, eta ni nengoen bailara gainean biribil estuak egiten zituen. Orduan, antza, iritziz aldatu zen: gorago igo eta iparralderantz jo zuen.

Ez nuen aire-espioitza hori gustuko eta pentsatzen hasi nintzen babeslekutzat aukeratua nuen eremua ez zela hain egokia. Etsaiak zeruan bazebiltzan, txilarrez estalitako muino horiek ezin zidaten babesik eman eta, hortaz, beste babes mota baten bila joan behar nuen. Gailurretik harago zegoen paisaia berdea egokiago iruditu zitzaidan: han basoak eta harrizko etxeak zeuden.
Iluntzeko seiak aldera, landatik atera, eta errepide zuri batera iritsi nintzen. Errepidea erreka apal baten haranean gora zihoan. Aurrera jo ahala, larreen ordez sasiak agertu ziren, bailara zabaldi bihurtu zen eta, aurreraxeago, mendate-itxurako leku batera iritsi nintzen. Etxe bakar bat ikusi nuen han, tximiniatik kea zeriola. Errepideak zubi bat gurutzatzen zuen eta gizon gazte bat zegoen han, karelaren kontra jarrita.
Buztinezko pipa luze bat ari zen erretzen, eta urari begira zegoen betaurrekoen atzetik. Ezkerreko eskuan, liburu txiki bat zeukan, hatz bat orrialdea markatzen. Motel errepikatu zuen:

«Grifo batek, lur basatietan zehar,
hegaka, muino eta landa gainean,
arimaspoak jazartzen dituenean bezala»

Galtzada-harrietan nire pausoen hotsa entzun bezain laster, bat-batean biratu zen, eta haren aurpegi beltzarana, atsegina eta gaztea, ikusi nuen.
—Arratsalde on —esan zidan seriotasunez—. Gau giro ederra oinez ibiltzeko.
Haizeak ikatz-ke eta haragi errearen usaina ekarri zidan etxe barrutik.
—Leku hau ostatua al da? —galdetu nion.
—Zure esanetara —erantzun zidan adeitsu—. Ni nauzu ostalaria, jauna, eta espero dut gau bat igaroko duzula gurean. Izan ere, egia esatearren, aste honetan ez dut konpainiarik izan.
Zubiaren karelaren gainera igo nintzen eta pipa bete nuen. Gaztea aliatutzat hartzen hasi nintzen.
—Ostalaria izateko gaztea zara —esan nion.
—Urtebete pasa da aita zendu zela eta negozioa utzi zidala. Amonarekin bizi naiz hor. Gizon gazte batentzat lanbide lasaiegia da, ez da nik nahi nuena.
—Zer egin nahi zenuke?
Gorritu egin zen.
—Liburuak idatzi nahi ditut —aitortu zidan.
—Eta hori egiteko hau baino aukera hoberik espero al duzu? —ihardetsi nion ozen—. Askotan pentsatu izan dut ostalariek izan behar dutela munduko kontalaririk onenak.
—Orain ez —esan zidan grinatsu—. Beharbada antzina, erromesak, trobadoreak, bidelapurrak eta diligentziak errepidean atzera eta aurrera

zebiltzala. Baina orain, ez. Autoan datoz bazkaltzera, emakume lodiz betetako autoetan. Udaberrian, arrantzale bat edo bi agertzen dira, eta, abuztuan, ehiztariak. Baina ez beste inor. Eta horietatik ez dago gauza handirik ateratzerik. Bizitza ikusi nahi dut, munduan zehar bidaiatu, eta, Kiplingen eta Conraden gisako istorioak idatzi. Baina, orain arte, Chamber's Journalen poema batzuk argitaratzea izan da nire lorpenik handiena.

Ostatura begiratu nuen, ilunabarrean urre-kolorez jantzia muino marroien aurrean.

—Mundua ikusi dut pixka bat, eta ez nuke halako aterpe bat horren erraz gutxietsiko. Edo zer uste duzu, abenturak tropikoetan edo jaka gorriz janzten den jendearen artean baizik ez dela bizitzen ahal? Beharbada une honetan bertan zaude abentura batean murgilduta.

—Hori da Kiplingek esaten duena —erantzun zidan, begiak gero eta distiratsuago, eta «9:15eko trenak abenturak ekartzen dizkigu» olerkiko lerro batzuk errezitatu zituen.

—Hona hemen bada benetako istorio bat zuretzat —esan nion—, eta hilabete barru eleberri bat idatzi ahal izango duzu horrekin.

Zubi gainean eserita, maiatzeko iluntze goxo hartan, istorio ederra kontatu nion. Funtsean, gainera, egiazkoa zen, nahiz eta xehetasun txiki batzuk aldatu. Kontatu nion Kimberleyko meatzaritza-handiki bat nintzela, diamante-erosketa debekatuekin arazoak izan zituena. Gaizkile talde batek jazarri ninduen, nire lagunik onena hil zuten, eta orain nire bila zebiltzan.

Ez nuke nik esan behar, baina istorioa ondo kontatu nion. Ihesaldi bat imajinatu nuen Kalahari basamortuan zehar alemaniarren Afrikaraino: egarria pizten zuten egun beroek, belus urdinezko gau ederrek.

—Abenturak nahi dituzu —esan nion, garrasika ia—. Ondo, bada, hementxe dituzu. Deabru horiek nire atzetik eta polizia haien ondotik. Nire asmoa lasterketa hau irabaztea da.

—Jainkoarren! —xuxurlatu zuen, arnasa azkar hartu zuen harrituta—. Rider Haggardek edo Conan Doylek idatzi duela ematen du.

—Sinesten didazu? —esan nion esker oneko.

—Jakina —eta eskua eskaini zidan—. Ohikoa ez den guztia sinesten dut. Gauza arruntez izan behar dugu mesfidati, besterik ez.

Oso gaztea zen, baina hura zen behar nuen gizona.

—Uste dut momentuz galdu ditudala, baina ezkutatu behar dut egun pare batez. Lagunduko didazu?

Ukondotik gogoz heldu zidan, eta etxerantz eraman ninduen.

—Hemen goxo-goxo egongo zara. Eta inork ez du ezer esango. Hori, nire esku. Zure abenturei buruz gehiago kontatuko didazu, ezta?

Ostatuaren atetik sartzerakoan, motor baten burrunba entzun nuen urrunean, eta hantxe ikusi nuen, mendebaldean ilunduz zihoan zeruan aurrera, hegazkinaren silueta.

Etxearen atzealdean zegoen gela bat eman zidan —zabaldira begira zegoena—, eta gazteak liburutegia erabiltzen ere utzi zidan. Haren autore kuttunen edizio merkeez beteta zegoen. Ez nuen egundo amona ikusi eta ohetik ez zela altxatzen ondorioztatu nuen. Margit izeneko emakume adineko batek janaria ekarri zidan; ostalariak ez ninduen bakean utzi. Pixka batez bakarrik egon nahi nuenez, zeregin bat asmatu nuen berak egin zezan. Motozikleta bat zuen, eta hurrengo goizean egunkari bila bidali nuen. Normalean postarekin batera iristen zen, arratsaldean. Erne egoteko esan nion. Ezohiko pertsonarik ikusiz gero, gogoratzeko eta, batez ere, hegazkinei eta autoei ondo begiratzeko. Gero, Scudderren liburuxka sakonki aztertzeari ekin nion.

Ostalaria eguerdian itzuli zen The Scotsman egunkariarekin. Ez zekarren ezer, Paddock eta esneketariaren gaineko hitz batzuk izan ezik eta, lehengo egunean bezala, hiltzailea iparraldera joan zela zioen. Haatik, Karolides eta Balkanetako aferen gaineko artikulu luze bat ageri zen, The Times egunkaritik hartua; baina ez zuen Ingalaterrara egin beharreko bisitari buruz ezer aipatzen. Arratsaldean, ostalariaz libratzea lortu nuen, eta buru-belarri aritu nintzen kodearen gakoa asmatu nahian.

Esan dizuedan moduan, zenbakizko kodea zen eta, esperimentu-sistema nahiko konplexua erabiliz, zeroen eta etenen esanahia aurkitu nuen. Arazoa hitz-gakoa zen, eta, erabili izan zitzakeen hitz-andanan pentsatzen nuenean, itxaropena galtzen nuen. Aitzitik, hirurak aldera, bat-bateko inspirazioa izan nuen.

Izen bat gogora etorri zitzaidan: Julia Czechenyi. Scudderrek esan zidan Karolidesen aferan gakoa zela, eta kodea asmatzeko erabiltzea bururatu zitzaidan.

Funtzionatu zuen. “Julia” izenaren bost hizkiek bokalen kokapenak eman zizkidaten. ‘A’ hizkia ‘J’ zen, alfabetoaren hamargarren hizkia eta, ondorioz, kodean ‘X’ zen. ‘E’ hizkia ‘U’ zen eta ‘XXI’ bezala agertzen zen kodean, eta horrela ondoz ondo. “Czechenyi” abizenak kontsonante nagusien zenbakiak eman zizkidan. Datu horiek paper-zati batean azkar idatzi eta Scudderren orrialdeak irakurtzeari ekin nion.

Ordu-erdi geroago, aurpegi zuriz eta hatz-muturrez mahaian jotzen nuen bitartean, irakurtzeari ekin nion.

Leihotik begiratu nuen eta ikusi nuen turismo handi bat zetorrela bailaran gora, ostaturako bidean. Atarian gelditu zen eta autotik jendea ateratzen ari zela entzun nuen. Antza, bi ziren: bi gizon, biak gabardinaz eta tweedezko txanoaz jantzita.

Hamar minutu geroago, ostalaria sartu zen gelara, begiak distiratsu.

—Behean, zure bila dabiltzan bi gizon ditut —xuxurlatu zidan—. Jangelan daude, whiski eta soda hartzen. Zutaz galdetu didate eta esan didate zu hemen aurkitzea espero zutela. Oso ondo deskribatu zaituzte, botak, alkandora eta guzti. Esan diet atzo egon zinela, eta motozikletaz joan zarela gaur goizean. Haietako batek birao piloa bota du.

Haien deskribapena eskatu nion. Bata argala zen, eta begi ilunak eta bekain iletsuak zituen; besteak irribarre egiten zuen etengabe eta zizipaza. Ez ziren atzerritarrak, horretaz erabat ziur zegoen nire lagun gaztea.

Paper bat hartu nuen eta, gutun baten zati bat izango balitz bezala, hitz hauek idatzi nituen alemanez:

"…Harri Beltza. Scudder horretaz konturatu zen, baina, hamabostaldi batez ezin zuen ezer egin. Ez dut uste orain ezer lagungarririk egin dezakedanik, Karolidesek ez dakielako oso ondo zer egingo duen, batez ere. Baina T. jaunak esaten badu, egin dezakedan guztia egingo dut…".

Nahiko txukun idatzi nuen, gutun pribatu baten orrialde solte bat zela pentsa zezaten.

—Eraman behera, eta esan iezaiezu nire logelan aurkitu duzula eta niri itzultzeko, ikusten banaute.

Hiru minutu geroago, autoa abian jarri zela entzun nuen eta, errezelen atzetik ezkutatuta, bi gizonak ikusi nituen. Bata argala zen eta bestea txukuna. Ezin izan nuen hori baino gehiago ikusi.

Ostalaria agertu zen, erabat asaldatuta.

—Zure paper horrek arreta piztu die. —Alaitasun handiz esan zidan—. Beltzarana hildako bat bezain txuri jarri da eta biraoka hasi da; lodiak txistu egin du eta keinu itsusia jarri. Edariak libera-erdi batez ordaindu dituzte eta ez dute atzerakoak jasotzeko itxaron.

—Orain esango dizut zer nahi dudan zuk egitea —esan nion—. Hartu motozikleta eta joan Newton-Stewarteko polizia-buruarengana. Deskribatu bi gizonak eta esan iezaiezu uste duzula Londresko hilketarekin harremana dutela. Arrazoiak zeuk asma ditzakezu. Biak itzuliko dira, ez izan zalantzarik. Gaur gauean ez dira itzuliko, errepidean hirurogei kilometroz jarraituko nautelako; baina bihar goizean etorriko dira. Esan poliziari bihar goizeko lehen orduan hemen egoteko.

Ume zintzoen moduan gelatik atera zen eta nik Scudderren oharrekin jarraitu nuen lanean. Itzuli zenean, elkarrekin afaldu genuen eta niri nahi beste galderaegiten utzi nion —zer gutxiago, ezta?—. Lehoi-ehizen eta Matabele Gerraren gainean luze hitz egin nion eta, aldi berean, pentsatzen nuen. esku artean nuen aferarekin alderatuta, abentura horiek oso lasaiak zirela Ohera joan zenean, gelan eseri eta Scudderren liburuxka amaitu nuen. Egunsentira arte erre nuen, aulkian eserita, ezin bainuen lorik egin.

Goizeko zortziak aldera ikusi nuen bi polizia eta sarjentu bat iritsi zirela. Haien autoa garajean gorde, ostalariak hala aginduta, eta etxean sartu ziren. Hogei minutu geroago, leihotik ikusi nuen beste auto bat hurbiltzen ari zela zabaldiaren beste aldetik. Ez zen ostaturaino heldu: ehun eta laurogei metrora zegoen zuhaizti txiki baten gerizpean geratu zen. Ikusi nuen bidaiariek autoa atzera begira jarri zutela kontu handiz, atera aurretik. Minutu bat edo bi geroago, hartxintxarrean entzun nituen haien pausoak.

Nire plana logelan ezkutatuta geratzea zen eta, handik, gertatuko zena ikustea. Uste nuen, polizia eta jazarle arriskutsu haiek elkartzea lortuz gero, abantailaren bat aterako nuela. Baina orduan beste ideia hobe bat bururatu zitzaidan. Nire anfitrioiari eskerrak emateko ohar azkar bat idatzi nion, leihoa ireki eta, zaratarik egin gabe, andere-mahats zuhaixka batera jaitsi nintzen. Inork ikusi gabe, erreka gurutzatu nuen, erreka-adar baten ertzean behera lau hankan joan eta errepideraino iritsi nintzen baso txikiaren beste aldean. Autoa zegoen han, txukun eta eder goizeko eguzkipean. Xasisaren hautsak erakusten zidan bidaia luzea egina zuela. Motorra piztu nuen, gidariaren aulkira jauzi egin, eta zabaldirantz egin nuen ihes isilean. Jarraian, errepideak behera egiten zuen, eta, hortaz, bistatik galdu nuen ostatua; baina iruditu zitzaidan haizeak ahots haserreen soinua ekartzen zidala.



4 - Hautagai erradikalaren abentura

Imajina nazazue auto handi hori ahalik eta lasterren gidatzen landako errepide garbietan, maiatzeko goiz distiratu hartan. Hasieran, atzera begiratzen nuen batzuetan eta hurrengo bidegurutzea ikusteko irrikan nengoen; geroago, arreta handirik gabe gidatzen nuen, errepideari jarraitzeko behar nuen baino gehiagorik ez. Izan ere, murgilduta nengoen Scudderren liburuxkan aurkitu nuen horretan.

Gizon txiki hark gezur pila bat kontatu zizkidan. Balkanen gaineko istorioak, anarkista juduak, Kanpo Arazoetako Ministerioaren hitzaldia, Karolides… dena gezurra zen. Baina ez erabatekoa, ikusiko duzuen erara. Haren istorioa erabat sinetsi nuen, eta desengainatu ninduen. Orain, haren liburuak beste kontu bat esaten zidan eta, nahiz eta ur beroak erreta egon, ez nintzen ur epelaren beldur: erabat sinesten nuen. Ez nekien zergatik. Benetakoa iruditzen zitzaidan, oso, eta lehenengo istorioa ere, nolabait, funtsean egiazkoa zen. Ekainaren hamabosta patuaren eguna izango zen, eta patu hori atzerritar baten heriotza baino garrantzitsuagoa zen. Hain zen kontu handia izango, non ez bainion Scudderri ezer leporatzen ni jokoz kanpo utzi eta bakarrik jokatu nahi izateagatik. Horixe zen haren asmoa, ziur samar nengoen. Istorio garrantzitsua kontatu zidan, baina benetako afera hain zen handia, ezen hura aurkitu zuen gizonak harentzat bakarrik nahi baitzuen. Ez nuen gaizki hartu. Azken batean, egoerak zituen arriskuengatik zen horren zuhurra.

Kontu osoa liburuxkan zegoen, hutsune batzuk kenduta, eta hutsune horiek memoriarekin beteko zituen. Iturriei ere markak ematen zizkien: bakoitzari zenbaki bat ematen zion eta, gero, istorioaren une bakoitzean zuten sinesgarritasun-indizea idazten zuen. Letra larrietan idazti zituen izenak iturriak ziren eta gizon bati, Ducrosne jaunari, puntuazio gorena ematen zion, bost puntu, alegia. Beste batek, Ammersfoot jaunak, hiru jasotzen zituen. Istorioaren oinarrizko datuak baino ez zeuden liburuan eta dozena-erdi bider errepikatzen zen esapide bitxi bat, parentesi artean. Esaldia hauxe zen: («Hogeita hemeretzi maila»). Azken sarreran, honela agertzen zen: («Hogeita hemeretzi maila, zenbatu egin nituen: itsasgora, 22:17»). Ez nion inolako zentzurik hartzen.

Lehenbizi ikasi nuen ez zegoela gerra ekiditeko modurik. Gauza ziurra zen, urtero Gabonak etorriko direla bezain ziurra. Scudderren hitzetan, hori 1912ko otsailetik hitzartuta zegoen. Karolides izango zen abagunea. Fitxatu egin zuten, eta ekainaren 14an hilko zuten, maiatzeko goiz hartatik bi aste eta lau egunera, alegia. Scudderren oharren arabera, ez zegoen inor munduan hori saihestuko zuenik. Haien amona larrutzeko gai ziren bizkartzain epiroten kontu hori txorakeria hutsa zen.

Ikasi nuen bigarren gauza izan zen gerra hori Erresuma Batuarentzat ezusteko handia izango zela. Karolidesen heriotzak Balkanak harrotuko zituen erabat eta, orduan, Vienak ultimatuma emango zuen. Errusiari ez zitzaion gustatuko eta hitz larriak esango zizkioten elkarri. Aldiz, Berlinek bakezalearena egingo zuen eta egoera baretzen saiatuko zen. Gero, bat-batean, haserretzeko arrazoi bat aurkituko zuen eta, bost ordu geroago, guri erasoko zigun. Hori zen ideia eta ez zen ideia makala, gainera. Eztia eta hitz goxoak eta, bat-batean, ohartarazi gabeko kolpea. Alemaniaren fede eta asmo onez ari ginen bitartean, gure kostaldea itsasontzien kontrako minez beteko zuten ezer esan gabe, eta itsaspekoak gure gerraontzi guztien zain egongo ziren.
Dena dela, horrek guztiak hirugarren gauza baten beharra zuen, eta hori ekainaren hamabostean gertatuko zen. Ez nukeen hori inoiz ulertuko, mendebaldeko Afrikatik itzultzen nintzen batean Estatuko ofizial frantziar bat ezagutu izan ez banu. Ofizial hark gauza asko kontatu zizkidan. Besteak beste, azaldu zidan Frantziaren eta Erresuma Batuaren artean benetako aliantza praktikoa zegoela, legebiltzarrean tontakeria asko esaten ziren arren, eta bi estatuburuak elkartzen ohi zirela batzuetan elkarlanean aritzeko, gerra piztuko balitz. Ekainean, oso ofizial garrantzitsua etorriko zen Parisetik eta britainiarrek mobilizatu beharreko flota nazionalaren kokapenak jasoko zituen. Nik, behintzat, halako zerbait zela ulertu nion; nolanahi ere, ezohiko garrantzia zuen gauza bat zen.
Hala ere, ekainaren hamabostean, beste batzuk ere Londresen izango ziren, eta beste horien nortasunaz irudipenak baino ez nituen. Scudderrek “Harri Beltza” izenaz aipatzen zuen talde osoa, baina besterik ez. Ez ziren gure aliatuen ordezkariak, etsairik arriskutsuenak baizik, eta Frantziara bidali beharreko informazioa haien sakeletan bukatuko zuen. Informazio hori erabiltzeko asmoa zuten, gogoratu astebete edo bi geroago arma masiboekin eta torpedo azkarrekin etorriko zirela, ustekabean eta udaldiko gau baten ilunpean.
Horixe dezifratu nuen mendialdeko ostatuaren atzealdeko gela hartan, leihotik aza-baratzea nuela ikuspegi. Istorio horrek egiten zidan burrunba burmuinean, auto handia haran batetik bestetara eramaten nuela.
Burura etorri zitzaidan lehen ideia Lehen Ministroari idaztea izan zen; baina, pixka bat hausnartu ondoren, konturatu nintzen hori alferrikakoa izango zela. Nork sinetsiko zidan? Seinale bat behar nuen, egiaztatzeko froga bat, eta auskalo zer aurki nezakeen. Batez ere, aurrera jarraitu behar nuen eta, unea iristen zenean, esku hartzeko prest egon. Ez zen lan erraza izango. Erresuma Batuko polizia atzetik nuen; baita Harri Beltzaren zelatariak ere, nire arrastoari isilik eta azkar jarraitzen.
Ez nuen oso argi nora helduko nintzen; baina, eguzkiaren laguntzaz, ekialdera gidatu nuen. Mapan ikusitakoa gogoratuz, banekien iparraldera joanez gero

ikatz-meategiz eta industria-herriz betetako eskualde batera iritsiko nintzela. Une hartan, landetan behera nindoan, eta ibai baten haran zabala zeharkatzen ari nintzen. Kilometro askotan zehar, lursail bat inguratzen zuen harresi baten parean gidatu nuen eta, zuhaitzen artean, gaztelu handi bat ikusi nuen. Lastozko teilatuak zituzten herri zahar eta txikiak gurutzatu nituen, lur beheretako erreka lasaiak ere bai, elorriz eta otalorez gainezka zeuden lorategiak atzean utzi nituen arte. Horren ingurune baketsuan nengoen, ezen ezin bainuen sinets bi gizon zeudela nire atzetik ni erail nahian eta, hilabeteren buruan, izugarrizko zortea izan ezean, mendialdeko aurpegi biribilek izuturik begiratu zutela eta Ingalaterrako zelaiak gizon hilez beteko zirela.

Eguerdi aldera, herri luze eta sakabanatu batean sartu nintzen, eta erabaki nuen geldituko nintzela zerbait jateko. Herriaren erdian, postetxea zegoen eta, horren eskaileretan, postetxeko arduraduna eta polizia bat telegrama bat dezifratzen ari ziren, ahalegin handiz. Ni ikusi bezain laster ohartu egin ziren eta poliziak, esku bat altxatuz, gelditzeko oihu egin zidan.

Kasu egiteko bezain memeloa izan nintzen kasik. Orduan, bat-batean bururatu zitzaidan telegramak nirekin zerikusia zuela. Ostatuan zeuden guztiak ni berriro ikusteko gogoz zeuden eta, ziurrenik, erraza izango zen nire eta autoaren deskribapena telegramaz bidaltzea gurutza nitzakeen hogeita hamar herritara. Balaztak doi-doi askatu nituen. Hala ere, poliziak autoari heldu zion esku batekin, eta ezkerreko eskuarekin begian ukabilkada jo nion arte ez zuen laga.

Ohartu nintzen errepide nagusiak ez zirela egokiak niretzat eta bigarren mailakoetan sartu nintzen. Maparik gabe ez zen erraza. Haziendaren bateko bidexka batean sartzeko arriskua zegoen eta, horrela, ahate-putzu edo ukuilu bateko patio batean amaitzeko. Ezin nuen halako atzerapenik eduki. Orduan ohartu nintzen autoa lapurtzea tontakeria izan zela. Erraldoi berde hark nire kokapenaren berri emango zuen Eskozian zehar. Autoa utzi eta oinez jarraitu izan banu, ordubete edo bi geroago jazarleak aurkituko zuketen eta ez nukeen alderik edukiko ihesean.

Premiazkoena errepide aldenduenetara iristea zen. Laster aurkitu nituen, ibai handi baten adar batera iritsi nintzenean. Haranean barrena, muino aldapatsuz inguratuta nengoen eta, amaieran, errepide bihurri batek mendate bat gurutzatzen zuen. Ez nuen inorekin topo egin, baina, errepide horretatik, gehiegi urrunduko nintzen iparralderantz. Horrenbestez, ekialderantz zihoan bidexka txar batean sartu nintzen eta, azkenean, trenbide bikoitz handi batera iritsi nintzen. Beherantz begiratuta, beste haran bat ikusi nuen, zabal samarra, eta bururatu zitzaidan hura gurutzatuz gero beharbada urrutiko ostatu batean gaua pasatzeko aukera izango nuela. Iluntzen ari zuen eta oso gose nintzen, okin baten orgatik erositako opil pare bat baino ez bainuen jan gosariaz geroz.

Orduantxe entzun nuen zarata bat zeruan eta, hara! Han zegoen hegazkin madarikatu hura, lurretik gertu hegaka, hogei bat kilometro hegoaldera, eta azkar zetorren nire norabidean.
Eskerrak garaiz ohartu nintzen landa biluzian hegazkinaren mende nengoela eta nire aukera bakarra haraneko zuhaiztien pean sartzea zela. Tximista bezain azkar joan nintzen muinoan behera eta, noizean behin, burua biratzera ausartzen nintzen, makina hegalari nazkagarriari begiratzeko. Berehala, ertzetan hesiak zituen errepide batera heldu nintzen eta erreka baten ibar sakon batera eraman ninduen horrek. Orduan, baso trinko batera iritsi nintzen, eta abiadura gutxitu egin nuen.
Bat-batean, beste auto baten klaxona entzun nuen nire ezkerretara eta izu handiz konturatu nintzen errepidera ematen zuen bide pribatu baten zutoinekin talka egitear nengoela. Nire klaxonak alarau ahula atera zuen, baina beranduegi zen. Balaztak zapaldu nituen, baina autoaren oldarra handiegia zen eta, nire bidean, beste autoa zihoan irristaka. Segundo bat gehiago igaro izan balitz, izugarrizko hondamena izango zatekeen. Egin nezakeen gauza bakarra egin nuen, hau da, eskuineko hesiaren kontra jo, horren atzean zerbait leuna egongo zelakoan.
Aitzitik, oker nenbilen. Nire autoak hesia gurutzatu zuen gurina balitz bezala eta, gero, zorabiatzeko moduko jauzia egin zuen. Gertatuko zena ikusi izan banu, eserlekuaren gainean zutik jarriko nintzen, autotik jauzi egiteko prest. Elorri baten adarrak, ordea, bularretik harrapatu ninduen, altxatu, eta sostengua eman zidan, tona bat edo biko metal garestia nire azpitik irristatzen zen bitartean. Erori eta iraulka ibili zen, eta hamabost metro beherago zegoen errekaren uretan talka ozena egin zuen. Elorriak pixkanaka-pixkanaka askatu ninduen. Hesiraino jaitsi nintzen lehenbizi eta, gero, emeki-emeki, osin batzuetara. Baldarki zutik jartzen ari nintzela, esku batek besotik heldu zidan, eta ahots adeitsu eta beldurtu batek galdetu zidan mina hartu ote nuen.
Gizon gazte eta garai bat aurkitu nuen aurrez aurre, gidatzeko betaurrekoez eta larruzko beroki batez jantzita, aieneka eta barkamena eskatzen etengabe. Arnasa berreskuratu ahala, pozik egoteko arrazoia baino ez nuen ikusi. Hori bai autoa gainetik kentzeko modua.
—Errua nirea izan da —erantzun nion—. Eskerrak ez diodan hilketa bat gehitu nire tontakeria-zerrendari. Eskozian egin nahi nuen auto-bidaia amaitu da, baina nire bizitzaren amaiera ere izan zitekeen.
Ordularia atera, eta begiratu zion.
—Une egokian agertu zara —esan zidan—. Ordu-laurden bat libre daukat eta nire etxea hemendik bi minutura dago. Arropa emango dizute, eta janaria, baita ohe on bat ere. Hala ere, non daude zure gauzak? Autoarekin batera erre egin al dira?

—Sakelan ditut —esan nion, hortzetako eskuila bat erakutsiz—. Kolonietakoa naiz eta gauza gutxirekin bidaiatzen dut.
—Kolonietako bat! —oihu egin zuen—. Jainkoarren, nire otoitzen erantzuna zara. Kasualitatez, librekanbismoaren aldekoa zara?
—Banaiz —erantzun nion, zer esan nahi zuen ideiarik ez nuen arren.
Sorbaldan kolpetxoak eman zizkidan eta autoan azkar sartu ninduen. Hiru minutu geroago, itxura atsegineko etxe baten aurrean gelditu ginen, pinuz inguratua, eta barrura sartzeko keinua egin zidan. Lehenik, logela batera eraman ninduen eta dozena-erdi traje nire aurrean bota zituen, nirea suntsituta zegoen eta. Sargazko traje urdin handi bat aukeratu nuen, aurreko arroparekin alderik handiena baitzuen, eta lihozko lepoko bat hartu nion mailegutan. Orduan, jangelara joateko esan zidan eta han azken otordutik geratutako janaria zegoen mahai gainean. Esan zidan jateko bost minutu nituela.
—Mokadu bat sakelan eraman dezakezu eta, itzultzen garenean, afalduko dugu. Masonen aretora, zortzietan iritsi behar dut; bestela, nire agenteak kargu hartuko dit. Kafe bat hartu nuen, baita urdaiazpiko hotz pixka bat ere eta, bitartean, nire anfitrioiak hitz egiten jarraitu zuen sutondoan.
—Ikusiko duzu anabasa handian nagoela… Bide batez! Ez didazu zure izena esan. Twisdon? Hirurogeigarren erregimentuaren Tommy Twisdonen senidea al zara? Ez? Bada, ni eskualde honen hautagai liberala naiz, eta, gaur, badut mitin bat Brattleburnen. Horixe da nire herri nagusia eta, tamalez, kontserbadoreak oso indartsu daude han. Lehen Ministro kolonial ohia, Crumpleton, gaur nire alde hitz egitera etortzekoa zen, publizitate handia egin diogu mitinari, eta lekua gainezka egongo da. Baina, arratsaldean, lotsagabeak telegrama bat bidali dit esanez Blackpoolen dagoela, gripeak jota, eta hementxe nago ni, kontu osoa bakarrik egitera behartuta. Nire asmoa hamar minutuz hitz egitea zen, baina, orain, berrogei minutu izango dira, eta, hiru orduz burua hausten ibili naizen arren esateko zerbait aurkitu nahian, ez zait gauza nahikorik bururatu. Beraz, gizon jatorra izan eta lagundu, mesedez. Librekanbismoaren aldekoa zara eta protekzionismoak kolonietan egiten duen kaltea azal diezaiekezu. Zuek guztiek badaukazue hitz egiteko gaitasuna; nik ez, tamalez. Zurekin zorretan egongo naiz betiko.
Ezer gutxi nekien librekanbismoaren alde edo aurka, baina, nahi nuena lortzeko, ez nuen beste aukerarik ikusten. Jaun gaztea hain zegoen bere gauzetan murgilduta, ezen ez baitzen konturatzen zeinen zen arraroa heriotzari ihesi egin eta auto izugarri garestia galdu berri duen ezezagun bati mitin batean hitz egiteko eskatzea bat-batean. Aitzitik, nire premiak ez zidan unearen bitxikeriari buruz hausnartzen uzten, ezta nire euskarriak aukeratzen ere.
—Ondo da —ihardetsi nion—. Ez naiz oso mintzalari fina, baina Australiari buruz hitz egingo diet.

Hitz horiek sorbaldetako zama izugarri hura arindu zioten, eta poz handiz eman zizkidan eskerrak. Larruzko beroki handi bat utzi zidan,eta ez zidan galdetu zergatik nenbilen auto-bidaian berokirik eraman gabe; hautsez beteta zeuden errepideetan genbiltzala, bere istorioa kontatu zidan. Umezurtza zen, osabak hezia. Ez naiz osabaren izenaz gogoratzen, baina gobernuan zegoen eta haren hitzaldiak egunkarietan irakur ditzakezue. Cambridgeko Unibertsitatean lizentziatu ondoren, munduan zehar bidaiatu zuen eta, gero, lanik ez zuenez, osabak politikagintzan sartzeko aholkatu zion. Ohartu nintzen berdin zitzaiola alderdi bat edo bestea.

—Bietan, gizon onak daude —esan zidan alai—, baita lotsagabeko asko ere. Ni liberalen aldekoa naiz, nire familia betidanik hala izan delako.

Politikan epela bazen ere, beste gauza batzuei buruzko iritzi sendoak zituen. Zaldien gainean asko zekien eta gauza asko kontatu zizkidan Derbyko lasterketan parte hartuko zuten zaldiei buruz; gainera, bere tiro-gaitasuna hobetzeko plan asko zituen. Oro har, gazte gardena, zintzoa eta heldugabea zen.

Herri txiki bat gurutzatzen ari ginela, bi poliziak gelditzeko keinuak egin zizkiguten esku-argiekin.

—Barkatu, Sir Harry —esan zuen batek—. Auto bat bilatzeko agindu digute eta deskribapena bat dator zurearekin.

—Ondo da —esan zuen nire anfitrioiak, eta nik eskerrak eman nizkion Jainkoari, era arraro batean izan arren, neure burua salbatu nuela ikusita. Horren ondoren, ez zuen hitz gehiagorik esan, egin beharreko mintzaldia buruan zuen eta. Marmarka ari zen, begiak noraezean zebiltzan, eta bigarren hondamendi baten beldur nintzen. Neu ere saiatu nintzen zer esango nuen irudikatzen, baina nire burmuina harriak bezain lehor zegoen. Ohartu baino lehen, kale batean gelditu ginen, ate baten aurrean, eta dominaz betetako jaun zaratatsu batek ongietorria eman zigun.

Aretoan, bostehun bat lagun zeuden, gehienak emakumezkoak, burusoil dezente eta dozena bat edo bi gizon gazte. Mahaiburuak –konfiantzarik ematen ez zuen apaiz protestante sudur gorridun batek– barkamena eskatu zuen Crumpleton ez agertzeagatik, gripea zuela adierazi zuen eta baieztatu zuen ni “Australiako pentsamenduaren benetako aitzindaria” nintzela. Atean, bi polizia zeuden eta espero nuen gorazarre hori entzun egingo zutela. Orduan, Sir Harry hasi zen.

Ez nuen inoiz halakorik entzun. Ez zuen hitz egiteko ideiarik ere. Ohar mordoa zuen, eta haiek irakurtzen zituen; baina, horiek uzten zituenean, totelka hitz egiten zuen. Noizean behin, buruz ikasitako esaldi batez gogoratzen zen eta, bizkarra tente, Henry Irvingek bezain ondo esaten zuen. Gero, paperen gainean makurtuta egoten berriro, galduta. Ez nuen inoiz halako tontakeria handirik

entzun. “Alemaniako mehatxuaren” gainean hitz egin zuen eta kontserbadoreen asmakizuna zela, txiroei haien eskubideak lapurtzeko eta gizarte-aldaketa handia eragozteko; baina “langile antolatuak” horretaz konturatu ziren, eta kontserbadoreei barre handia egiten zieten. Gure borondate ona erakusteko, itsas armada murriztu nahi zuen eta, ondoren, Alemaniari ultimatum bat bidaliko zion gauza bera egiteko; bestela, jipoitu egingo genuen. Kontserbadoreengatik ez bazen, Alemania eta Erresuma Batua elkarlanean ibiliko ginen bakearen eta aldaketaren alde. Sakelan nuen liburuxka beltzean pentsatu nuen! Scudderren lagunei bakea eta aldaketa bost axola zitzaizkien.

Hala ere, mintzaldia gustatu egin zitzaidan, nolabait. Gizonak tontakeria hutsak irentsiak zituen arren, haren zintzotasuna agerikoa zen. Gainera, zama handia kendu zidan gainetik. Agian ez nintzen oso mintzalari ona izango, baina Sir Harry baino mila aldiz hobea banintzen.

Nire txanda iritsi zenean, ez nuen hain gaizki hitz egin. Australiaren gainean gogoratzen nuen guztia kontatu nien, han bertan Australiako inor egongo ez zelako esperantzan. Hango alderdi laboristaren, emigrazioaren eta soldadutzaren gainean hitz egin nien. Ez dut uste librekanbismoa aipatzearekin gogoratu nintzenik; baina esan nien Australian kontserbadorerik ez zegoela, alderdi laboristak eta liberalak bakarrik. Horrek txaloak piztu zituen eta pixka bat esnarazi nituen, eta esan nien gure inperioa oso gauza loriatsua izan zitekeela, guztiok ahalegin handia eginez gero.

Oro har, uste dut arrakasta hutsa izan zela. Aitzitik, ez nintzen apaizaren gustukoa izan eta, publikoari eskerrak emateko eskatu zionean, esan zuen Sir Harryren mintzaldia “estatu-politikari baten mailakoa” izan zela eta nirea, berriz, “emigrazio-agente baten elokuentzia”.

Autoan berriro sartu ginenean, aldarte onenean zegoen nire anfitrioia.

—Mintzaldi izugarria, Twisdon —esan zidan—. Eta orain, etxera etorriko zara nirekin. Bakarrik nago eta, egun bat edo bi geratuz gero, arrantzan joango gara.

Afari beroa genuen —horren desiran nengoen ni— eta pontxea edan genuen, egongela alai batean, karraska egiten zuen sutondoaren alboan. Uste nuen egia esateko unea iritsia zela. Begietan ikusi nuen fidatzeko moduko gizona zela.

—Entzun, Sir Harry —esan nion—. Gauza garrantzitsu samar bat azaldu behar dizut. Gizon jatorra zara eta zintzoa izango naiz. Non demontretik hartu dituzu gaur bota dituzun tontakeria pozoitsu horiek?

Aurpegia ilundu zitzaion.

—Horren txarra zen? —galdetu zidan lotsatuta—. Nahiko ahul geratu da, bai. Gauza gehienak Progressive aldizkaritik eta nire agenteak bidaltzen dizkidan panfletoetatik atera ditut. Baina ez duzu uste Alemaniak gure kontrako egingo duenik, ezta?

—Galdera hori sei aste barru egiten baduzu, ez duzu erantzunik behar izango —ihardetsi nion—. Ordu-erdi bat ematen badidazu, istorio bat kontatuko dizut.
Oraindik, gela argitsu hura ikus dezaket, orein-buruak eta grabatu zaharrak hormetan, Sir Harry urduri sutondoko harrizko ertzaren gainean eta ni besaulki batean etzanda, hizketan. Beste pertsona bat banintz bezala ikusten nuen dena. Nire ahotsa entzuten nuen eta istorioak sinesgarria zirudien ala ez arretaz epaitzen nuen. Lehen aldia zen egia osoa —nik ulertzen nuena behintzat— norbaiti azaltzen niola eta oso lagungarria izan zitzaidan, gauzak argi ikusten lagundu baitzidan. Ez nuen xehetasunik ezkutatu. Scudderren gainean hitz egin nion, baita esneketariarena kontatu ere, liburuxkarena eta Gallowayn egin nuena ere bai. Urduri jarri zen eta sutondoko alfonbraren gainean aurrera eta atzera ibiltzen hasi zen.
—Beraz —amaitu nuen—, Portland Placeko Hilketagatik bilatzen ari diren gizona etxean duzu. Zure betebeharra zure autoa poliziarengana bidaltzea da, haiek nire atxilo nazaten. Ez dut uste oso urrun iritsiko nintzatekeenik. Istripu bat gertatuko litzateke eta, atxilotu eta ordubete edo bi geroago, labana bat izango nuke saihetsen artean. Baina, herritar zintzo zaren aldetik, zure betebeharra da. Beharbada hilabete barru damutuko zara, baina ez duzu zertan horrekin pentsatu.
Begi distiratsuekin irmo begiratu zidan.
—Zer lan mota egiten zenuen Rhodesian, Hannay jauna? —galdetu zidan.
—Meatze ingeniaria —esan nion—. Nire dirutza zintzo lortu dut eta horrekin ondo pasatu dut, gainera.
—Ogibide horrek ez die gizon baten nerbioei eragiten, ezta?
Barre egin nuen.
—Horri dagokionez, ez daukat arazorik.
Ehiztari-labana bat hartu nuen horman zegoen apal batetik; Mashona tribuaren amarru zaharra egin nuen: airetara bota, eta hortzekin harrapatzea. Hori egiteko, tentua behar da.
Irribarre batez begiratu ninduen.
—Ez dut frogarik behar. Beharbada mitinean tuntunarena egin dut, baina badakit gizon bati neurria hartzen. Ez zara hiltzailea eta ez zara memeloa eta uste dut egia esaten ari zarela. Eta orain lagunduko dizut. Zer egin dezaket?
—Lehenik, idatzi gutun bat osabari. Ekainaren hamabosta baino lehen gobernukideekin harremanetan jarri behar dut.
Bibotetik tira egin zuen.
—Horrek ez lizuke lagunduko. Hau Kanpo Arazoetako Ministerioaren afera bat da, eta osabak ez du zerikusirik horrekin. Gainera, ez zenuke inoiz konbentzituko. Ez, hori baino gauza hobea egingo dut. Kanpo Arazoetako

Ministerioko idazkari nagusiari idatziko diot. Aita pontekoa dut eta fidatzeko modukoa da, erabat. Zer esango diot?
Mahai baten ondoan eseri zen eta diktatu egin nion. Gakoa zen Twisdon deritzon gizonezko bat —uste nuen izen horrekin jarraitzea hobe zela— ekainaren hamabostean baino lehen agertzen bazen, ondo hartu beharko zukeela. Twisdonek bere nortasuna egiaztatzeko, "Harri Beltza" aipatu eta "Annie Laurie" abestiaren melodia txistukatu egingo zuen.
—Primeran — esan zuen Sir Harryk—. Hori da jarduteko modua. Bidenabar, aita pontekoak Sir Walter Bullivant du izena eta, egun horietan, landatan duen etxean egongo da. Artinswelletik gertu dago, Kennet ibaiaren ertzean. Beraz, gutuna idatzita dago. Orain zer?
—Nire garaierakoa zara, gutxi gorabehera. Utzi iezadazu zure tweedezko trajerik zaharrena. Edozein trajek balioko du, arratsaldean suntsitu dugun arroparen kolorearen desberdina bada. Gero, erakutsi eskualdeko mapa bat eta azaldu hemengo orografia. Azkenik, polizia nire bila etortzen baldin bada, erakuts iezaiezu haranean dagoen autoa, besterik ez. Besteak agertzen badira, esan iezaiezu hegoalderako trena hartu nuela mitinaren ondoren.
Gauza horiek guztiak egin zituen edota egingo zituela agindu zidan. Geratzen zitzaidan bibotea kendu nuen eta traje zahar-zahar bat jantzi nuen, (uste dut heather mixture deitzen zaiola materialari). Mapari esker, inguruaren ezaugarriak ezagutu nituen eta jakin nahi nituen bi gauzak esan zizkidan: hegoaldera zihoen trenbidea non hartu eta inguruko alderik basatienak zein ziren.
Ordu bietan, egongelako besaulkian nengoela esnatu ninduen eta, begiak etengabe kliskatzen nituela, gau ilun izardunean barrena eraman ninduen. Tresna-etxola batetik, bizikleta zahar bat atera zuen eta eman egin zidan.
—Lehenik, izei-baso luzean, eskuinetara jo —esan zidan—. Egunsentirako, mendi artean egongo zara. Orduan, bizikleta lokazti batera bota eta joan oinez mendixketara. Artzainen artean, astebete eman dezakezu Ginea Berrian izango bazina bezain seguru.
Hartxintxarrezko bidexketan gora, oinpekoei eragin nien, egunsentiak zerua argitu zuen arte. Eguzkia behe-lainoa kentzen ari zela, mundu berde eta zabal batean aurkitu nuen nire burua; haran txikiak alde guztietara eta urruneko zeruertza urdinerantz zabaltzen ziren. Han, behintzat, berehala jabetuko nintzen etsaien presentziaz.



5 - Bide-langile betaurrekodunaren abentura

Mendateko lekurik altuenean eseri nintzen eta nire egoera analizatu nuen.
Nire atzean, errepidea zegoen. Errepideak gora egiten zuen muinoen artean, arrail luze batean, ibai ospetsu baten goiko ibarrean. Aurrean lautada zegoen, beharbada kilometro eta erdikoa, lokaztiz eta sasi basatiz betea eta, harago, errepidea azkar jaisten zen beste haran batera, beste lautada bateraino. Lautada horren iluntasun urdina urruntasunean galtzen zen. Ezkerretara eta eskuinetara, profil leuneko muino berdeak zeuden, madalenak ziruditen. Hegoaldera, hots, nire ezkerretara, txilarrez estalitako mendi altuak ikusten ziren eta gogoratu nuen mapan babesleku gisa aukeratu nituen mendiak zirela. Garaiera itzeleko landa baten erdian nengoen: kilometrotara zer gertatzen zen ikus nezakeen handik. Errepidearen azpian zeuden larreetan, etxola bat zegoen, tximiniatik kea zeriola. Hori zen gizadiaren seinale bakarra. Bestela, txirrien txioak eta erreka txikien txilin-hotsa baino ez ziren entzuten.
Zazpiak inguru ziren eta, han geldirik nengoela, airean berriro entzun nuen mehatxuzko taupada hori. Orduan konturatu nintzen nire talai hori benetan tranpa bat izan zitekeela. Txoririk txikienak ere ez zuen ezkutatzerik leku berde biluzi horietan.
Taupada handitzen ari zela, geldirik geratu nintzen eserita, etsita. Orduan, ikusi nuen hegazkina ekialdetik zetorrela. Altu hegan egiten zuen, baina, hari begira nengoela, ehun bat metro egin zuen behera eta muino multzoaren inguruan hasi zen hegan, belatzak eraso egin baino lehen zirkulutan hegan egiten duen bezala. Orain, oso baxu zegoen eta hegazkin barrukoek ikusi ninduten. Bi kideetako batek prismatikoez aztertzen ninduela ikusi nuen.
Bat-batean, kiribil azkarrez igotzen hasi zen eta, abiadura handiz, ekialdera abiatu zen, goizaldiko zeruan izpi txiki bihurtu arte.
Horrek azkar eta sakon pentsarazi zidan. Etsaiek bazekiten non nengoen eta, handik gutxira, inguratuko ninduten. Ez nekien zer baliabide zituzten, baina ziur nengoen behar adina izango zela. Hegazkinetik, nire bizikleta ikusi zuten eta errepidetik ihes egiten saiatuko nintzela ondorioztatuko zuten. Hala izanda, landetan zehar eskuinetara edo ezkerretara jotzen banuen, aukera bat izan nezakeen. Bizikleta errepidetik ehun metrora eraman nuen eta goroldioz betetako urmael batera bota nuen eta, han, barrabas-belarren eta urrebotoien artean hondoratu egin zen. Orduan, muino batera igo nintzen eta, handik, haran bata eta bestea ikusten nituen. Inguruko zinta zurian ez zen ezer mugitzen.
Aitzitik, ez zegoen arratoi bat ezkutatzeko lekurik ere. Eguna argitu ahala, argi gardenak lekua bete zuen, Veldean egoten den giro eguzkitsuak egiten duen

antzera. Beste egoera batean, lekua nire gustukoa izango zitekeen, baina itogarri iruditzen zitzaidan orduan. Landa ireki horiek kartzelako hormak ziren; muinoetako haize ederra, ziega baten kiratsa. Txanpona bota nuen airetara: aurkia, eskuinetara; binperra, ezkerretara. Aurkia atera zenez, iparraldera abiatu nintzen. Hortik gutxira, gailur batera iritsi nintzen, mendateko hormara, alegia. Errepidean zehar, hamar kilometrora ikusten nuen eta, urrunean, zerbait mugitzen ari zen. Uste nuen auto bat izango zela. Gailurretik haratago, landa berde malkartsua ikusi nuen, basoko haranetara eramaten zuena. Veldean izandako bizimoduak arrano baten ikusmena eman zidan eta, horregatik, urrun dauden gauzak ikus ditzaket, nahiz eta gizon gehienek gauza horiek ikusteko teleskopioa behar. Maldan gora, hiru bat kilometrora, gizon batzuk zebiltzan, ehizaldi batean dabiltzan bilatzaileen gisan. Bistatik kanpo jarri nintzen, zeruertzaren atzean. Bide hori itxita neukan eta errepidetatik harago zeuden mendietan babeslekua aurkitzen saiatu nahi nuen. Lehen ikusitako autoa hurbiltzen ari zen, baina, momentuz, urrun zegoen eta aldapa handiak igo beharko zituen. Korrika egin nuen gogoz, makurtuta sakanetan izan ezik eta, aurrera joan ahala, aurrean nuen muinoaren gailurrari begiratzen nion tarteka. Nire irudimena zen ala pertsona batzuk ikusten ari nintzen (bat, bi, beharbada gehiago) haran gainean mugitzen, errepidez haraindi?

Lursail batean alde guztietatik setiatuta egonez gero, aukera bakarra duzu ihes egiteko. Lursailean geratu behar duzu eta, etsaiek bilatu arren, ez zaituzte aurkitu behar. Hori zentzuzkoa zen, baina nola demontre ez ninduten ikusiko leku laukizuzen horretan? Lokatzetan leporaino murgilduko nintzatekeen; edo ur azpian etzan; edo zuhaitzik altuena igo: baina ez zegoen adarrik; lokazti zuloak putzu txikiak ziren; eta, errekaren ordez, ur-ildo fina zegoen. Txilar motza baino ez zegoen, muino biluziekin eta errepide zuriarekin batera.

Orduan, oso bihurgune txiki batean, harri-tontor baten ondoan, bide-langilea aurkitu nuen. Iritsi berria zen eta mailuari nekez eragiten zion. Zuhurtziaz begiratu zidan eta aharrausi egin zuen.

—Zorigaiztokoa laborantza utzi nian eguna! —oihu egin zuen, munduari esango balio bezala—. Orduan, nire buruaren jabea ninduan. Orain, gobernuaren esklaboa nauk, bide bazterrari lotua, begiak higatuak eta bizkarra makur.

Mailua hartu zuen, harri bat kolpatu, eta birao batzuk botata, berriz eragin zion. Eskuak belarrietara eraman zituen.

—Otoi! Burua zapartatzen ari zaidak! —garrasi egin zuen.

Itxura basatia zuen. Nire neurrikoa zen, gutxi gorabehera; baina oso okertuta zegoen, astebeteko bizarra eta pastazko betaurreko handiak zituen.

—Ezin diat egin —oihu egin zuen berriro—. Ikuskatzaileak sala nezala. Ohatzera joanen nauk.

Arazoa zein zen galdetu nion, nahiko argi zegoen arren.

—Arazoa duk mozkortua naizela. Barda, alaba Merran ezkondu zuan eta lauak arte egin zitean dantza. Ni eta beste batzuk edateko jarri gintuan, eta hemen nauk. Domaia duk nik ardo beltzari inoiz begiratu izana!
Oheratu behar zen; ados nengoen.
—Hori erratea erraza duk —kexatu zen—. Baina atzo karta postala errezibitu nian ikuskatzaile berria gaur jinen zela erraten ziana. Etortzen denean ez naik aurkituko, edo, aurkituz gero, gaizki aurkituko naik, beraz eneak egin dik. Oheratuko nauk eta gaizki nagoela erranen zieat, baina horrek ez nauk lagunduko. Nire eritasuna zer den bazakitek.
Eta orduan bururatu zitzaidan.
—Ikuskatzaile berriak ezagutzen ote hau? —galdetu nion.
—Ez naik ezagutzen, ez. Aste bat bakarrik duk lanean ari duala, gehiago ez. Auto ttipi batean ibiltzen duk eta izigarri zorrotza duk.
—Hik non duk etxea? —galdetu nion, eta, hatz dardaratiaz, erreka ondoan zegoen etxola seinalatu zidan.
—Ongi, habil etxera —esan nion—, eta egin lo lasai. Memento batez hire lana eginen diat, baita ikuskatzailearekin mintzatuko ere.
Sinesgaitz begiratu zidan, eta, haren buru nahasia ulertzen hasi zenean, mozkortien irribarre distraitua azaldu zitzaion aurpegian.
—Hi bai mutiko gisakoa —oihu egin zuen—. Egitekoa erraza duk. Harri-tontor hori egin diat, eta, beraz, goiz honetan ez duk gehiago zilatu behar. Errota hartu, eta, hor den harrobitik, bihar beste tontor bat egiteko bezainbat ekarri. Nire izena Alexander Trummle duk, eta zazpi urte hauetan ari nauk lan honetan. Lehen, laboraria ninduan Leithen Wateren. Lagunek Ecky deitzen naitek, baita Specky ere, begi-lagunak badizkidalako, bista ahula baitiat. Ikuskatzaileari jendeki mintzatu, "jauna" erran iezaiok, eta kontent izanen duk. Ni eguerdi irian itzuliko nauk.
Betaurrekoak eta txano zikin eta zaharra hartu nizkion; nire jaka, txalekoa eta lepokoa kendu nituen eta eman egin nizkion. Buztinezko pipa zikina ere maileguan hartu nion. Egin beharreko ataza sinpleak azaldu zizkidan eta, besterik gabe, lasai abiatu zen oherantz. Oheratzea zuen helburu nagusitzat, baina nik uste botilan ere pixka bat geratzen zitzaiola. Espero nuen nire lagunak iritsi baino lehen gizona tapaki artean egotea.
Nire papera betetzeko jantzi nintzen. Alkandora ireki nuen. Koadroduna zen, urdina eta zuria, baserritarrek eramaten dituztenen modukoa eta lepoa ijito batena bezain marroia zuen. Maukak igo nituen eta besaurrea erregementari batena izan zitekeen, eguzkiak belztua eta zauri zaharrez betea. Errepideko hautsarekin botak eta prakak zuritu nituen. Gero prakak igo egin nituen eta belaunaren azpian soka batez lotu. Segidan, aurpegiarekin hasi nintzen. Hautsarekin ur-marka bat egin nuen lepoan, ziur aski Turnbull jaunak igandero

garbitzen zuenaren muga. Masail beltzaranak hautsez igurtzi nituen. Bide-langile baten begiak handitu samar egongo ziren; hortaz, hauts pixka bat sartu nuen bietan eta, igurtziz eta igurtziz, lausotuta utzi nituen.
Sir Harryk eman zizkidan sandwichak nire jakan zeuden, baina bide-langilearen bazkaria, musuzapi gorri batean bilduta, eskura nuen. Gose handiz, opil lodiak eta gazta zati batzuk jan nituen, baita te hotz pixka bat edan ere. Musuzapian, bertako egunkaria zegoen, sokaz lotuta eta Turnbull jaunaren izenarekin, ziur aski eguerdiko etena arintzeko. Fardela berriro lotu nuen eta egunkaria haren ondoan utzi nuen, oso agerian.
Iruditzen zitzaidan nire botak ez zetozela egoerarekin bat eta ostiko batzuk eman nizkien harriei, bide-langile baten oinetakoen granitozko itxura har zezaten. Orduan azazkalak hozkatu eta urratu nituen, ertzak arrailduta eta berdindu gabe utzi arte. Nire bila zetozen gizonek ez zuketen xehetasunik galduko. Lokarri bat apurtu nuen, eta berriro lotu nuen korapilo trakets batez; bestea askatu nuen, galtzerdi gris eta lodia agerian uzteko. Momentuz, ez zen errepidean ezer ikusten. Aski seguru, ordu-erdi lehenago ikusi nuen autoa etxerantz zihoan.
Mozorroa osatu eta gero, gurdia hartu nuen eta ehun metrora zegoen harrobira joan-etorriak egiten hasi nintzen.
Gogoratzen dut Rhodesian ezagutzen nuen esploratzaile zahar batek –bere garaian ezohiko gauza asko egin zituenak– esan zidala plantak ondo egiteko pertsonaiaren paperean benetan barneratu behar dugula. Ezinezkoa zen rola ondo egitea pertsonaia hori gu geu ginela sinetsi ezean. Hortaz, nire pentsamenduak itzali nituen eta errepideen konponketa-lanetan kontzentratu nintzen. Etxola zuri txikia nire etxetzat hartu nuen; Leithen Waterren abeltzain eman nituen urteak gogora ekarri nituen; neure burua ohe txiki batean gozo-gozo lo egiten imajinatu nuen, whiski-botila merke baten ondoan. Ez zen ezer agertu errepide zuri luzean. Noizean behin, ardiren bat txilarretik ateratzen zen eta begira geratzen zitzaidan. Lertxun bat zegoen errekan eta putzura jaitsi zen arrainak harrapatzera; baina ez zidan kasu txikienik ere egin. Jarraitu nuen harri-zama handiak eramaten, profesional baten pauso astunekin. Laster berotu nintzen eta aurpegian nuen hautsa benetako zikintasun bihurtu zen. Zenbatzen hasi nintzen zenbat ordu falta ziren Turnbull jaunaren lan monotonoari amaiera emateko.
Bat-batean, errepidetik, ahots garbi batek hitz egin zidan. Altxatu nintzen eta Ford txiki bat ikusi nuen, baita onddo-kapela zeraman aurpegi biribileko gazte bat ere. —Alexander Turnbull al zara? —galdetu zidan—. Konderriko Errepide Gainbegirale berria naiz. Blackhopefooten bizi zara eta Laidlaw-byresetik Riggserainoko zatia zurea da? Ederki! Errepide ona da, Turnbull, eta ondo diseinatua. Kilometro eta erdira, bigun samar dago eta ertzak garbitu behar

dira. Hori egin beharko duzu. Egun on. Ikusten nauzun hurrengoan, ezagutuko nauzu.
Argi zegoen mozorroa gainbegirale beldurgarriarentzat nahikoa zela. Lanarekin jarraitu nuen eta, goiza eguerdi bihurtzen ari zela, zirkulazio pixka batek alaitu zuen giroa. Okin baten furgonetak muinoan gora egin zuen eta poltsa bat jengibre-galleta erosi nuen; praketako sakelan gorde nuen larrialdietarako. Une hartan, artzain bat agertu zen, ardiekin batera, eta aztoratu egin ninduen ozen galdetuz:
—Speckyri zer gertatu zaiok?
—Ohatzean duk, marranta ederra bildurik —erantzun nion, eta artzainak aurrera jarraitu zuen…
Eguerdi aldera, auto handi batek muinoan behera egin zuen, nire ondoan lasai pasatu zen eta, ehun eta berrogei bat metro aurrerago, gelditu egin zen. Hiru bidaiari jaitsi ziren, nagiak ateratzeko itxurak egiten, eta niregana etorri ziren lasai.
Haietako bi Gallowayko ostatuko leihotik ikusi nituen: bata argala, zorrotza eta iluna; bestea lasaia eta irribarretsua. Hirugarrenak landako gizonen itxura zuen, albaitaria izan zitekeen, beharbada, edo baserritarra. Gaizki egindako bonbatxoak zeramatzan eta begiak oilo batenak bezain distiratsuak eta mesfidatiak.
—Egun on —esan zidan azkenak—. Lan erraza duk hirea.
Hurbiltzen ari zirela ez nien begiratu, eta orain, niri hitz egin ondoren, motel eta min handiz, bizkarra altxatu nuen, bide-langile batek egingo lukeen gisa. Gogoz, listua bota nuen, eskoziar baldarrek egiten duten modura, eta irmo begiratu nien erantzunik eman baino lehen. Ikusten nituen sei begiek ez zuten ezer galtzen.
—Lan hau baino pisuagoak badira, baita hobeak ere —serio esan nien—. Nahiago nikek zuen lana ukan, eta egun osoa ipurdia kuxin horien gainean jarririk ukan. Zuek eta zuen auto handiek nire errepideak funditzen dituzue! Gauzak zuzenak balira, funditzen duzuena konpondu beharko zenukete.
Begi distiratsuak zituenak Turnbullen fardelaren ondoan zegoen egunkariari begiratu zion.
—Egunkariak tenoreko errezibitzen dituk, ezta? —esan zidan.
Lasai begiratu nion.
—Bo, tenoreko. Egunkari hori joan den larunbatean atera zutela ikusirik, sei egun berantean baino ez nauk.
Hartu zuen, data irakurri zuen, eta han utzi berriro. Beste batek nire botak ikusi zituen, eta hitz egiten ari zenari begiratzeko esan zion alemanez.
—Botetarako gustu fina duk —esan zidan—. Ez zitian kanpañako zapatagin batek egin, ez.

—Segur duk —arin erantzun nion—. Londresen egin zitiztean. Iaz ihizira jin zen jaun batek eman zizkidaan. Zein zuan haren izena? —Buruan hatz egin nuen, memoria deika bezala.
Argalak alemanez hitz egin zuen berriro.
—Jarrai dezagun —esan zuen—. Gizon hau garbi dago.
Azken galdera bat egin zidaten.
—Goiz goizean, hemen norbait ikusi duk? Bizikletaz edo oinez jinen zuan.
Tranpan erori nintzen ia, eta egunsenti grisean txirrindulari bat azkar pasatu zela esan. Aitzitik, arriskuari garaiz antzeman nion. Sakon pentsatzen aritzearen plantak egin nituen.
—Ez nauk biziki goiz iratzarri —esan nien—. Gauza duk barda alaba ezkondu zela, eta berant oheratu ginela. Etxeko atea zazpiak irian ireki nian eta orduan ez zagoken nehor errepidean. Orduz geroztik, okina, Ruchilleko artzaina eta zuez gain, ez duk nehor hona jin. Haietako batek zigarro bat eman zidan eta, kontuz usaindu ondoren, Turnbullen fardelean sartu nuen. Autoan sartu ziren eta, hiru minutu geroago, bistatik desagertu.
Bihotzean arindura itzela sentitu nuen, baina harriak garraiatzen jarraitu nuen. Eskerrak, hamar minutu geroago autoa itzuli baitzen, eta bidaiari batek eskuz agurtu baininduen. Jende horrek ez zuen ezer zoriaren mende uzten.
Turnbullen opilak eta gazta bukatu nituen eta, laster, harriak ere bai. Ondoren ez nekien zer egin behar nuen. Ezin nuen errepidea konpontzen luze jarraitu. Jainko errukitsu batek Turnbull jauna etxe barruan mantendu zuen; baina, agertuz gero, arazoak izango nituzkeen. Irudipena nuen lerro estu zegoela haranaren inguruan eta, edozein norabidetan ibiliz gero, galderak egingo zizkidaten. Hala ere, atera egin behar nuen. Ez dago espioien begiradapean lasai egon daitekeenik egun bat baino denbora luzeagoz.
Lanpostuan, bostak arte geratu nintzen. Ordurako, erabakia nuen iluntzean Turnbullen etxolara joango nintzela eta, gauean, muinoak gurutzatzen saiatuko nintzen. Baina, bat-batean, beste auto bat errepidean gora agertu zen eta niregandik metro batera edo bi metrora gelditu zen. Haize freskoa zebilen eta bidaiariak zigarroa piztu nahi zuen.
Turismoa zen eta maletategia fardelez beteta zeukan. Gizon bat zegoen barruan eta, kasualitate itzelez, ezagutzen nuen. Marmaduke Jopley zuen izena eta iraina zen kreaziorako. Broker odol zurrupatzailea zen. Oinordekoak, aristokrata gazteak eta emakume zahar tuntunak limurtzen zituen. “Marmie” oso ezaguna zen, antza denez, dantzaldietan, polo-partidetan eta opor-etxeetan. Bazekien zurrumurruak trebetasun handiz hedatzen eta edozein tituludun edota aberatsengana katuka hurbil zitekeen. Londresera iritsi nintzenean, haren enpresa ezagutzera eraman ninduten eta, jator-jator, haren klubean afaltzera gonbidatu ninduen. Han, bere burua nabarmentzen aritu zen eta dukesen

gainean hitz egin zuen, haren esnobismoak zorabiatu ninduen arte. Gero, beste bati galdetu nion zergatik ez zuen inork jipoitzen: esan zidan ingelesek sexu ahula errespetatzen dutela.
Nire aurrean zegoen orduan, dotore jantzita eta auto eder berri batean, lagun elegante batzuei bisita egiteko bidaian, ziur aski. Bat-batean erotu egin nintzen, autoan sartu nintzen saltoka eta sorbaldatik heldu nion.
—Kaixo, Jopley —esan nion—. Aspaldiko partez, motel!
Beldurtu zen oso. Niri begiratu, eta ahozabalik geratu zen.
—Nor demontre zara? — esan zidan kostata.
—Hannay dut izena —erantzun nion—. Rhodesiakoa, gogoratzen?
—Jainkoarren, hiltzailea! — esan zuen itota.
—Horixe. Eta, adiskide, esaten dizudana egiten ez baduzu, bigarren hilketa bat izango dugu. Eman iezadazu beroki hori, baita txanoa ere.
Esan niona egin zuen, beldurrez itsututa zegoen eta. Nire praka zikinaren eta alkandora arruntaren gainean, haren beroki dotorea jantzi nuen: botoiak goraino iristen ziren eta, horrela, nire lepokoaren gabeziak ezkutatzen zituen. Txanoa buruan jarri nuen eta eskularruak gehitu nizkion mozorroari. Minutu batean, hautsez betetako bide-langilea Eskoziako gidari txukun bilakatu zen. Jopley jaunari Turnbullen txano aipaezina jarri nion buru gainean, eta jarrita uzteko esan.
Orduan, zailtasunez, autoa biratu nuen. Nire plana zen hura etorritako errepide beretik itzultzea: zelatariek, autoa lehendik ikusia zutelako, seguruenik ezer esan gabe pasatzen utziko zioten, nahiz eta Marnieren gorpuzkera nirearen modukoa ez izan.
—Eta orain, txiki —esan nion—, geldirik egon eta ondo portatu. Ez dizut kalterik egingo. Ordubetez edo biz autoa hartuko dizut, gehiagorik ez. Baina zer edo zer egiten baduzu eta, batez ere, ahoa irekitzen baduzu, Jainkoak daki lepoa moztuko dizudala. Ulertzen?
Iluntze horretako bidaiarekin, gozatu egin nuen. Haranean, hamabost kilometro egin genituen, herrixka pare bat gurutzatu, eta itxura bitxiko pertsona batzuk ikusi nituen bideen ertzetan. Zelatariak izango ziren eta ni beste mota bateko arroparekin edo beste konpainia batekin ikusiz gero, gauza asko esango zizkidaten. Aitzitik, gauzak horrela, jakin-minik gabe begiratu zidaten. Batek begirunez ukitu zuen txanoa, eta nik, heziera onez, erantzun egin nion.
Iluntzen ari zela, haran txiki batean sartu ginen. Mapatik gogoratzen nuen biztanleria gutxiko muino batzuetara joaten zela. Laster, herrixkak atzean utzi genituen, gero etxaldetxoak eta, azkenean, bide ertzetan zeuden etxolak. Gero, landa bakarti batera iritsi ginen; gauak lokatz-putzuen ilunabarreko distira iluntzen zuen. Gelditu egin ginen eta nik, adeitsu, autoa biratu eta Jopley jaunari gauzak itzuli nizkion.

—Mila esker —esan nion—. Uste nuen baino gehiagorako balio duzu. Eta, orain, zoaz poliziarengana.

Muino hartan eseri nintzen, autoaren atzeko argiak desagertzen ikustera, eta pentsatzen hasi nintzen zenbat delitu-mota probatuta neuzkan. Gehienen ustearen aurka, ez nintzen hiltzailea; baina izugarrizko gezurtia bihurtua nintzen, baita iruzurti lotsagabea eta auto garestiak maite zituen bide-lapurra ere.



6 - Arkeologo burusoilaren abentura

Malda hartako ordekatxo batean igaro nuen gaua, harri batek babestuta, non txilar luze eta leuna hazten baitzen. Gau hotza zen eta ez nuen jakarik, ezta txalekorik ere. Turnbull jaunak zituen jantziak, baita Scudderren liburuxka, nire ordularia eta, okerrena, nire pipa eta tabako-kutxa ere. Dirua baino ez nuen gerrikoan, eta berrehun bat gramo jengibre galleta.

Galleten erdia afaldu nuen eta, txilarretan sakon murgilduta, berotasun pixka bat lortu nuen. Animatuta nengoen eta ezkutaketa-jolas ero horrekin gozatzen hasia nintzen. Ordura arte izandako zorte ona miraria izan zen. Esneketaria, ostalari literarioa, Sir Harry, errepide-langilea, Marmie memeloa… merezi ote nuen hain zorte ona? Hasieran izandako arrakasta horrek sentiarazi zidan helburua lortuko nuela.

Arazo nagusia zen oso gose nintzela. Cityn aberats batek bere buruaz beste egiten duenean, egunkariek jakinarazten dute hildakoa “ondo elikatua” zegoela. Gogoratzen dut pentsatu nuela lokatz-zulo batean hilko banintz ez ninduketela ondo elikatutzat hartuko. Etzanda, nire burua torturatu nuen Londresen horren gutxi estimatu nuen janari onaren memoriarekin. Jengibre galletek barruko zuloa handitu baino ez zuten egin. Paddockek prestatzen zituen saltxitxa kirrikatsuak, usain oneko hirugihar zati finak eta ur irakinetan egindako arrautza ederrak. Zenbat aldiz muzin egin nien! Klubean egiten zituzten txuletak eta hestebeteen mahaian egoten zen urdaiazpiko hura… nire arima haien irrikan zegoen. Elikagai guzti-guztiekin gogoratzen nintzen eta, azkenean, parrillan egindako xerra eta litro bat garagardo aukeratu nituen eta, azkenbururako, welsh rabbit. Ezinezko plazer horien grinaz, loak hartu ninduen.

Egunsentitik ordubete igarota zegoela, hotzak hilik eta zurrun esnatu nintzen. Une bat behar izan nuen non nengoen gogoratzeko, bezperan oso nekatuta bainengoen eta sakon egin bainuen lo. Lehen orduko zeru urdin argia ikusi nuen txilarren azpitik, gero muino baten profila eta, azkenean, nire botak ahabia-zuhaixka baten azpian, txukun-txukun. Besoen gainean bermatuta altxatu nintzen eta goitik begiratu nion haranari. Ikusi nuenak lokarriak abiadura eroz lotarazi zidan.

Behealdean, gizon batzuk zeuden. Nigandik laurehun metrora baino ez zeuden, muino gainean haize-errotak bezala sakabanatuta eta txilarrak kolpez joka. Marmiek ez zuen bere mendekua lortzeko itxaron.

Ordekatxo horretatik, katuka atera nintzen arroka batek ezkutatuta eta sakonera txikiko lubaki batean zehar sartu nintzen, hura mendian gora joaten zen. Erreka baten trokara iritsi nintzen eta gailurrera igo nintzen, baldarki.

Hortik, atzera begiratu nuen eta ikusi nuen momentuz ez nindutela ikusia. Nire atzetik zetozenak kontu handiz miatzen ari ziren aldapa eta gora zihoazen.
Zeruertzaren atzetik, zortzi ehun bat metroz egin nuen korrika, ustez haranaren lekurik altuenaren gainera iritsi arte. Orduan, agerian geratu nintzen eta, berehalakoan, nire harrapatzaileetako batek ikusi egin ninduen eta bestei jakinarazi zien. Behetik zetozen oihuak entzun nituen eta ikusi nuen bilaketak norabidea aldatu zuela. Gailurretik atzera joateko keinua egin nuen, baina, horren ordez, etorri nintzen bidetik itzuli nintzen eta, hogei minutu geroago, lo egin nuen lekuaren gainean nengoen. Talaia hartatik, kontent ikusi nuen ehiza-taldea haranaren goialdean azkar joaten ari zela, arrasto faltsuaren atzetik.
Aurrean, hainbat bide nituen aukeran, eta gailur harekin angelua egiten zuen beste gainalde bat hartu nuen. Horrela, etsaien eta nire artean, haran sakona izango nuen. Antza, mugitzeak odola berotu zidan eta primeran pasatzen ari nintzen. Gelditu gabe, geratzen zitzaizkidan jengibre-galleta hautseztatuak gosaldu nituen.
Inguruaren gainean, oso informazio gutxi nuen eta ez nekien zer egin behar nuen. Nire hanken indarrez fidatzen nintzen, baina nire atzetik zetozenek ingurua ondo ezagutuko zuten eta nire ezjakintasuna oztopo handia izango zen. Aurrean, amaigabeko gainak ikusten nituen. Hegoalderantz, altuera askoz handiagokoak ziren, baina iparralderantz gailurrak zabalak ziren, sakonera txikiko haran zabalek banatuta. Ikusten nuenarengatik, gutxi gorabehera bi kilometrora, aukeratutako gailurrak behera egiten zuen eta han landa bat zegoen, haran arteko sakela bat balitz bezala. Beste edozein norabide bezain ona zirudien.
Nire amarruak abantaila ona eman izan zidan —hogei bat minutu—, eta haran oso baten zabalera nuen atzean, harrapatzaileen buruak ikusi arte. Argi zegoen poliziak bertakoen laguntza eskatu zuela eta ikusten nituen gizonek artzainak edota basozainak ziruditen. Ikusi nindutenean, oihu egin zuten eta esku batekin agurtu nituen. Haietako bi haranean barneratu ziren eta nire gailurrera igotzen hasi ziren; besteak euren lekuan geratu ziren. Harrapaketa-jolasean dabiltzan eskola-umeen gisara genbiltzan.
Hala ere, laster galdu zuen jolas itxura. Nire atzetik zeuden gizonak indartsuak ziren, tokikoen tankeran. Atzera begiratu nuen, eta hiru bakarrik zetozen nire atzetik zuzenean; ziur aski, besteek zirkuitu bat egingo zuten, niri bidea mozteko. Ingurua ez ezagutzeak hondamena ekar zidakeen eta erabaki nuen haran-korapilo hartatik atera behar nuela, eta landa-sakelan sartu. Distantzia nahikoa handitu behar nuen haiek gainetik kentzeko eta uste nuen, inguru egokia aurkituz gero, lor nezakeela. Zuhaitz batzuk aurkitu izan banitu, horietan ezkutatzen saiatuko nintzatekeen; baina, aldapa biluzi horietan, euli bat kilometro batera ikus zitekeen. Itxaropena hanken luzeran eta arnasaren

indarrean jarri behar nuen; baina, hori egiteko, lur errazagoa behar nuen, ez bainaiz mendizale petoa. Hego Afrikako poney on bat izango banu!
Biziki bizkortu nuen erritmoa, gailurretik jaitsi nintzen eta landara iritsi nire atzeko zeruertzean inor agertu baino lehen. Erreka bat gurutzatu nuen eta errepide batera iritsi nintzen; bi haran lotzen zituen mendate bat osatzen zuen. Nire aurrean, txilardi handi bat zegoen, zuhaitz zaharrez zipriztindutako gailurrean gora zihoana. Errepide ondoko hesian, ate bat zegoen eta, hortik, belarrak estalitako bidexka batek landaren lehengo zatia gurutzatzen zuen.
Hesiaren beste aldera salto egin, eta bideari jarraitu nion. Ehun metro ingurura, belarra desagertu zen, eta bidexka errepide ona bihurtu. Argi zegoen norbaitek zaintzen zuela. Ziur nengoen etxe batera helduko zela eta erabaki nuen ni ere etxe horretara joango nintzela. Ordura arte, zortea aldekoa izan nuen eta, beharbada, nire aukerarik onena urrutiko bizileku hori izango zen. Dena dela, zuhaitzak bazeuden eta, horiekin, ezkutatzeko aterpea ere bai.
Ez nuen errepidetik jarraitu, eskuinetara zegoen erreka ondotik baizik. Garo altua hazten zen han eta, horrekin eta ibar garaiekin, nahiko holtz ona nuen. Erabaki ona izan zen: sakonunera iritsi bezain pronto atzera begiratu, eta jazarleak utzi berri nuen gailurra gurutzatzen ikusi bainituen.
Horren ondoren ez nuen berriro atzera begiratu, ez nuen astirik. Erreka ondotik korrika abiatu nintzen, leku irekietan katuka eta, askotan, sakonera txikiko errekaren gainean. Etxola abandonatu bat aurkitu nuen, zohikatz-tontor zaharrez eta basati bihurtutako lorategi batez inguratua. Gero, belar berriaren artetik sartu nintzen eta, laster, haizeak zigortutako izeidi baten ertzera iritsi. Hortik, ehun bat metrora, kea zerien etxe baten tximiniak ikusi nituen ezkerretara. Errekatik urrun nintzen, beste hesi batean gora jauzi eta, konturatu baino lehen, belardi latz baten gainean nengoen. Atzera begiratuz ikusi nuen jazarleen bistatik kanpo nengoela. Momentuz, ez zuten landaren lehenbiziko igoera gainditu.
Belardia oso leku latza zen. Igitai batekin moztuta zegoen, makina erabili ordez, eta narriatutako errododendroak zituen parterretan. Hegazti beltz pare bat — ezohikoak lorategietan— ni hurbiltzearekin aireratu ziren. Aurrean nuen etxea landako etxalde ohikoa zen, baina karez zuritutako hegal handiustea gehitua zioten. Hegal horri kristalezko karrerape bat jarri zioten, eta, kristaletik, lasaitasunez niri begira zegoen gizon adinduna ikusi nuen.
Mendiaren legar latzezko ertza gurutzatu nuen eta irekita zegoen karrerapearen atetik sartu nintzen. Barruan, gela atsegin bat zegoen: alde bat kristalezkoa zen eta, bestean, milaka liburu zeuden. Barrualdeko beste gela batean, beste liburu batzuk zeuden. Zoruaren gainean, mahiaren ordez, museoetan ikusten diren erakusketa-kutxak zeuden, txanponez eta harrizko gailu bitxiez beteta.

Gelaren erdian, belaunentzako hutsunea zuen idazmahai bat zegoen eta, zenbait paper eta irekitako liburukiak aurrean zituela, borondate oneko gizon adinduna. Aurpegia biribila eta distiratsua zuen, Pickwick jaunaren antzera, eta betaurreko handiak zituen sudur-muturrean. Buruaren gainazala beirazko botila bat bezain distiratsu eta biluzia zuen. Sartu nintzenean, ez zen batere-batere mugitu; baina bekain lasaiak altxatu zituen eta nire hitzen zain geratu zen.
Bost minutu baino ez nituen ezezagun bati nor nintzen eta zer behar nuen azaltzeko, eta hori ez zen erraza. Ez nintzen saiatu ere egin. Aurrean nuen gizonaren begiak hain ziren zuhur eta jakintsu, ezen ezin bainuen hitzik ere aurkitu. Hari begira geratu nintzen eta totelka hasi nintzen.
—Badirudi presaka zabiltzala, lagun hori— esan zidan astiro.
Leihora begiratzeko keinua egin nion buruarekin. Zuhaitz arteko hutsune batetik, landa ikusten zen eta han, zortziehun bat metrora, zenbait gizon txilarren erditik hurbiltzen.
—A, ulertzen dut —esan zidan eta prismatikoak hartu zituen pertsona horiek pazientziaz aztertzeko.
—Justiziatik ihesi zabiltza, orduan? Bueno, horren gainean lasai hitz egingo dugu. Momentuz, ez zait ondo iruditzen mendialdeko polizia traketsek nire pribatutasuna apurtzea. Liburutegian sartu eta, parean, bi ate ikusiko dituzu. Ezkerrekoan sartu eta zure atzetik itxi. Erabat seguru egongo zara.
Eta aparteko gizon hark idazluma hartu zuen berriro.
Esan zidana egin nuen eta gela txiki batean sartu nintzen. Gai kimikoen usaina zegoen eta argia hormako goialdean zegoen leihotik sartzen zen bakarrik. Atea nire atzetik itxi zen, klik batekin, kutxa gotor baten antzera. Berriro ere, espero ez nuen babesleku bat aurkitu nuen.
Hala ere, ez nengoen eroso. Jaun zaharrak bazuen harritzen eta hein batean beldurtzen ninduen zerbait. Lasaiegi eta prestuegi zegoen, nire zain egon balitz bezala kasik. Eta begi azkar horiek izutzekoak ziren.
Leku ilun horretan ez nuen soinurik entzuten. Nik nekiela, bazitekeen polizia etxea aztertzen aritzea eta, hala izanez gero, atearen atzean zer zegoen jakin nahiko zuketen. Saiatu nintzen pazientzia izaten eta nire gose biziaz ahazten.
Orduan, jarrera baikorragoa hartu nuen. Jaun zaharrak nekez ukatuko zidakeen otordu bat. Hirugiharrarekin eta arrautzekin nahiko izango nukeen, baina kilo bat hirugihar eta berrogeita hamar arrautza beharko nituzkeen. Otorduarekin pentsatzen ahogozoa egiten zitzaidala, klik bat entzun nuen eta atea ireki zen.
Eguzki-argitara atera nintzen eta etxeko jabea besaulki sakon batean eserita aurkitu nuen, liburutegi esaten zion horretan niri so, begiak jakin-minarekin distiratsu.
—Joan egin dira? — galdetu nion.

—Joan dira, bai. Mendia zeharkatu duzula sinetsarazi diet. Ez dut gustuko polizia nire eta ohore handiz hartu nahi dudan pertsona baten artean sartzea. Zorte handiko goiza da hau zuretzat, Richard Hannay jauna.
Hitz egiten zuela, betazalek dar-dar egiten zioten eta begi gris zorrotzak erdi estaltzen zituzten. Tupustean, Scudderren esaldi batekin gogoratu nintzen. Munduan gehien izutzen zuen gizona deskribatzen ari zenean, honela esan zidan: "Begiak belatz batek bezala ezkuta zitzakeela". Orduan, ulertu nuen etsaiaren egoitzan sartu nintzela.
Gaizkile zaharra itotzea eta kanpora abiatzea izan zen nire aurreneko ideia. Nire asmoari aurrea hartu zion, ordea. Irribarre txikia zuen, eta, buruarekin, nire atzean zegoen ate aldera egin zuen keinu. Bira egin nuen eta pistolaz hornitutako bi zerbitzari ikusi nituen.
Bazekien nire izena, baina ez ninduen aurretiaz inoiz ikusi. Horrekin konturatu nintzenean, aukera txiki bat ikusi nuen.
—Ez dakit zer esan nahi duzun —esan nion haserre—. Zein da Richard Hannay hori? Nire izena Ainslie da.
—A, bai? —esan zidan, irribarrea galdu gabe—. Eta beste izen batzuk ere badituzu. Baina ez dugu horri buruz eztabaidatuko.
Lasaitasuna berreskuratzen hasi nintzen, eta ohartu nintzen arropak ez ninduela salatuko, jakarik, txalekorik eta lepokorik ez bainuen. Amorru aurpegia jarri nion, eta sorbaldak jaso nituen.
—Beraz, azkenean, poliziara bidaliko nauzu eta zikin jokatzea da hori. Arraioa, auto hori ikusi nuen unea madarikatzen dut! Hartu dirua eta zoaz pikutara! —eta lau libera bota nituen mahai gainera.
Begiak ireki zituen pixka bat.
—Ez, ez, ez zaitut entregatuko. Nire lagunek, zuk eta laurok akordio pribatu bat egingo dugu, hori da dena. Gehiegitxo dakizu, Hannay jauna. Antzezle bizkorra zara, baina ez da nahikoa.
Ziurtasunez hitz egin zuen, baina zalantza bat sortzen ari zitzaiola ikusi nuen.—Jainkoarren, utzi hitz egiteari behingoz —oihu egin nion—. Den-dena nire aurka dago. Leithen lurreratu nintzenetik, ez dut zorte izpirik ere izan. Horren txarra al da gosez dagoen gizajo batek suntsitutako auto batetik dirua hartzea? Horixe da nik egin dudan gauza bakarra eta horregatik polizia malapartatu horiek nire atzetik ibili dira azken bi egunotan, mendian gora, mendian behera. Nazkatua nago, bai horixe. Nahi duzuna egin, agure! Ned Ainsliek ez du borrokan jarraitzeko gogorik.
Zalantza handitzen ari zitzaiola ikusi nuen.
—Mesede bat, kontatuko didazu zer egin duzun azken egunotan? —galdetu zidan.

—Ezin dut, jauna —erantzun nion gizajo baten ahots kexatiarekin—. Bi egunotan ez dut ezer jan. Jateko pixka bat eman, eta benetako egia entzungo duzu gero.
Ziurrenik, gosea aurpegian nabaritzen zitzaidan, atarian zeuden gizonetako bati seinale bat egin baitzion. Haragi-pastel zati hotz bat eta edalontzi bat garagardo ekarri zituen, eta txerri baten modura irentsi nituen, edo, hobeto esanda, Ned Ainsliek egingo lukeen eran, paper hori bete egin behar nuen eta. Otorduaren erdian, bat-batean, alemanez hitz egin zidan eta zur eta lur geratu izan banintz bezala begiratu nion.
Orduan, nire istorioa kontatu nion. Archangel itsasontzitik Leithen lurreratu nintzela zuela astebete, eta anaiarengana abiatu, Wigtownera. Oso diru gutxi nuen —parranda egin nuela eman nion aditzera— eta, ia sosik gabe bidean nengoela, hesi batean zuloa aurkitu eta, handik, auto handi bat ikusi nuen errekan. Gertatutakoa ikustera gerturatu nintzen eta hiru libera aurkitu nituen aulkiaren gainean, eta beste bat, zoruan. Ez zegoen inor, ezta jabearen seinalerik ere; beraz, dirua sakelaratu nuen. Baina polizia nire atzetik hasi zen nonbait. Okindegi batean libera bat aldatzen saiatu nintzenean, emakumeak poliziari deitu zion eta, hortik pixka batera, aurpegia erreka batean garbitzen ari nintzela, harrapatzeko zorian egon ziren, eta, ihes egiteko, jaka eta txalekoa han utzi behar izan nituen.
—Dirua har dezatela! —oihu egin nuen—. Niri ez dit ezer onik ekarri. Madarikatu horiek gizon gaixo bati jazartzen ari zaizkio. Zuk liberak aurkitu izan bazenitu jauna, inork ez lizuke arazorik sortuko.
—Gezur-kontalari ona zara, Hannay —esan zidan.
Neure onetik atera ninduen.
—Txantxekin nahikoa da, demontre! Izena Ainslie dudala esan dizut eta bizitza osoan ez dut Hannay izenekorik ezagutu. Nahiago nuke polizia zu eta zure Hannaytarrak eta pistoladun tximino horiek baino. Ez, jauna, barkatu, ez nuen hori esan nahi. Janaria asko eskertzen dizut eta, orain, nire atzetik datozenek alde egin dutenez, eskertuko dizut joaten uztea.
Argi zegoen ez zekiela zer egin. Kontua zen ez ninduela inoiz ikusi eta, segur aski, argazkietako gizonak alde handia zuen une hartan aurrean zuenarekin, argazkirik ikusi bazuen noizbait. Londresen dotore jantzita joaten nintzen eta, orain, benetako eskalea ematen nuen.
—Ez dut joaten uzteko asmorik. Esan duzuna egia bada, laster izango duzu hori baieztatzea. Baina nik uste dudana bazara, ez dut uste luze iraungo duzunik bizirik.
Txirrina bat jo zuen eta hirugarren zerbitzari bat sartu zen karrerapetik.
—Bost minutuan, Lanchester-a hemen nahi dut —esan zion—. Bazkaltzeko hiru izango gara.

Orduan, irmo begiratu zidan eta hori izan zen probarik gogorrena.
Zerbait bitxia eta maltzurra zuen begietan: hotza, gaiztoa, naturaz gaindikoa eta izugarri adimentsua. Suge baten begi distiratsuek bezala liluratzen ninduten. Gupida izateko erregutu eta haren aldeko bihurtuko nintzela ziurtatzekotan egon nintzen kasik. Afera horretan guztian nituen sentimenduak kontuan hartuta, bulkada erabat fisikoa izan behar zuen, espiritu sendoago batek liluratu eta menperatu duen burmuin baten ahulezia. Baina horri eusten lortu nuen, baita irribarre egiten ere.
—Hurrengoan ezagutuko nauzu —esan nion.
—Karl —atarian zeuden gizonetako bati alemanez hitz egin zion—, sartu gizon hau biltegian itzultzen naizen arte. Zure ardura izango da.
Gelatik atera ninduten, pistola bat belarri bakoitzaren kontra nuela.
Biltegia gela hezea zen, etxalde izandako eraikina. Zoru malkarraren gainean ez zegoen alfonbrarik eta, eskola-aulki bat izan ezik, ez zegoen non eseri. Ikatza bezain beltz zegoen, leihoak leiho-atez estalita zeuden eta. Ikusi nuen hormen kontra kutxak, upelak eta gauza astunez betetako zakuak zeudela. Lizunaren eta erabilera faltaren usaina nabaria zen. Kartzelariek giltzez itxi zuten atea eta kanpoan geratu ziren, ni zaintzeko, eta tarteka urratsak sumatzen nituen.
Iluntasun heze hartan eseri nintzen, erabat ezkor. Agurea auto batean joan zen aurreko egunean elkarrizketatu ninduten gizonen bila. Haiek errepide-langilez mozorrotuta ikusi ninduten eta nitaz gogoratuko ziren arropa bera neramalako. Zertan ari zen errepide-langile bat lanpostutik hogei kilometrora, poliziak jarraituta? Galdera batek edo bik bide onean jarriko zituzten. Ziur aski, Turnbull jaunarekin egon ziren, baita Marmierekin ere. Sir Harryrekin ere lotuko ninduketen eta, orduan, dena argi baino argiago geratuko zatekeen. Zer aukera nuen landako etxe horretan, hiru gaizkilerekin eta haien zerbitzari armatuekin?
Nostalgiaz, poliziarekin gogoratu nintzen; orain nire mamuaren atzetik ibiliko ziren mendietan zehar. Haiek, behintzat, aberkideak eta zintzoak ziren, eta haien errukia atzerritar krudelena baino gozoagoa litzateke. Dena dela, ez zidaketen entzungo. Betazal bereziak zituen deabru zaharrari ez zitzaion denbora luze kostatu haiek uxatzea. Bururatu zitzaidan harreman ilunen bat izango zuela polizia-gorputzarengan. Litekeena zen Gobernuko ministro batzuen gutunak izatea, esanez erabateko laguntza eman behar ziotela Erresuma Batuen aurkako azpijokoetan. Herrialde alai honetan, modu zentzugabe horretan egiten dugu politika.
Hirurak bazkaltzeko itzuliko ziren eta, hortaz, itxaroteko bi ordu baino ez nituen. Hondamenaren zain nengoen, ez bainuen korapilo hartatik irteteko biderik ikusten. Scudderren ausardia izan nahi nuen: aitortuko dut ez nintzela oso indartsu sentitzen. Nire haserreak bakarrik eusten zidan zutik. Hiru espioi horiek

irabaziko zidatela pentsatzeak sutan jartzen ninduen. Espero nuen gutxienez haietako baten lepoa bihurritzea haiek ni erail baino lehen.
Zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta haserreago jartzen nintzen. Gelan atzera eta aurrera ibiltzen hasi nintzen. Leiho-ateak mugitzen saiatu nintzen, baina giltzaz itxita zeuden eta ezin nuen. Kanpoaldean eguzkipean zeuden oilo batzuen kakara ahula entzuten zen. Orduan, zakuen eta kutxen artean miatzen hasi nintzen. Ezin nituen kutxak ireki eta, itxuraz, zakuak txakur-galleten antza zuen kanela-usaineko zerbaitez beteta zeuden. Baina, gelan miatzen ari nintzela, horman eskuleku bat aurkitu nuen eta otu zitzaidan interesgarria izan litekeela hori aztertzea.
Horma-armairu baten atea zen —Eskozian "press" deitzen dioten horietako bat—, eta giltzaz itxita zegoen. Astindu nuen eta bazirudien nahiko arina zela. Beste ezer egitekorik ez nuela, indarrak ate horren kontra kontzentratu nituen. Ateari hobeto heltzeko, galtza-uhalak lotu nizkion. Azkenean, zarata handi batekin ireki zen eta pentsatu nuen horrek kartzelariak ohartaraziko zituela eta etorriko zirela zer gertatu zen ikustera. Pixka batez itxaron ondoren, armairuko apalak aztertu nituen.
Hainbat gauza bitxi zegoen. Praka baten sakeletan, pospolo batzuk aurkitu nituen eta haietako bat piztu nuen. Segundo bat geroago itzali zen, baina gauza bat erakutsi zidan. Apal batean, bazeuden linterna elektrikoak. Haietako bat hartu nuen eta bazebilen.
Linternaz lagunduta, gela hobeki aztertu nuen. Bazeuden usain arraroak zituzten botilak eta kutxak, esperimentuak egiteko gai kimikoak, dudarik gabe; haril batzuk, baita kobrezko kable fina eta zetazko soka koipeztatu ugari ere. Kutxa bat detonagailuz beteta zegoen eta fusible soka asko zegoen. Apalaren atzealdean, kartoizko kutxa potolo bat aurkitu nuen eta, horren barruan, egurrezko kutxa bat. Kostata ireki nuen eta barruan dozena-erdi adreilu txiki gris zeuden, bakoitza hiru bat zentimetro karratukoa.
Haietako bat hartu eta ohartu nintzen eskuan erraz birrindu zela. Orduan, usaindu eta mihiaz ukitu nuen. Gero, pentsatzera eseri nintzen. Ez nintzen meatzari-ingeniaria alferrik izan eta banekien lentonita zela.
Adreilu horietako batekin, etxea infernura bidal nezakeen. Rhodesian erabili nuen eta haren indarra ezagutzen nuen. Arazoa zen nire jakintzak ez zirela zehatzak. Karga egokiak zenbatekoa behar zuen eta hura nola prestatu ahaztuta neuzkan; eta denborari zegokionez ere, zalantzak neuzkan. Indarraren gainean ez nuen oso ideia zehatzik; baliatua nuen bai, baina ez nuen nik neuk neure eskuekin maneiatu.
Hala ere, irtenbide bat zen, eta nuen irtenbide bakarra, gainera. Bai, arriskua itzela zen; baina, bestela, etorkizun beltza baino ez zegoen. Erabiliz gero, banekien ehuneko laurogeiko probabilitatea nuela nire burua zuhaitzen

goialdera bidaltzeko; baina, erabili ezean, ilundu baino lehen, lorategian lurperatuta egon nintzen, bi metroko zuloan. Horrela pentsatu behar nuen. Aurreikuspen biak txarrak ziren; baina bazegoen aukera bat, bai niretzat baita nire aberriarentzat ere.
Scudderrekin gogoratzean, erabakia hartu nuen. Nire bizitzako momenturik txarrenetako bat izan zen, ez bainaiz batere ona erabakiak hotzetan hartzen. Aitzitik, bihotz hartu eta balentriari ekin nion, pentsamendu ezatseginak baztertuta. Burua hustu nuen eta nire baitari sinetsarazi nion su artifizialekin esperimentatzen dabilen umea nintzela.
Detonagailu bat hartu, eta bost zentimetro fusiblea lotu nion. Orduan, lentonitazko adreilu-laurdena hartu nuen eta, atetik gertu, zaku baten azpian lurperatu nuen, zoruan zegoen zirrikitu batean. Detonagailua lotu nion. Ordura arte ikusitakoaren arabera, kutxa haien erdia dinamita izan zitekeen. Armairuan lehergai hilkorrak bazeuden, zergatik ez kutxetan? Horrela izanez gero, zerurako bidaia zoragarria izango nuen, baita zerbitzari alemaniarrek ere, eta inguruko landaren hektarea batek-edo. Beste arrisku bat ere bazegoen: eztandak armairuan zeuden beste adreiluak ere leherraraztea, alegia. Lentonitari buruzko ia dena ahaztuta neukan. Dena dela, aukera horien gainean pentsatzea ez zitzaidan komeni. Apustu txarra zen; baina onartu egin behar nuen.
Leiho-ertz azpian ezkutatu nintzen, eta fusiblea piztu. Momentu batez itxaron nuen. Isiltasuna erabatekoa zen. Korridoreko bota astunak eta kanpoan eguzkipean zeuden oiloen kakara baino ez ziren entzuten. Jainkoari nire arima zaintzeko eskatu nion, eta neure buruari galdetu nion handik bost segundora non egongo ote nintzen…
Zorutik bero-uhin izugarria igo, eta airean geldi geratu zen istant larri batez. Orduan, parean neukan hormak eztanda egin zuen, urre koloreko horia hartuta, eta burrunba izugarri batekin desegin zen. Zaratak burmuina astindu zidan, ahi bihurtu arte. Zerbait erori zitzaidan gainera, eta ezkerreko sorbaldaren gainaldea harrapatu.
Eta uste dut orduan konortea galdu nuela.
Horrek segundo batzuez baino ez zuen iraun. Ke hori eta trinkoak itotzen ninduen, baina lortu nuen zutik jartzea, hankapean nituen hondakinetan artean. Nire atzean, airea sentitu nuen. Leihozangoak erori egin ziren eta, zulo zakar horretatik, keak udaldiko eguerdia inbaditzen zuen. Ateburu apurtutik atera, eta patio batera iritsi nintzen, laino trinko eta garratz batez inguratuta. Gaixorik eta zorabiatuta sentitzen nintzen, baina gorputz-adarrak mugi nitzakeen eta itsumustuka aldendu nintzen etxetik.
Patioko beste aldean, errota kanal labur batek egurrezko ubide batera ematen zuen eta horretan erori nintzen. Ur freskoak suspertu ninduen eta ihes egiteko buru nahikoa nuen. Kanalean, mugimendu txikiz ibili nintzen, lohi berde

irristakorrean zehar, errotako gurpileraino iritsi arte. Orduan, ardatz zuloan zehar bultzatu nuen gorputza, errota zaharrean sartu nintzen, eta lasto gainean erori. Iltze batek praken atzealdea katigatu zuen, eta tweed zati bat utzi nuen.
Errota aspaldi erabili gabekoa zen. Eskailerak urteengatik ustelduta zeuden, eta arratoiek zulo handiak egin zituzten ganbarako zoruan. Goragalea nuen, buruan, gurpil batek bira eta bira egiten zuen, eta ezkerreko sorbalda eta besoa paralizatuta neuzkan. Leihotik begiratu nuen. Etxea lainoz inguratuta zegoen, eta, goiko leiho batetik, kea ateratzen zen. Goiko Jauna! Etxeari sua eman nion, eta beste aldetik zetozen ahots nahasiak entzuten nituen.
Baina ezin nintzen hor geratu, argi zegoen errota ez zela ezkutatzeko leku ona. Nire bila zebilen edozeinek kanalari jarraituko ziokeen eta, nire gorputza biltegian ez aurkitzean, bila hasiko ziren. Beste leiho batetik ikusi nuen errotatik harago harrizko usategi bat zegoela. Haraino iristea banuen, arrastorik utzi gabe, ezkutaleku ona izan zitekeen. Mugitzeko gai nintzela ustez gero, landetara joan nintzela ondorioztatuko zuten, eta han bilatuko ninduten.
Apurtutako eskaileran behera joan nintzen motel eta, oinatzak estaltzeko, lastoa sakabanatu nuen nire atzean. Gauza bera egin nuen errotako zoruan, baita erlaitzean ere; atea banda apurtutik zintzilika zegoen han. Ezkutalekutik begiratu nuen eta ikusi nuen usategiaren eta nire artean zegoen lurra harzolaz eginda zegoela. Oinatzak ez ziren hor nabarituko. Gainera, errotari esker, ez zen etxetik ikusten.Tarte hori azkar gurutzatu nuen, usategiko atzealdera iritsi, eta nola igo aztertu nuen.
Inoiz egin dudan lanik zailenetako bat izan zen. Sorbaldan eta besoan, izugarrizko mina nuen, eta hain nengoen gaixo eta zorabiatuta, ezen edozein unetan erortzeko zorian bainengoen. Baina nola edo hala lortu nuen. Aterata zeuden harri batzuk, hargintzaren zirrikituak eta huntz-sustrai gogor bat erabiliz, goraino iritsi nintzen. Karel txiki bat zegoen eta han etzan nintzen. Orduan, konortea galdu nuen pixkanaka, aspaldi egiten zen gisa.
Esnatu nintzenean, burua sutan nuen eta eguzkia, begietan. Luze geratu nintzen mugitu gabe. Antza, ke nazkagarri horrek gorputz-adarrak ahuldu zizkidan, baita burumuina baldartu ere. Etxetik zetozen zaratak entzun nituen. Gizonak haserre hitz egiten ari ziren eta geldirik zegoen auto baten bibrazioari ere antzeman nion. Karelean zirrikitu txiki bat zegoen, mugimendu txikiez gerturatu nintzen eta, handik, patioaren zati bat ikus nezakeen. Gizon batzuk etxetik ateratzen ikusi nituen: burua bendaz lotuta zuen zerbitzari bat eta bonbatxoez jantzita zegoen gizon gazteago bat. Zerbaiten bila zebiltzan eta errotarantz joan ziren. Orduan haietako batek iltzean zegoen oihal-zatia ikusi zuen eta besteari oihu egin zion. Biak etxera itzuli ziren eta beste bi gizon ekarri zituzten oihala ikustera. Nire harrapatzaile ohiaren gorpuzkera biribila ikusi nuen, baita zizipaza egiten zuen gizona ere. Konturatu nintzen guztiek pistolak zituztela.

Ordu-erdi igaro zuten errota arpilatzen. Handik entzun nuen upelak ostikoz bota eta ohol ustelduak nola altxatzen zituzten. Orduan, atera egin ziren eta usategiaren ondoan geratu, eztabaida garratz batean. Benda zuen zerbitzariari kargu hartzen ari zitzaizkion. Usategiko atea irekitzen saiatu zirela sumatu nuen eta, une txar batez uste izan nuen igoko zirela. Aitzitik, iritzia aldatu zuten eta etxera itzuli.

Arratsalde sargori eta luze hura osoa teilatu gainean igaro nuen. Egarria izan zen torturarik handiena. Mihia idor-idorra nuen eta, hori gutxi balitz, errotako kanalaren uraren jario freskoa entzuten zen. Landatik zetorren erreka txikiari begiratu nion eta, nire buruan, haranaren goialderaino jarraitu nion. Han, iturri izoztu batetik aterako zen, garoz eta goroldioz inguratuta. Mila libera eman izango nituzkeen aurpegia iturri horretan murgiltzearen truke.

Landa guztia ondo ikusten nuen. Autoa eta bi bidaiariak azkar aldendu ziren eta gizon bat ekialderantz abiatu zen, poney baten gainean. Nire bila zebiltzala pentsatu nuen eta bilaketa horretan zortea opa nien.

Baina hori baino gauza interesgarriago bat ikusi nuen. Etxea gailur gainean zegoen ia eta hori baino lur altuagorik ez zegoen hamar kilometrora zeuden mendi handietaraino. Gailurra bera, lehen aipatu bezala, zuhaizti txikia zen. Gehienak izeiak ziren, lizar batzuk bazeuden, baita pagoak ere. Usategi gainean, zuhaitzen goialdearen maila berean nengoen eta harago zegoena ikus nezakeen. Basoa ez zen trinkoa, eraztun bat baino ez zen, eta erdialdean belardi obalatua zegoen, kriket zelai baten gisakoa.

Ez zitzaidan asko kostatu hori zer zen asmatzea. Aerodromo bat zen, aerodromo sekretua. Lekua adimen handiz aukeratu zuten. Inork hegazkin bat hemen lurreratzen ikusiz gero, pentsatuko zukeen zuhaitzetatik harago zeuden muinoetan gora joan zela. Lekua anfiteatro handi batean erdiko goialde baten gainean zegoenez, edozein lekutatik begiratuta ere, ondoriozta zitekeen muinoen atzean ikuspegitik atera zela. Oso gertu egon behar zuen batek konturatzeko ez zela muinoaren gainetik joan, baso erdian lurreratu baizik. Prismatikoak erabilita eta mendi altuago batean kokatuta ohar zitekeen norbait egiaz; baina artzainak bakarrik joaten ziren haraino eta artzainek ez dute prismatikorik eramaten. Usategitik begiratuta, urrunean, lerro urdin bat ikusten nuen, eta banekien hura itsasoa zela. Etsaiek talaia sekretu hura gure urei behatzeko erabiltzen zutela pentsatze hutsak haserrarazten ninduen.

Orduan konturatu nintzen hegazkina itzuliz gero, aukera handia zegoela ni aurkitzeko. Beraz, arratsaldean etzanda geratu nintzen eta ilunabarra noiz etorriko zain gelditu nintzen. Eguzkia mendebaldeko mendien atzetik jaitsi eta landara iluntzea iritsi zenean, poztu egin nintzen. Hegazkina berandu zetorren. Ilunabarra aurreratuta zegoen hegazkina entzun nuenean. Motorra itzalita, baso erdiko argigunera planeatu zuen. Argi batzuk ikusi ziren tarte batez eta etxean

joan-etorri ugari izan ziren. Orduan, erabat ilundu zuen eta isilpean geratu zen dena. Eskerrak gau iluna zen. Ilbehera zegoen eta ilargia ez zen berandura arte aterako. Egarriak ez zidan itxaroten uzten eta, beraz, bederatziak aldera jaisten hasi nintzen. Ez zen erraza eta erdibidean nengoela entzun nuen etxeko atzeko atea ireki zela, baita linterna baten argia errotako horman ikusi ere. Minutu mingarri batzuez, huntzetik zintzilik egon nintzen, eta erregutu nuen pertsona hori usategira ez etortzeko. Orduan, argia aldendu zen, eta ahal nuen bezain isilik, nire burua erotzen utzi nuen patioko lur gogorraren gainean.

Sabel gainean arrastaka harrizko hesi baten estalpean barna joan nintzen etxea inguratzen zuten zuhaitzen ingurunera iritsi arte. Nola egin jakinez gero, hegazkina zapuzten saiatuko nintzatekeen; baina konturatu nintzen halako edozein saiakera alferrikakoa izango zela. Nahiko ziur nengoen etxe inguruan defentsa-motaren bat egongo zela eta, ondorioz, basoa katuka gurutzatu nuen, bidearen zentimetro guztiak aztertuz. Eskerrak horrela ibili nintzen, lurretik hirurogei bat zentimetrora kable bat aurkitu bainuen. Horrekin estropezu egin izan banu, ziur aski, etxe barruan txirrinen bat joko zukeen eta horrek salatuko nindukeen.

Ehun bat metro harago, beste kable bat aurkitu nuen. Trebetasun handiz, erreka txiki baten ertzean zeukaten jarrita. Harago, landa zegoen, eta, bost minutu geroago, garoz eta txilarrez inguratuta nengoen. Laster, gailurrera igo, eta errotako kanala elikatzen zuen ibar txikian nintzen. Handik hamar minutura, aurpegia iturrian sartuta neukan eta litroka irentsi nuen ur zoragarri hura. Baina ez nintzen gelditu bizileku madarikatu horretatik hamar bat kilometrora egon arte.



7 - Errekako arrantzalea

Gailur baten gainean eseri nintzen, eta nire egoera analizatu nuen. Ez nengoen oso pozik. Nahiz eta ihes egiten lortzegatik kontent egon,ondoez handia nuen gorputzean. Lentonita-keak zeharo pozoitu ninduen eta usategiko teilatuaren gainean emandako orduek ez zidaten mesederik egin. Buruko min izugarria nuen eta benetan gaixo sentitzen nintzen. Horrez gain, sorbalda gaizki nuen. Hasieran uste nuen ubeldura baino ez zela, baina hanpatzen ari zen, eta ezin nuen ezkerreko besoa erabili.

Nire plana Turnbull jaunaren etxolara itzultzea zen. Han, nire arropa berreskuratuko nukeen eta, batez ere, Scudderren liburuxka. Gero, trenbidera abiatuko nintzatekeen eta hegoaldera itzuli. Sir Walter Bullivant, Kanpo Arazoetako Ministerioaren arduradun horrekin zenbat eta azkarrago harremanetan jarri, orduan eta hobeto. Ez nuen ikusten lortutako frogak baino gehiago eskuratzeko modurik. Nire istorioa sinetsiko zukeen edo ez eta, gertatzen zena gertatzen zela, harekin deabru alemaniar horiekin baino hobeto egongo nintzen. Polizia britainiarra jatortzat hartzen hasia nintzen.

Gau izartsu ederra zen eta errepidea ez zen zaila. Sir Harryk erakutsitako mapari esker, ingurua pixka bat ezagutzen nuen eta hego-mendebaldera baino pixka bat mendebalderago joatea baino ez nuen. Horrela, errepide-langilea ezagutu nuen errekara iritsiko nintzen. Ez nituen bidaia horretan ikusitako lekuen izenak ezagutzen, baina uste nuen erreka horrek Tweed ibaiaren hasiera izan behar zuela. Kalkulatu nuen hogeita hamar bat kilometrotara nengoela eta, hortaz, ez nintzatekeen goizaldera arte iritsiko. Beraz, egun bat ezkutatuta eman beharko nuen. Nire itxura bitxiegia zen eguzkipean ibiltzeko. Ez nuen jakarik, txalekorik, lepokorik, ezta txanorik ere. Prakak zeharo urratuta neuzkan eta, eztandaren ondorioz, aurpegia eta eskuak belztuta neuzkan. Esan behar da bestelako erakargarririk ere banuela, begiak izugarri narritatuta nituela sentitzen bainuen. Oro har, ez nengoen herritar zintzoek errepidean ikusteko moduan.

Egunsentia iritsi bezain pronto, muino gaineko erreka batean garbitzen saiatu nintzen eta gero artzain baten etxola batera hurbildu, janaria behar nuen eta. Artzaina ez zegoen eta emaztea bakarrik aurkitu nuen. Bizilagunik gertuena zortzi bat kilometrotara zegoen. Emakume zahar indartsua zen, baita ausarta ere. Ikusi ninduenean izutu zen arren, aizkora zuen eskura eta, maltzurra nintzela irudituz gero, erabiliko zukeen. Kontatu nion erori egin nintzela —ez nion azaldu nola— eta, itxurarengatik ikusi zuen nahiko gaixorik nengoela. Samariar hutsa zen aldetik, ez zidan galderarik egin. Katilu bat esne eman zidan, whiski pixka batekin, eta pixka batez sukaldeko sutondo ondoan esertzen utzi zidan. Sorbalda garbitu nahi zidan, baina hain minduta zegoenez, ez nion utzi.

Ez dakit zertzat hartu ninduen. Beharbada, damututako etxe-lapurtzat. Izan ere, esneagatik ordaindu nahi izan nionean, libera bat eskaini nion —ez nuen hori baino txikiagorik—, eta hark buruarekin ezetz egin, "horretarako eskubidea zutenei eman" edo halako zerbait esan zidan. Horren kontra indartsu egin nion protesta eta, azkenean, zintzoa nintzela sinestarazi eta dirua onartu zuen. Horren truke, plaid berri bat eta senarraren txano zahar bat eman zizkidan. Plaida sorbalden inguruan nola lotu behar nuen erakutsi zidan eta, etxolatik atera nintzenean, Burns bardoaren olerki-liburuetan dauden ilustrazioetako eskoziar baten itxura nuen. Baina, edozein moduz, gutxi gorabehera jantzita nengoen, behintzat.

Eskerrak, eguerdia baino lehen eguraldiak euri-jasa ekarri baitzuen. Errekaren bihurgune batean zegoen harkaitz bat hartu nuen babeslekutzat eta, garo zahar batzuekin, nahiko ohe ona prestatu. Gaua baino lehentxeagora arte lo egitea lortu nuen, baina, esnatu nintzenean, gorputza zurrun nuen eta gogo txarrez nengoen. Sorbaldako mina haginetako mina bat bezain latz zen. Emakume adinduak eman zizkidan olo-tarta eta gazta jan nituen eta, erabat ilundu baino lehen, berriz abiatu nintzen.

Muino heze artean gau hartan igarotako miseriak labur kontatuko ditut. Ez zegoen izarrik norabidea ikusteko, eta maparen oroitzapenekin, ahal nuena egin behar nuen. Bitan galdu nintzen, eta zohikatzeko lokaztietan hainbatetan erori. Zuzen joanda, hamabost bat kilometro baino ez nituen egin behar baina, akatsen erruz, ia hogeita hamar egin nituen. Azken kilometroak hortzak estututa eta burua hutsik eta zorabiatuta egin nituen. Hala ere, lortu egin nuen eta egunsentia sartu berri zegoela, Turnbull jaunaren atea jo nuen. Lainoa trinkoa zen, eta etxolatik ezin nuen errepidea ikusi.

Turnbull jaunak berak ireki zidan atea. Lasai zegoen eta mozkorrik ez. Ondo zaindutako traje zahar beltzaz jantzita zegoen eta bizarra moztuta zuen, bezperan asko jota. Ezkerreko eskuan, biblia txiki bat zeraman. Hasieran, ez ninduen ezagutu.

—Nor haiz hi, igande goizean honat etortzeko? —galdetu zidan.

Ahaztuta nuen zein egunetan bizi ginen. Beraz, horrela jantzita zegoen igandea zelako.

Horren nuen zorabiatuta burua, non ezin bainuen erantzun koherente bat osatu. Orduan, ezagutu ninduen, eta ikusi zuen gaixorik nengoela.

—Nire begi-lagunak ba ote dituk? —galdetu zidan.

Praken sakelatik atera nizkion eta eman.

—Paltoa eta barneko motzaren bila etorri haiz, bistan da —esan zidan. —Sartu, ba. Putxas, mutikoa, ze ahul dituan zangoak! Hago, aulki bat ekarriko diat.

Jabetu nintzen malaria-krisi bat izango nuela. Barruan sukar handia nuen eta gau hezeak sorrarazi egin zidan. Horrek, sorbalda eta kearen eragina erantsita,

nahiko gaizki sentiarazten ninduen. Konturatu baino lehen, Turnbull jauna arropa kentzen laguntzen ari zitzaidan eta sukaldeko hormetan zeuden bi armairu-ohetako batean sartu ninduen.
Zailtasunetan, errepide-langile zaharra benetako laguna zen. Emaztea aspaldi hil zitzaion eta, alaba ezkondu zenetik, bakarrik bizi zen. Hamar egunez, behar nituen zaintza sinple guztiak eman zizkidan. Nik bakea nahi nuen sukarrak bere bidea egiten zuen bitartean. Azala berriz epeldu zitzaidanean, ikusi nuen krisialdiak sorbalda ere sendatu egin zuela, gutxi gorabehera. Dena dela, nahiko krisi latza izan zen eta, nahiz eta bost egun geroago ohetik atera, denbora gehiago behar izan nuen hankak bere onera bueltatu zitezen. Turnbill jauna goizero ateratzen zen, esnea uzten zidan eta atea giltzapetzen zuen. Iluntzean itzultzen zen eta isilik esertzen zen tximinia bazterrean. Inor ez zen etxolara hurbildu. Sendotzen ari nintzela, ez zidan galderarik egin. Batzuetan, bi egun lehenagoko Scotsman bat ekartzen zidan, eta ikusi nuen Portland Placeko Hilketari buruzko jakin-mina lasaitu egin zela. Ez zen aipatu ere egiten eta irakurtzeko ezer gutxi zegoen, Batzar Orokorra zeritzonari buruzko albisteak izan ezik. Ulertu nuenarengatik, eliz parranda edo horrelako bat zen.
Orduan, egun batean, giltzaz itxitako tiradera batetik, nire gerrikoa atera zuen.
—Sos anitz baduk, ezta? —esan zidan. —Hobe duk kondatzea, ea dena hor den.
Ez zidan izena galdetu ere egin. Galdetu nion errepide-lanetan egindako saioaren ondoren norbait etorri zen galderak egitera.
—Baa, gizon bat autoz etorri zuan. Galdetu zidaan nire lekua nork hartu zuen egun horretan eta inoxenta nintzela pentsarazi nioan. Baina galdetzen segitzen zian eta, azkenean, Cleucheko nire koinatari buruz ari zela esan nioan, batzuetan laguntzera etortzen zela. Itxura bitxia zian, eta ezin nian haren ingelesa ongi konprenitu.
Azken egun horietan, nahiko urduri nengoen eta, nire burua sasoian sentitu bezain pronto, alde egitea erabaki nuen. Hori ekainaren hamabian izan zen eta, zorionez, goiz horretan, behizain bat agertu zen, Moffatera abere batzuk eramaten ari zela. Hislop zuen izena eta Turnbullen laguna zen. Gosaltzera sartu zen etxean eta esan zidan berarekin eramango ninduela.
Ni zaintzeagatik, bost libera onartzera behartu nuen Turnbull, eta kostata lortu nuen. Ez dut inoiz gizon hura baino independenteagorik ezagutu. Tematu nintzenean, jarrera zakarra hartu zuen, gero lotsatu eta gorritu zen eta, azkenean, eskerrak eman gabe dirua hartu zidan. Asko zor niola esan nionean, “fabore bat beste baten truk” esan zuen marmarka. Agur esaterakoan, bazirudien elkarrekin haserre geundela.
Hislop gizon alaia zen. Mendate osoan eta Annango haran eguzkitsuan zehar hizketan aritu zen. Nik Gallowaygo azokaren eta ardi-salneurrien gainean hitz egin nion eta erabaki zuen ni hango borda-artzaina nintzela; auskalo zer izango

den hori. Plaidak eta txano zaharrak, esan bezala, eskoziar itxura nabarmena ematen zidaten. Dena dela, abereak eramatea lan motela da, oso, eta ia egun osoa eman genuen hogei bat kilometro egiteko.
Urduri egon izan ez banintz, gozatuko nukeen. Eguraldia urdina eta argitsua zen; paisaian mendixka marroiak eta larre berdeak txandakatzen ziren, eta hegatxabalen, kurlinten eta erreken soinuak entzuten genituen bidaian zehar. Baina burua udalditik urrun nuen eta arreta gutxi ematen nion Hislopen elkarrizketari. Izan ere, zorigaiztoko ekainaren hamabosta hurbiltzen ari zen eta nire ekimenaren zailtasun gaindiezinek zama izugarria jarri zidaten gainean.
Moffateko taberna apal batean afaldu nuen eta oinez egin nituen trenbide nagusiko lotunerako hiru kilometroak. Hegoalderako tren azkarra ez zen gauerdira arte iritsiko eta, hortaz, denbora pasatzeko, muino batera joan nintzen lo egitera, ibilaldiak neka-neka egin utzi baininduen. Gehiegi egin nuen lo eta korrika joan behar izan nuen geltokira. Atera baino bi minutu lehenago sartu nintzen trenean. Hirugarren klaseko kuxinek eta tabako zaharraren usainak izugarri alaitu ninduten. Behintzat, orain lanari heltzen hasia nintzela sentitzen nuen.
Trenak Crewen utzi ninduen goizaldean, eta sei orduz itxaron behar izan nuen Birminghamerako tren bat hartzeko. Arratsaldean, Readingera iritsi nintzen eta, han, Berkshire-n barrena zihoan aldirietako tren batean sartu nintzen. Larrez eta errekastoz zipriztindutako eskualdea zeharkatu genuen. Iluntzeko zortziak aldera, bidaiek nekatu eta zikindutako izaki bat —laborariaren eta albaitariaren arteko zerbait— atera zen Artinswellgo geltoki txikira, koadrodun plaid zuri-beltza beso gainean zuela —ez nintzen Eskoziako mugaz harago jantzita eramaten ausartzen—. Nasan, bazeuden pertsona batzuk eta uste nuen hobe zela handik urruntzea, norabideak galdetu baino lehen.
Errepideak pagadi handi bat gurutzatzen zuen; gero, sakonera txikiko haran batean sartzen zen, eta muino batzuen gailurrak ikusten ziren urruneko zuhaitzen gainetik. Eskozian egon ondoren, aireak usain astuna eta apala zuen, baina oso goxoa, aldi berean: gaztainondoak eta lila-zuhaixkak lorez gainezka zeuden. Zubi batera iritsi nintzen eta, haren azpian, errekasto garbia zebilen lore horien artetik. Haraxeago, errota bat zegoen eta iluntze lurrintsuan, soinu freskoa eta atsegina egiten zuen. Lekuak eroso sentiarazten ninduen nolabait eta barruak lasaitzen zizkidan. Paisaia berde horri begiratzen ari nintzaiola, txistuka hasi nintzen eta “Annie Laurie” melodia atera zitzaidan.
Arrantzale bat erreka ertzetik igo zen eta, hurbiltzen ari zitzaidala, hark ere txistu egiteari ekin zion. Nire melodia itsaskorra zen eta hura ere melodia berarekin hasi zen. Gizon alimalekoa zen, flanelazko arropa narrasez eta txano zabal batez jantzita, eta, sorbalda gainean, olanazko poltsa zaharra zeraman. Buruarekin keinu egin zidan eta pentsatu nuen ez nuela inoiz inor ikusi hura

bezain aurpegi burutsua eta aldarte onekoa. Hiru metroko kanabera zubiaren aurka utzi zuen eta, nirekin batera, urari begiratu zion.
—Oso gardena, ezta? —galdetu zidan atsegin—. Gure Kenner ibaia Test ibaia baino gehiago gustatzen zait. Begiratu arrain handi horri. Bi kilokoa da, gutxienez. Baina ilunabarra pasatu egin da eta ez dago harrapatzerik.
—Ez dut ikusten —esan nion.
—Begiratu! Hortxe! Ihietatik metro batera, ur-lasterretan.
—Orain ikusten dut. Harri beltz bat ematen du.
—Hara —esan zuen, eta "Annie Laurie" abestiaren beste zati bat txistuka egin zuen.
—Twisdon duzu izena, ezta? —esan zidan buelta eman gabe, oraindik errekari so.
—Ez —esan nion—. Zera, bai, esan nahi dut—. Ezizenaren kontua ahaztuta neukan.
—Azpikari jakintsuek beren izenak ezagutzen dituzte— esan zuen, zubiaren itzaletik atera zen uroilo bati irribarre eginez.
Zuzen jarri nintzen eta begiratu egin nion. Elutxadun masailezur karratua zuen, kopeta zabala eta zimurra, eta masail sendoak, eta hasi nintzen pentsatzen ondoan edukitzeko moduko aliatu bat aurkitu nuela azkenean. Bat-batean, haren begi urdin alaiak bizitu ziren.
Betondoa ilundu zitzaion. —Lotsagarria iruditzen zait— esan zuen, ahotsa altxatuz—. Lotsagarria da zu bezala sasoi onean dagoen gizon bat eske ibiltzen ausartzea. Nire sukaldean, jateko emango dizute, baina nigandik ez duzu dirurik lortuko.
Gizon gazte bat guregandik gertu pasatu zen gurdi txiki batean, eta arrantzalea zigorrarekin agurtu zuen. Hura aldendu zenean, arrantzaleak kanabera hartu zuen.
—Nire etxea hori da— esan zidan, ehun metrotara zegoen hesi zuri bat seinalatuz—. Bost minutuz itxaron, eta gero atzeko atera joan—. Eta, hori esanda, hantxe utzi ninduen.
Agindu bezala egin nuen. Herriko etxe polit bat aurkitu nuen. Belardia errekaraino iristen zen eta, bidexkaren ertzetan, alezuriz eta lilaz osatutako oihan zaindu bat zegoen. Atzeko atea irekita zegoen eta etxezain serio bat, nire zain.
-Etorri nigaz, jauna— esan zidan, eta korridore batean barrena eraman ninduen, atzeko eskaileretan gora eta, azkenean, logela atsegin batera. Ibaia ikusten zen handik. Niretzako jantzi asko utzi zituzten: arropa formala osagarri guztiekin, flanelazko traje marroi bat, alkandorak, lepokoak, gorbatak, bizarra kentzeko tresnak eta ile-eskuilak, baita zapata distiratu pare bat ere.

-Sir Walterrek pentsatu dau Reggie jaunaren gauzak zuretzat egokiak izango dirazala— esan zidan etxezainak. —Arropea izten dau hemen, asteburu askotan etortzen da eta. Ondoan bainugelea daukazu eta bainu bero bat prestatu deutsut. Afaria ordu-erdi barru izango da, jauna. Gonga entzungo dozu.
Izaki serio hark alde egin zuen eta, kalikoz estalita zegoen besaulki batean eserita, aho zabalik begiratu nion denari. Komedia musikal batean banengo bezala sentitzen nintzen, eskale izatetik erosotasun txukun honetara. Argi zegoen Sir Walter nigan fidatzen zela, nahiz eta nik horren zergatia ez jakin. Ispiluan, nire buruari begiratu nion eta gizon basatia, beltzarana eta begipetsua ikusi nuen, bi asteko bizarra zuena, lepokorik gabea, alkandora merke batekin, formarik gabeko tweedezko arropaz jantzita eta ia hilabetez garbitu ez ziren botekin. Arlotea ematen nuen, edo azokako abeltzaina, eta etxezain txukun batek erosotasun handiko tenplu honetara ekarria ninduen! Onena zen oraindik ez zekitela nire izena zein zen ere.
Erabaki nuen gehiago ez hausnartzea eta patuak eman zizkidan opariak onartzea. Luxu handiz, bizarra kendu eta bainua hartu nuen. Arropa formalez eta alkandora garbiarekin jantzi nintzen, nire tamainakoa ere bazen gutxi gorabehera. Bukatu nuenean, ispiluan begiratu, eta horren itxura txarrik ez zuen gazte bat ikusi nuen.
Sir Walter jangela ilun batean zegoen nire zain. Mahai biribil txiki bat zegoen han, zilarrezko kandelez argituta. Hura ikustean —horren agurgarria, errotua eta segurua, gobernuaren, legeen eta arau guztien ikurra—, harrituta geratu nintzen eta lekuz kanpo sentiarazi ninduen. Ez zekien ni benetan nor nintzen; bestela, ez nindukeen horrela tratatuko. Ezin nuen aitzakia faltsuekin haren abegia onartu.
—Ezin dizut egindakoa nahikoa eskertu, baina gauzak argitu behar ditut —esan nion—. Errugabekoa naiz, baina polizia atzetik daukat. Hori kontatu behar nizun eta, etxetik botatzen banauzu, ez naiz harrituko.
Irribarre egin zuen. —Ondo da. Ez diezazun horrek jateko gogoa hondatu. Afaldu ondoren hitz egingo dugu gauza horien gainean.
Ez nuen inoiz otordu bat hain gustura egina, egunean zehar treneko sandwichak baino ez bainituen jan. Sir Walterrek primerako afaria eman zidan. Xanpain ona edan genuen eta, afaldu ondoren, Oportoko ardo paregabea. Oso urduri jartzen ninduen han egoteak, zerbitzari batek eta etxezain dotore batek zerbitzatua, eta gogoratzeak hiru astez bidelapur baten eran bizi izan nintzela, guztiak nire aurka. Sir Walterri Zambesi ibaian dauden tigre-arrainen gainean hitz egin nion; horiek aukera izanez gero, hatzak jaten dizkigute. Ehiza munduan zehar genuen hizpide, ehiztari ibilia zen bera.
Kafea hartzera bulegora joan ginen. Gela atsegina zen, liburuz, garaikurrez, anabasez eta erosotasunez beteta. Erabaki nuen afera honetatik bizirik atera,

eta noizbait berezko etxea lortzen banu, halako gela bat izango nuela. Kafe-kikarak jaso ondoren, eta zigarroak piztuta genituela, anfitrioiak besaulkiaren ertz baten gainean jarri zituen hanka luzeak eta nire istorioa kontatzeko esan zidan.
—Harryk esandakoa egin dut —esan zidan—, eta hura onartzeko agindu zidan esnaraziko ninduen zerbait kontatuko zenidala. Prest nago, Hannay jauna.
Nire benetako izena erabiltzea ezustekoa izan zen.
Hasiera-hasieratik hasi nintzen. Londresen aspertzen nintzela kontatu nion. Gau batean Scudder nire atarian aurkitu nuela farfuilatzen. Scudderrek Karolides eta Kanpo Arazoetako Ministerioaren biltzarren gainean esandakoaz hitz egin nion eta, horrekin, irribarre egin zuen Sir Walterrek. Orduan, hilketarena kontatu nion eta serioago jarri zen. Esneketariarena azaldu nion, eta Gallowayn egin nuena, eta ostatuan Scudderren oharrak dezifratu nituela.
—Badituzu hemen? —galdetu zidan azkar. Arnasa sakon hartu zuen liburuxka sakelatik atera nuenean.
Edukien gainean ez nion ezer esan. Sir Harry nola ezagutu nuen deskribatu nion, baita aretoan egin genituen hitzaldiak ere. Horrekin, barre-algarak egin zituen Sir Walterrek.
—Harryk tontakeriak esan zituen, ezta? Sinesten dizut. Munduko gizonik onena da, baina osaba tuntunak txorakeriaz bete dio burua. Jarraitu, Hannay jauna.
Errepide-langilearena egiten pasatu nuen egunarekin asaldatu egin zen. Autoan zeuden bi gizonen deskribapen zehatzak eskatu zizkidan eta iruditu zitzaidan memorian bilatzen ari zela. Jopley memeloaren patuarekin, berriro alaitu zen.
Baina oso serio jarri zen landako etxeko zaharraren gainean mintzatu nintzenean. Berriro, itxuraren xehetasun guztiak eskatu zizkidan.
—Leuna eta burusoila eta begiak hegazti batek bezala estaltzen zituena… Ehiza-hegazti gaiztoa ematen du! Hark zu poliziatik salbatu ondoren, haren bakarlekua lehertu zenuen. Hori lan adoretsua hori!
Eta handik gutxira, bidaiaren narrazioa bukatu nuen. Sir Walter zutik jarri zen, poliki, eta sutondoko alfonbratik begiratu zidan.
—Poliziaz ahantz zaitezke —esan zidan—. Ez duzu arazorik herrialde honen legeekin.
—Arraioa! —garrasi egin nion —. Hiltzailea harrapatu dute?
—Ez. Baina azken hamabostaldi honetan ez zara susmagarrien zerrendan egon.
—Zergatik ez? —galdetu nion harrituta.
—Batez ere, Scudderrek gutun bat idatzi zidalako. Gizona apur bat ezagutzen nuen: lan batzuk egin zituen niretzat. Erdi eroa erdi jenioa zen, baina erabat zintzoa. Arazoa zen oso gustuko zuela bakarrik aritzea. Eta horregatik ezin zuen lan egin zerbitzu sekretuetan. Lastima, ezohiko dohainak zituen eta. Nire uztez,

munduko gizonik ausartena zen. Beti izututa eta dardarka zegoen, baina ez zegoen amore emanarazten zion ezer. Maiatzaren 31n, haren gutuna jaso nuen.
—Baina, ordurako, astebete zeraman hilik.
—Gutuna 23an idatzi eta bidali zuen. Argi zegoen ez zuela espero horren laster hiltzea. Normalean, haren mezuek astebete behar izaten zuten niregana iristeko: Espainiara bidaltzen zituen eta, hortik, Newcastlera. Arrastoa ezkutatzeko mania zuen.
—Zer esaten zuen? —galdetu nion totelka.
—Ezer ez. Arriskuan zegoela, baina lagun on baten babesa zuela eta ekainaren hamabosta baino lehen haren berri izango nuela. Ez zidan helbiderik eman, baina Portland Placetik gertu zegoela esan zidan. Uste dut ez zuela nahi zuk arazorik izatea zerbait geratuz gero. Gutuna jaso bezain pronto, Scotland Yardera joan nintzen eta ikerketaren xehetasunak aztertu nituen. Orduan ondorioztatu nuen zu lagun hori zinela. Zuri buruzko galderak egin genituen, Hannay jauna, eta ondorioztatu genuen errespetagarria zinela. Uste nuen ulertzen nuela zergatik desagertu zinen, ez poliziaregatik bakarrik, besteengatik ere bai, eta, Harryren oharra jaso nuenean, gainerako guztia ulertu nuen. Aste honetan, zure zain egon naiz.
Imajinatuko duzuen bezala, horrekin, zama handia kendu zitzaidan gainetik. Gizon askea sentitu nintzen berriro. Orain, nire herrialdearen etsaiak baino ez nituen aurka, baina ez herrialdeko legegizonak.
—Begira diezaiogun liburuxkari —esan zuen Sir Walterrek.
Ordubete behar izan genuen dena ikusteko. Kodea azaldu nion eta oso azkar harrapatu zuen. Puntu batzuetan, nire interpretazioa zuzendu zuen, baina, oro har, nahiko zuzen ibili nintzen. Amaitu baino lehen, oso serio jarri zen eta, gero, luze geratu zen isilik. —Ez dakit zer pentsatu —esan zidan azkenean—. Gauza batean arrazoi du: etzi gertatuko den hori. Baina nola demontre jakin zuen? Hori, berez, nahiko gauza iluna da. Baina gerraren eta Harri Beltzaren kontu horrek, horrek guztiak melodrama eroa dirudi. Tamalez ezin naiz Scudderren zuhurtasunaz erabat fidatu. Haren arazoetako bat zen erromantikoegia zela. Izaera artistikoa zuen eta istorioak Jainkoak nahi baino hobeak izatea nahi izaten zuen. Eta aurreiritzi arraro asko zituen: juduak, esaterako, gorroto zituen. Juduak eta goi-mailako finantza.
—Harri Beltza —errepikatu zuen—. Der Schwarzestein. Eleberri merke bat ematen du. Eta Karolidesi buruzko guztia. Kontakizunaren zatirik ahulena da hori; izan ere, badakit Karolides estimatua gu biok baino luzeago biziko dela ziur aski. Europan ez dago gizon hori desagerrarazi nahi duen estaturik. Horrez gain, azkenaldi honetan, Berlinera eta Vienara hurbildu da pixka bat eta horrek arazoak sortu dizkio nire nagusiari. Ez! Scudder ildo okerrean sartu da horrekin. Egia esan, Hannay, ez dut istorioaren zati hori sinesten. Kontu ilunen bat

mugitzen ari da. Gehiegi jakin zuen eta horregatik erail zuten. Baina apustu egingo nuke espioitza arrunta dela. Bada estatu europar handi bat bere espioitza-zerbitzua oso gustuko duena eta erabiltzen dituzten metodoak ez dira bereziki arduratsuak. Somara ordaintzen dutenez, haren gizatxarrei ez zaie axola hilketa bat edo bi egitea. Gure itsas armadaren kokapenak nahi dituzte Marineamten duten bilduman sartzeko; baina ez dituzte lortuko, hori da gertatuko dena.

Momentu horretan, etxezaina sartu zen gelan.

- Dei bat Londresetik, Sir Walter. Heath jauna da, eta zugaz egin gura dau berba.

Nire anfitrioia telefonoz hitz egitera joan zen.

Bost minutu geroago itzuli zen, aurpegia zuri. —Scudderren mamuari barkamena eskatu beharko diot —esan zidan—. Karolides tiroz erail dute gaur zazpiak pasatxo zirela.

8 - Harri Beltzaren etorrera

Hurrengo goizean, gosaltzera jaitsi nintzen zortzi orduz lo egin ondoren; lo ederra eta ametsik gabekoa. Sir Walter han zegoen, opilez eta marmeladaz inguratuta, eta telegrama bat irakurtzen ari zen. Aurreko eguneko itxura baikorra joandako oroimena baino ez zen.

—Zu oheratu ostean, telefonoz ordubete eman nuen —esan zidan—. Nagusiari itsas armadako nagusiarekin eta Guda Ministroarekin hitz egiteko esan nion. Telegrama honek argi uzten du. Londresera bostetan iritsiko da. Bitxia da Frantziako jeneral batentzako kode-izena "Txerritxoa" izatea.

Plater beroetarantz zuzendu ninduen eta hitz egiten jarraitu zuen.

—Baina ez dut uste gauza handirik lortuko dugunik. Zure lagunak lehenbiziko plana aurkitzeko gai izan badira, bigarrena ere aurkituko dute. Burua emango nuke satorra non dagoen jakiteko. Uste genuen Ingalaterran bost gizonek bakarrik zutela Royer jeneralaren bisitaren berri, eta ziur geunden Frantzian horiek baino gutxiago zirela, han hemen baino hobeto antolatzen baitituzte gauzak.

Jaten ari zela hitz egiten jarraitu zuen. Harrituta geratu nintzen afera guztia kontatu zidalako.

—Ezin da plana aldatu? —galdetu nion.

—Alda lezakete —esan zidan—. Baina, aukeran, nahiago dugu hori ez egin. Asko hausnartu ondoren prestatutako plana da, eta edozein aldaketa okerragorako litzateke. Gainera, kokapen bat edo bi ezin dira aldatu. Hala ere, ziur aski zerbait egiteko aukera egon liteke, behar-beharrezkoa izanez gero. Baina arazoa ikusten duzu, Hannay. Gure etsaiak ez dira hain tontoak Royerri sakelatik lapurtzeko, edo halako zerbait egiteko. Badakite horrekin iskanbila sortuko luketela, eta, horrekin, gu ernai jarriko ginatekeela. Haien helburua da xehetasun guztiak lortzea gu konturatu gabe. Horrela, Royer Parisera itzuliko da afera osoa sekretupean dagoelakoan. Hori lortu ezean, porrot egingo dute. Guk susmorik izanez gero, badakite dena aldatuko dugula.

—Orduan, frantziarrarekin egon behar dugu hura etxeratu arte —esan nion—. Parisen informazioa lor dezaketela uste izango balute, hor saiatuko lirateke. Horrek esan nahi du Londresen azpijoko sakon bat martxan dagoela eta uste dutela irabaziko dutela.

—Royer nire nagusiarekin afalduko du eta, gero, nire etxera etorriko da. Han, lau pertsona egongo dira haren zain: itsas armadako Whittaker, Sir Arthur Drew, Winstanley jenerala eta laurok. Itsas armadako nagusia gaixorik dago eta Sherringhamera joan da. Nire etxean, Whittakerrek dokumentu bat emango dio Royerri eta gero Portsmouthera eramango dute autoz. Bidaia hori

garrantzitsuegia da trenez egiteko. Frantziaraino iritsi arte, ez da inoiz bakarrik egongo. Eta Whittaker ere ez da bakarrik egongo Royerrekin elkartu arte. Hori da egin dezakegun onena eta zaila dirudi hutsunerik gertatzea. Baina onartuko dizut izugarri urduri nagoela. Karolidesen hilketak anabasa sortuko du Europako Kanpo Arazoetako Ministerio guztietan.
Gosaldu ondoren galdetu zidan ea banekien autoak gidatzen.
—Ondo, gaur, nire gidaria izango zara eta Hudsonen arropaz jantziko zara. Haren neurrikoa zara, gutxi gorabehera. Afera honetan parte hartu duzu eta kontuz ibiliko gara. Gure aurka gizon arriskutsuak ditugu eta ez dute errespetatuko lan gehiegi egiten duen funtzionario baten bakarlekua.
Londresera iritsi nintzenean, auto bat erosi eta, dibertsioz, Ingalaterrako hegoaldea esploratzen ibili nintzen; beraz, zertxobait ezagutzen nuen. Sir Walter Bathetik Bath-eko errepidetik eraman nuen eta laster iritsi ginen Londresera. Ekaineko goiz hura samurra eta haizerik gabekoa zen, gero sargori izango zelako seinale, eta plazera izan zen garbitu berri zituzten herri txikiak gurutzatzea eta Thames ibaiko lorategien ondotik pasatzea. Sir Walter hamaika eta erdietan utzi nuen Queen Anne's Gaten zuen etxean. Etxezaina trenez etorriko zen geroago, maletekin.
Lehenbizikoz, Scotland Yardera eraman ninduen Sir Walterrek. Han, jaun txukun bat ikusi genuen; bizarra moztuta eta abokatu itxura zeukana.
—Portland Placeko hiltzailea ekarri dizut —aurkeztu ninduen Sir Walterrek.
Bestearen erantzuna irribarre ironikoa izan zen.
—Hori opari atsegina izango zatekeen, Bullivant. Eta gizon hau, ziur aski, Richard Hannay jauna da, egun batzuez nire departamentuan interes handia sortu zuen gizona.
—Hannay jaunak interesa piztuko die berriro ere. Gauza asko kontatuko dizkizu, baina gaur ez. Arrazoi batzuengatik, kontakizun horrek hogeita lau orduz itxaron beharko du. Orduan, zin egiten dizut ondo pasatuko duzula eta, beharbada, gauza batzuk ikasiko dituzula. Eskertuko dizut Hannay jaunari eragozpen gehiagorik izango ez duela bermatzea.
Hori entzun bezain pronto, baieztatu egin zidan.
—Zure bizitza lehen zen moduan berreskura dezakezu —esan zidan—. Apartamentua zain duzu, nahiz eta ziurrenik orain ez duzun hor bizi nahi izango, eta zerbitzaria ere hor duzu. Ofizialki ez zintugunez salatu, uste genuen ez zegoela zertan errugabetzat jo. Baina, horri dagokionez, zuk esan.
—Beharbada, geroago, zure laguntza beharko dugu, MacGillivray —esan zion Sir Walterrek ateratzen ari ginela.
Orduan, aske utzi ninduen.

—Bihar, niregana etorri, Hannay. Isilik egon beharko duzu, badakizu. Zure lekuan, ohera joango nintzateke. Lo-zor handia izango duzu ziurrenik. Zuhur ibili, Harri Beltzeko zure lagunen batek ikusiko bazintu, arazoak sor daitezke.
Nolabait ere, galduta sentitu nintzen. Hasieran, gizon askea izatea oso atsegina izan zen, nahi nuen tokira joan nintekeen ezeren beldurrik gabe. Hilabetez bakarrik eta legez kanpo bizi izan nintzen eta hori, niretzat, nahikoa izan zen. Savoy jatetxera joan nintzen eta, kontu handiz, oso bazkari ona eskatu nuen eta, ondoren, eskain ziezadaketen pururik onena erre nuen. Baina ezin nion ezinegonari utzi. Erretze-gelan niri begira zegoen edozein ikusten nuenean, lotsatzen nintzen eta hilketaren gainean pentsatzen ari ote zen galdetzen nion neure buruari.
Gero, taxi bat hartu nuen eta kilometro batzuk egin nituen Londreseko iparraldera. Zelaietatik eta txalet-lerroetan paseatu nuen eta, gero, etxe txikien artean, auzo pobreetan eta kale arriskutsuetan barrena. Ia bi orduz ibili nintzen. Egonezina handitzen ari zitzaidan etengabe. Gauza handiak, beldurgarriak, gertatzen ari ziren eta gertatuko ziren eta ni, afera guztiaren ardatza, jokotik kanpo nengoen. Royer jenerala Doverren lurreratuko zen; Sir Walter planak prestatzen ari zen Ingalaterran sekretua ezagutzen zuten pertsona bakanekin eta, iluntasunean, nonbait, Harri Beltza lanean ari zen. Arriskua eta hurbileko hondamendia sentitzen nituen eta, aldi berean, sentitzen nuen nik eta nik bakarrik saihets nezakeela, neuk bakarrik borrokatu nintzatekeela haren aurka. Baina orain jokoz kanpo nengoen. Ez, gauzak ezin ziren beste modu batean egin. Ez zegoen kabineteko ministroek, almiranteek eta jeneralek beren sekretuak niri kontatzeko aukera handirik.
Hasi nintzen pentsatzen nire hiru etsaietako batekin topo egin nahi nukeela. Horrekin zer edo zer gertatu zitekeen. Gogo handia nuen jende horrekin borroka arrunt bat izateko. Zerbait kolpatu eta zapaldu nahi nuen. Aldarte txarrez jartzen ari nintzen bat-batean.
Ez nuen apartamentura itzultzeko gogorik. Uneren batean, hala egin beharko nukeen, baina, momentuz, diru nahikoa nuen eta erabaki nuen hurrengo goizera arte ez nintzela bueltatuko Egun horretan, hotel batean egingo nuen lo.
Afarian ere, haserre nengoen. Jermyn Streeten zegoen jatetxe batean afaldu nuen. Ez nintzen gose eta plater asko ukitu gabe itzuli nituen. Borgoinako botila bat ardo ia osa edan nuen, baina horrek ez ninduen alaitu. Egonezin jasanezinak hartu ninduen. Hor nengoen ni, oso gizon arrunta, adimen arruntekoa; baina, nolabait, ziur nengoen beharrezkoa nintzela afera aurrera eramateko eta, ni gabe, dena oso gaizki joango zela. Nire buruari esan nion hori handikeria hutsa zela. Munduko lau edo bost pertsona adimentsuenetakoak lan horretan zebiltzan, inperio britainiarren botere guztia haien esku. Hala ere, ezin nuen

onartu. Bazirudien ahots bat nuela belarrian, ekiteko esanez edo, bestela, ez nuela inoiz berriro lorik egingo.
Ondorioz, bederatzi eta erdiak aldera erabaki nuen Queen Anne's Gatera joatea. Ziurrenik, ez zidaten sartzen utziko, baina saiatzeak kontzientzia lasaituko zidan.
Jermyn Streeten barna joan nintzen eta, Duke Streeteko kantoian, gizon gazteen talde bat aurreratu nuen. Arropa formalez jantzita zeuden, nonbait afaldu zuten eta antzerki batera joan behar zuten. Marmaduke Jopley jauna zen haietako bat.
Ikusi egin ninduen eta gelditu egin zen.
—Jainkoarren, hiltzailea! —garrasi egin zuen. —Aizue, mutilak, harrapatu! Hori Hannay da, Portland Placeko hiltzailea!
Besotik heldu zidan eta besteek ere inguratu ninduten.
Ez nuen arazorik izan nahi, baina nire aldarte txarrak tontakeria bat eginarazi zidan. Polizia bat hurbildu zitzaigun; egia esan behar niokeen eta, nire istorioa sinetsi ezean, Scotland Yardera ni eramateko exijitu edo, bestela, gertuen zegoen polizia-etxera. Baina, une horretan, edozein atzerapen onartezina iruditzen zitzaidan eta Marmieren aurpegi memeloa ikustea gehiegi izan zen niretzat. Ezker eskuarekin ukabilkada eman nion eta poz handiz ikusi nuen arekan botata.
Eta, orduan, izugarrizko iskanbila sortu zen. Guztiak nire gainera etorri ziren, eta poliziak atzetik harrapatu ninduen. Kolpe on bat edo bi eman nizkien eta uste dut, joko garbia izanez gero, guztiak garaitu nitzakeela; baina poliziak atzetik heldu zidan eta haietako batek eztarritik eutsi ninduen.
Haserreak itsututa entzun nuen poliziak galdetu zuela ea zer gertatzen ari zen eta Marmiek, hortzak apurtuta, ni Hannay hiltzailea nintzela adierazi.
—Arraioa! —oihu egin nuen—. Isilarazi gizon hori. Ohartarazten dizut, agente jauna, utzi bakean. Scotland Yardek badu nire berri eta niri eragozpenik jarriz gero, kargu hartuko dizute.
—Nirekin etorriko zara, gazte —esan zidan poliziak—. Ikusi dut jaun hori krudelki kolpatu duzula. Zu hasi zara, hark ez du deus egin. Ikusi zaitut. Hobe duzu lasai etortzea; bestela, lotuko zaitut.
Sumindurak eta gertatzen zela gertatzen zena ezin nuela atzerapenik izan pentsatzeak zezen baten indarra eman zidaten. Polizia bat ia lurretik altxatu nuen, lepotik heldu zidana lurrera bota nuen, eta ahalik eta azkarren, Duke kalean barrena ihes egin nuen korrika. Txistua entzun nuen eta gizonak nire atzetik lasterka.
Azkar egiten dut korrika eta, gau horretan, hegoak nituen. Aitaren batean, Pall Mallera iritsi nintzen eta St James Parkera abiatu. Jauregiko atarian zegoen polizia saihestu nuen, Mallen sarreran zeuden guardia-multzoan murgildu nintzen eta zubirako bidean nengoen jazarleek kalea gurutzatu baino lehen.

Parkeko bide zabaletara iristean, erritmoa bizitu nuen. Zorionez, ez zegoen jende askorik eta inor ez zen ni geldiarazten saiatu. Queen Anne's Gateraino iritsi behar nuen kosta ahala kosta.
Kale lasai hartan sartu nintzenean, ematen zuen hutsik zegoela. Sir Walterren etxea parte estuan zegoen eta kanpoan hiruzpalau auto zeuden. Handik pauso batzuetara nengoela, abiadura moteldu nuen eta ateraino ibili nintzen kementsu. Etxezainak sartzen ez utziz gero, edo atea irekitzen berandutuz gero, nireak egingo zuen.
Ez zuen denbora asko behar izan. Ia txirrina jo bezain pronto, atea ireki zen.
—Sir Walter ikusi behar dut —esan nion arnasestuka. —Gai izugarri garrantzitsua da.
Etxezaina izugarrizko gizona zen. Gihar bat ere mugitu gabe ate irekiari heldu, eta nire atzean itxi zuen.
—Sir Walter lanean dago, jauna, eta inori sartzen ez izteko esan deust. Itxarongo dozu, arren?
Etxea antzinakoen modukoa zen, atondo handia eta gelak bi aldeetan. Atzeko aldean, txoko bat zegoen, telefonoarekin eta aulki pare batekin, eta etxezainak han esertzeko esan zidan.
—Entzun —xuxurlatu nion. —Baditugu arazoak eta ni tartean nago. Baina Sir Walterrek badaki, eta harentzat egiten dut lan. Norbait nire bila etortzen bada, gezurren bat esan.
Baietz egin zidan buruarekin eta, segituan, zarata entzun nuen kalean, eta, gero, indarrez jo zuten txirrina. Ez nuen inoiz beste inor etxezain hori bezainbeste miretsi. Atea ireki zuen eta, aurpegia erabat asaldagaitz, galderen zain geratu zen. Orduan, ederra sartu zien. Etxea norena zen eta haren aginduak zein ziren azaldu zien eta, besterik gabe, ataritik uxatu zituen. Nire eserlekutik, dena ikus nezakeen eta edozein antzezlan baino hobea zen.
Handik gutxira, txirrina jo zuten berriro. Etxezainak bisitari berriari sartzen utzi zion zalantzarik egin gabe.
Berokia kentzen ari zela, ikusi nuen nor zen. Ezinezkoa zen egunkari edo aldizkari bat irekitzea aurpegi hura ikusi gabe: horizontalean moztutako bizar grisa; sudur labur eta karratua; eta begi urdinak eta zorrotzak. Konturatu nintzen Itsas armadako nagusia zela. Esaten zutenez, Erresuma Batuko itsas armada berria sortu zuen. Nire eserlekutik gertu pasatu zen eta atondoaren atzean zegoen gela batera eraman zuen etxezainak. Atea irekitzean, xuxurlak entzun nituen. Atea itxi, eta bakarrik nengoen berriro.
Hogei minutuz egon nintzen han, ondoren zer egin behar nuen pentsatzen. Erabat ziur nengoen beharko nindutela, baina ez nekien noiz edo nola. Ordulariari etengabe begiratzen nion eta, hamar eta erdiak motel iristen ari

zirela, pentsatu nuen bilera laster bukatuko zela. Ordu-laurden baten buruan, Royer jauna Portsmoutherako errepidean abiatuko zen ziztu bizian…
Orduan, kanpaitxoa entzun nuen eta etxezaina agertu zen. Atzeko gelaren atea ireki, eta itsas armadako nagusia atera zen. Nire ondotik pasatu zen, nire aldera begiratu zuen eta, segundo batez, elkarri begiratu genion.
Segundo bat baino ez zen izan, baina hura nahiko izan zen bihotzak jauzi egiteko. Ez nuen gizon garrantzitsu hura aurretik inoiz ikusi, eta hark ez ninduen ni inoiz ikusi. Baina, denbora-tarte labur hartan, zerbait nabari nion begietan eta zerbait hori elkarrenganako ezagutza izan zen. Nahastezina da hori. Istant bat da, argi-izpi bat, esanahi bat eta bakarra duen ñabardura bat. Nahi gabe nabari zitzaion, ustekabean; baina berehalakoan desagertu, eta gizona joan egin zen. Burua ideia biziz korapilatuta nuela entzun nuen kaleko atea haren atzetik ixten zela.
Telefono-gida hartu nuen eta haren etxeko zenbakia bilatu nuen. Berehalakoan komunikatu ninduten eta zerbitzari batek hartu zidan.
—Jauna etxean al dago? —galdetu nion.
—Jauna duela ordu-erdi itzuli da —erantzun zidan, —eta oheratu egin da. Gaur ez dago oso ondo. Mezuren bat utzi nahi al diozu, jauna?
Eseki nuen eta aulkitik erori nintzen ia. Ez zen afera hartan nire parte-hartzea oraindik bukatu. Doi-doi, baina garaiz iritsi nintzen.
Ez zegoen astirik galtzeko eta, beraz, atzeko gelako ateraino azkar joan, eta jo gabe sartu nintzen. Bost aurpegik harrituta begiratu zidaten mahai biribil batetik. Han zeuden Sir Walter, Drew Gerra Ministroa (argazkietatik ezagutzen nuen), gizon adindu argal bat ere bazegoen, Whittaker ziur aski, itsas armadako ofiziala eta Winstanley jenerala, kopetan zuen zauriagatik nabaria. Azkenik, gizon txiki eta gizen bat zegoen, burdin koloreko bibotea eta bekain iletsuak zituena. Esaldi baten erdian harrapatu nuen.
Sir Walterri harridura eta haserrea nabari zitzaizkion aurpegian.
—Hau aipatu dizuedan Hannay jauna da —esan zien besteei, barkamena eskatuz. —Bisita hau, Hannay, lekuz kanpo dago.
Lasaitasuna berreskuratu nuen. —Hori ikusteke dago, jauna —esan nion—, baina, beharbada, garaiz iritsi naiz, doi-doi. Jainkoaren izenean, esan iezadazue nor atera den hemendik duela minutu bat?
—Lord Alloa —erantzun zidan Sir Walterrek, haserreak gorrituta.
—Ez zen hura —oihu egin nien—. Haren itxura osoa du, baina ez zen Lord Alloa. Ezagutu egin nau eta azken hilabete honetan ikusi dudan norbait da. Hura kalera atera bezain pronto, Lord Alloaren etxera deitu dut eta esan didate duela ordu-erdi itzuli dela eta oheratu ere bai.
—Nor… nor…? —norbaitek totelka esan zuen.
—Harri Beltza —oihu egin nuen, hutsik geratu berria zen aulkian eseri, eta nire inguruan izuak jota zeuden bost gizonei begiratu nien.



9 - Hogeita hemeretzi mailak

—A ze tontakeria! —garrasi egin zuen itsas armadako ofizialak.
Sir Walter jaiki eta gelatik atera zen. Guk, bitartean, mahaiari begiratzen genion sorgor. Hamar minutu geroago itzuli zen, aurpegia oso serio.
—Alloarekin hitz egin dut —esan zuen—. Ohetik aterarazi dut, aldarte txarrez dago. Mulrossekin afaldu ondoren, etxera joan da zuzenean.
—Hori erokeria da —eten zion Winstanley jeneralak—. Esaten ari zara gizon hori hona etorri dela, nire alboan ia ordu-erdiz eserita egon dela eta ni ez naizela iruzurraz konturatu? Alloak burutik jota egon behar du.
—Ez duzue ikusten zeinen argiak diren? —itaundu nien—. Beste gauza batzuetan interes handiegia zenuten, begiek erabili ere egiteko. Ez duzue Lord Alloa zen ala ez pentsatu ere egin. Beste inor izanez gero, ziurrenik arreta handiagoaz begiratuko zenioketen, baina hori hemen egotea naturala zen eta horrek lokarrarazi zaituzte.
Orduan, frantziarrak hitz egin zuen, oso motel eta oso ingeles onez.
—Gazte honek arrazoia du. Psikologia ona da. Gure etsaiak ez dira tontoak!
Bekain jakintsuak zimurtu zizkien.
—Pasadizo bat kontatuko dizuet —esan zuen—. Senegalen gertatu zen duela urte asko. Eremu galdu batean ari nintzela lanean, denbora pasatzeko barboak arrantzatzera joaten nintzen ibaira. Arabiar behor txiki batek eramaten zuen nire bazkari-saskia; garai hartan Timbuktun erosten genuen dun arraza arre horietako bat zen behorra. Goiz batean, arrain asko harrapatu nituen eta behorra, arrazoi argirik gabe, urduri zegoen. Entzuten nuen irrintzi eta karranka eta ostikoka ari zela eta ahotsarekin lasaitzen saiatu nintzen, buruan arrainak nituela oraindik ere. Ez nuen begi-bistatik galdu, hala uste nuen behintzat, zeharretik begiratzen nion etengabe; hogei bat metrora zegoen zuhaitz betetik lotuta zegoen… Ordu pare bat geroago, janarian pentsatzen hasi nintzen. Arrainak olanazko poltsa batean sartu nituen eta errekan barrena behorrari hurbildu nintzaion, kanabera hartuta. Harengana iritsi, eta, poltsa bizkar gainera bota behar nuenean…
Etenaldia egin zuen eta guri begiratu zigun.
—Usainak ohartarazi zidan. Burua biratu nuen, eta, metro batera, lehoi bat ikusi… Lehoi zahar gizaki-jalea, herrixka izuturik zuena. Behorraren hondakinak, odolez, hezurrez eta larruz osatutako mordo bat, zituen atzean.
—Zer gertatu zen gero? —galdetu nion. Ehizan nahiko ibilia nintzen benetako istorio bat zela jakiteko.

—Kanabera baraila artean sartu nion eta pistola atera nuen. Zerbitzariak ere errifleez armatuta zeuden. Baina arrastoa utzi zidan—. Esku bat altxatu eta ikusi genuen hiru hatz falta zitzaizkiola.
—Pentsa —esan zuen—. Behorra ordubete baino gehiago zeraman hilik eta piztia niri begira egon zen lasai. Ez nuen behorra hiltzen ikusi, haren ezinegonetara ohituta nengoelako. Ez nintzen jabetu falta zela, nire buruan orban horixka baino ez zelako, eta lehoiak betetzen zuen hutsune hori. Nik halako akatsa izan banuen zentzumenak ernai izatera behartzen duen herrialde batean, zuek uste duzue hiriko jende okupatuok ez dugula kezkatu behar?
Sir Walterrek baiezkoa egin zuen buruarekin. Inor ez zen kontrakoa esatera ausartu.
—Baina ez dut ulertzen — jarraitu zuen Winstanleyk—. Haien helburua zen kokapenak lortzea gu konturatu gabe. Gutako batek gaurko bilera Alloari aipatuz gero, faltsukeria osoa agerian utziko zukeen.
Sir Walterrek lehor barre egin zuen.
—Alloa aukeratzeak haien zorroztasuna erakusten digu. Gutako zeinek hitz egingo zion gaurkoari buruz? Edo hark gaia aterako ote zuen?
Gogoratu nuen jakina zela itsas armadako nagusiak gutxi hitz egiten zuela eta erraz haserretzen zela.
—Harritzen nauena zera da —esan zuen jeneralak—. Zer lortu du espioi horrek hona etortzearekin? Ezinezkoa da diagramez eta izen bitxiz betetako horrenbeste orrialde buruz ikasi izana.
—Hori ez da zaila —erantzun zion frantziarrak—. Espioi onei memoria fotografikoa lantzen erakusten diete. Zuen Macaulay bezalakoa da. Konturatuko zineten ez duela ezer esan, baina paperei behin eta berriro begiratu diela. Onar dezagun xehetasun guztiak burmuinean dituela. Gaztetan, nik ere egin nezakeen.
—Bueno, orduan, planak aldatzea baino ez zaigu geratzen —esan zuen Sir Walterrek triste.
Whittakerrek oso aurpegi serioa jarri zuen.
—Lord Alloari kontatu al diozu zer gertatu den? —galdetu zion—. Ez? Bada, ezin dizuet ehuneko ehunean esan, baina nahiko ziur nago ezin dugula aldaketa handirik egin Ingalaterrako geografia aldatu gabe.
—Eta beste gauza bat esan beharra dago — gehitu zuen Royerrek—. Gizon hori hemen zegoen bitartean, askatasunez hitz egin dut. Nire gobernuaren plan militar batzuen gainean hitz egin dizuet. Baimena eman zidaten hori kontatzeko. Baina, gure etsaientzat, informazio horrek milioiak balio ditu. Ez, lagunak, ez dut beste biderik ikusten. Hona etorri den gizona eta haren gaizkideak harrapatu behar ditugu.
—Jainkoarren! —oihu egin nuen—. Eta ez dugu pista bat bera ere.

—Gainera —Whittakerrek erantsi zuen—, posta-zerbitzua dago. Informazioa bidean dago dagoeneko.
—Ez —esan zuen frantziarrak—. Ez dituzu espioien ohiturak ezagutzen. Berak jasotzen du ordainsaria eta berak entregatzen du lortzen duen informazioa. Frantzian, ezagunak ditugu horren gisakoak. Baina badugu aukera bat oraindik ere, mes amis. Gizon horiek itsasoa gurutzatu beharko dute eta itsasontziak eta portuak zelata ditzakegu. Sinets iezadazue: ezinbestekoa da, bai Frantziarentzat eta bai Erresuma Batuarentzat.
Royerren sen onak eta seriotasunak lasaitu gintuzten nolabait. Gizon trakets haien artean, hark jartzen zituen gauzak martxan. Hala ere, ez nuen inoren aurpegian itxaropenik ikusi, ezta nik sentitu ere. Uharte hauen berrogeita hamar milioi biztanleen artean, eta hamabi bat ordu baino ez genituela, nola aurkitu Europako hiru gaizkilerik azkarrenetakoak?
Bat-batean, gauza bat etorri zitzaidan burura.
—Scudderren liburua non dago? —oihu egin nion Sir Walterri—. Azkar, han dagoen gauza batekin gogoratu naiz.
Idazmahai bateko tiradera giltzez ireki zuen, eta liburua eman zidan.
Orria aurkitu nuen. —Hogeita hemeretzi maila —irakurri nuen, eta berriz errepikatu— hogeita hemeretzi maila — eta zenbatu egin nituen—. Itsasgora, 22:17ean.
Itsas armadako ministeriokoak ero banengo bezala so egiten zidan.
—Ez al duzue ikusten? Pista bat da! —oihu egin nion—. Scudderrek bazekien gizon horien ezkutalekua zein zen, bazekien nondik aterako ziren herrialdetik, baina izena beretzat gorde zuen. Bihar da eguna eta, leku horretan, 22:17ean izango da itsasgora.
—Beharbada, gaur joan dira —esan zuen norbaitek.
—Haiek ez. Bide sekretua dute: eta daukate presarik. Alemaniarrak ezagutzen ditut eta planak jarraitzearekin oso zorrotzak dira. Non demontre ikus dezaket itsasaldien gida?
Whittaker alaitu zen.
—Aukera bat bada —esan zuen—. Goazen itsas armadako ministeriora.
Zain zeuden bi autotan sartu ginen, Sir Walter izan ezik: Scotland Yardera joan zen, “Macgillivray mugiarazteko”, bere hitzetan.
Garbitzaileak lanean zebiltzan korridore eta areto hutsetan, eta azkar zeharkatu genituen, liburuz eta mapaz betetako gela txiki batera iritsi arte. Hango bulegari egoiliarra aurkitu genuen eta hark itsas armadaren itsasaldi-gida ekarri zigun. Ni mahai aurrean eseri nintzen eta besteak zutik zeuden nire inguruan. Nolabait, espedizioaren arduradun bihurtu nintzen.

Ez zuen ezertarako balio izan. Ehunka sarrera zeuden eta, ikusi nuenez, berrogeita hamar bat lekutan izango zen itsasgora ordu horretan. Aukeren kopurua gutxitzeko moduren bat aurkitu behar genuen.
Burua esku artean hartu, eta pentsatzen hasi nintzen. Buruhauste hura ebazteko eraren bat egon behar zuen. Zer esan nahi zuen Scudderrek mailekin? Bururatu zitzaidan kai bateko mailak izan zitezkeela; baina, horrela izanez gero, ziur aski ez zukeen kopurua aipatuko. Eskailera ugari zituen lekuren bat izan behar zuen, eta eskailera batek baino ez zituen hogeita hemeretzi maila.
Bat-batean, beste gauza bat otu zitzaidan eta ferry guztien irteerei begiratu nien. Baina ez zegoen kontinentera 22:17ean ateratzen zen itsasontzirik.
Zergatik zen itsasaldia hain garrantzitsua? Portua izanez gero, portu txikia izan behar zuen itsasaldiak garrantzia izateko edo, bestela, gila sakoneko itsasontzia erabiliko zuten. Baina ordu horretan ez zen ferryrik ateratzen, eta ez nuen itsasontzi handi batean joango zirenik uste portu arrunt batetik abiatuta. Beraz, portu txikia izan behar zuen eta horregatik zen itsasaldia garrantzitsua edo, beharbada, ez zen portua.
Aitzitik, portu txikia izan ezean, ez nuen mailen esanahia ulertzen. Ez nuen inoiz eskailerak zituen porturik ikusi. Eskailera berezi batzuk ezaugarri zituen leku bat izan behar zuen eta, han, 22:17ean izango zen itsasgora. Oro har, iruditzen zitzaidan lekuak kostalde ireki batean egon behar zuela. Baina ez nuen eskailerarena ulertzen.
Orduan, ikuspegia zabaldu nuen. Nondik aterako zen Alemaniara joan nahi zuen gizon bat, presaka zebilen norbait, azkar eta inork ikusi gabe alde egin nahi zuena? Portu handietatik, ez. Ezta Mantxako Kanaletik ere, edota mendebaldeko kostaldetik edo Eskoziatik ere ez. Izan ere, gogoratu Londresetik abiatzen zela. Mapan, distantziak neurtu nituen, eta etsaiaren buruan sartzen saiatu nintzen. Ostendera, Antwerpera edo Rotterdamera joaten saiatuko nintzateke, eta ekialdeko kostaldetik itsasoratu, Cromer eta Dover artean. Hori guztia susmoak baino ez ziren, eta ez dut esango ondorio zientifikoak zirenik, ezta bereziki adimentsuak ere. Ez nintzen inolako Sherlock Holmes. Hala ere, nik uste beti izan dudala nolabaiteko sena halako aferetan. Ez dakit behar bezala azaltzen ari naizen, baina ahal den neurrian adimena erabiltzen dut eta, gehiago lortzen ez dudanean, igartzen saiatzen naiz eta, normalean, emaitza onak izaten ditut.
Beraz, nire ondorio guztiak itsas armadaren paper batean idatzi nituen. Hona hemen:

«NAHIKO ZIUR:
Leku horretan, hainbat eskailera daude; horietako batek hogeita hemeretzi maila ditu.

Itsasgora 22:17ean. Itsasgoran baino ezin da itsasoratu.
Mailak ez dira kai batekoak, eta, ondorioz, baliteke portu bat ez izatea.
Ez dago ferryrik 22:17ean. Garraiobideak itsasontzi komertziala (aukera gutxi), yatea edo arrantza-ontzia izan behar du».

Nire arrazonamendua ez zen harago joaten. Beste zerrenda bat egin nuen, "igarrita" izenburuarekin, baina aurreko zerrenda bezain segurua zena.

«IGARRITA:
Lekua ez da portua, kostalde irekia baizik.
Itsasontzia txikia da: arraste-ontzia, yatea edo txalupa.
Lekua ekialdeko kostaldean dago nonbait, Cromer eta Dover artean.»

Bitxia iruditu zitzaidan idazmahai hartan eserita egotea kabineteko ministro batekin, mariskal batekin, gobernuko goi-mailako bi ofizialekin eta jeneral frantziar batekin, guztiak niri begira hildako gizon baten oharretatik sekretu bat ateratzen saiatzen ari nintzela; eta sekretu hori hil edo biziko kontua zen guretzat.
Sir Walter gurekin elkartu zen eta, gero, Macgillivray ere etorri zen. Aginduak eman zituen portuetan eta tren-geltokietan Sir Walterri deskribatu nizkion hiru gizonak harrapatzeko. Dena dela, hark zein beste guztiok ez genuen uste horrekin ezer lortuko zenik.
—Hona hemen atera dezakedana —esan nien—. Hondartza batera ematen duten hainbat eskailera aurkitu behar ditugu. Eskailera horietako batek hogeita hemeretzi maila ditu. Uste dut kostalde irekia dela eta itsaslabar nahiko handiak daudela. The Wash eta Mantxako Kanalaren artean dago eta, han, itsasgora 22:17ean izango da bihar.
Orduan, beste ideia bat bururatu zitzaidan. —Ez dago kostazainen artean-edo ekialdeko kostalde osoa ezagutzen duen ikuskariren bat?
Whittakerrek esan zuen bazegoela eta Claphamen bizi zela. Autoz haren bila joan zen eta gainerako guztiok gela txiki hartan geratu ginen, bururatzen zitzaigunaren gainean mintzatzen. Pipa piztu nuen eta afera guztia berriz aztertu nuen, burmuina nekatu arte.
Goizeko ordu bat aldera, kostazaina iritsi zen. Planta onekoa zen, itsas armadako ofiziala zirudien, eta besteei begirune handia zien. Gerra Ministroari utzi nion galdera egiten. Uste nuen nik galderak egitea lekuz kanpo zegoela irudituko zitzaiola.
—Jakin nahi dugu ekialdeko kostaldean zer leku ezagutzen dituzun itsaslabarra eta eskailerak dituztenak.
Momentu batez pentsatzen aritu zen.

—Zer motatako eskailerak, jauna? Leku askotan, errepideek itsaslabarrak mozten dituzte, eta errepide gehienetan, zenbait maila daude. Edo eskailera arruntak esan nahi dituzu, mailarik baino ez duten eskailerak, nolabait esateko?

Sir Arthurrek niri begiratu zidan.

—Eskailera arruntak —erantzun nion.

Minutu batez edo biz hausnartu zuen.

—Ez dut halakorik ezagutzen. Itxaron momentu batez. Norfolken badago halako leku bat, Brattlesham, golf-zelai baten ondoan, eta eskailera pare bat dago jokalariek galdutako pilotak berreskura ditzaten.

—Hori ez da —esan nuen.

—Itsasaldeko pasealeku asko daude, horretaz ari bazara. Opor-leku guztiek badituzte. Ezezkoa egin nion buruarekin.

—Hori baino ezkutuagoa izan behar du —esan nion.

—Bada, jaunak, ez zait beste lekurik bururatzen. Beno, The Ruff ere hor da…

—Hori zer da? —galdetu nion.

—Kenten dagoen klerazko erdiuhartea da, Bradgatetik gertu. Goian txalet asko daude eta eskailerak dituzte etxeetatik hondartza pribatuetara joateko. Oso leku dotorea da eta hangoek bizimodu pribatua dute.

Itsasaldiko gida ireki nuen, eta Bradgate bilatu. Ekainaren 15ean, itsasgora 22:27ean zen.

—Azkenean, arrastoa aurkitu dugu —oihu egin nuen adoretsu—. Nola aurki dezaket The Ruffen itsasaldia zer ordutan izango den?

—Hori nik esan diezazuket, jauna —ihardetsi zidan kostazainak—. Behin hango etxe bat utzi zidaten ekainean eta arrantzan joaten nintzen gauez. Itsasgora Bradgaten baino hamar minutu lehenago da.

Liburua itxi nuen eta kideei begiratu nien.

—Eskailera haietako batek hogeita hemeretzi maila izanez gero, misterioa argitu dugu, jaunak —esan nien—. Zure autoa utz iezadazu, Sir Walter, eta errepideen mapa bat. Macgillivray jaunak hamar minutu ematen badizkit, uste dut biharko zerbait presta dezakegula.

Zentzugabea zen nik ardura hartzea halako afera batean, baina bazirudien ez zitzaiela axola eta, azken batean, istorioaren hasieratik hartu nuen parte. Gainera, lan latzetan eskarmentua nuen, eta goi-mailako jaun horiek adimentsuegiak ziren hori ez ikusteko. Royer jeneralak eman zidan agindua.

—Niri, behintzat, —esan zuen—, ondo iruditzen zait Hannay jaunaren eskuetan uztea.

Hiru eta erdiak baino lehen, Kenteko hesien paretik nindoan ziztu bizian ilargipean, Macgillivrayren poliziarik onena ondoan nuela.



10 - Talde anitz kostaldean elkartzen dira

Ekaineko goiz arrosa eta urdin batean iritsi nintzen Bradgatera. Griffin Hoteletik, Cock hondartzako itsasargiari begiratu nion; distantzia hartatik, buia bat zirudien. Hiru bat kilometro hegoalderantz eta kostaldetik askoz gertuago, gerraontzi txiki bat ainguratuta zegoen. Scaife, Macgillivrayren polizia, itsas armadan egona zen eta itsasontzi hori ezagutzen zuen. Haren izena eta kapitainarena ere esan zizkidan, eta datu horiek telegramaz bidali nizkion Sir Walterri.

Gosaldu ondoren, higiezinetako agente batek The Ruffeko eskaileren ateetako giltzak eman zizkion Scaiferi. Elkarrekin ibili ginen hondartzetatik eta, dozena-erdi eskailera horiek aztertzen zituen bitartean, itsaslabarrean zegoen sakonune batean eseri nintzen. Ez nuen nahi inork ni ikustea, nahiz eta ordu horretan ez zegoen inor eta kaioren bat baino ez nuen ikusten noizean behin.

Scaifek ordubete baino gehiago eman zuen lan horretan eta ikusi nuenean paper-zati bati begira niregana etortzen ari zela, urduritu nintzen. Kontua zen dena nire susmoetan oinarritzen zela.

Eskailera bakoitzean zenbat maila zeuden irakurri zuen.

—Hogeita hamalau, hogeita hamabost, hogeita hemeretzi, berrogeita bi, berrogeita zazpi — eta— hogeita bat, itsaslabarrak baxuak diren lekuan—. Ia zutik jarri nintzen oihu egiteko.

Herrira presaka itzuli ginen eta Macgillivrayri telegrama bidali nion. Dozena-erdi gizon behar nuen eta hainbat hoteletara joateko agindua eman nien. Orduan, Scaife hogeita hemeretzi mailen gainean zegoen etxea aztertzera joan zen.

Itzuli zenean, ekarri zizkidan berriek harritu eta lasaitu ninduten. Etxeak Trafalgar Lodge izena zuen eta Appelton abizeneko jaun adindu batena zen. Higiezinetako agentearen arabera, burtsa-agente erretiratua zen. Appleton jaunak denbora luzea ematen zuen han udaldian eta, momentu hartan, han zegoen. Ia astebete lehenago iritsia zen. Scaifek ez zuen haren gaineko informazio handirik: gizon zintzoa zen, fakturak garaiz ordaintzen zituen, eta bertako ongintzazko erakundeei dirua ematen zien. Scaife etxearen atzeko atetik sartu zen, josketa-makinen saltzailea zela esanez. Hiru zerbitzari zeuden —sukaldaria, neskamea eta garbitzailea—, klase ertaineko edozein etxalde arruntetan bezala. Sukaldaria ez zen asko hitz egiten zuen horietakoa eta atea itxi zion ia; baina Scaifek esan zidan ziur zegoela ez zekiela ezer. Etxe ondoan etxe berri bat zegoen eta behatzeko ezkutaleku oso ona izan zitekeen. Beste aldean zegoen txaleta alokatzeko zegoen eta zaindu gabeko lorategi basatia zuen.

Scaifek teleskopioa utzi zidan eta The Ruffen barna ibiltzera joan nintzen, bazkaldu baino lehen. Txalet-ilararen atzean geratu nintzen eta, golf-zelaiaren ertzean, talaia egokia aurkitu nuen. Handik, itsaslabarren gainean zegoen belardia ikusten zen, banku ugariz hornituta. Lursail karratuak ere bazeuden eta, handik, eskailerak jaisten ziren hondartzara. Trafalgar Lodge ere oso garbi ikusten nuen. Adreilu gorriko txaleta zen, karrerapea zuen, tenis-kantxa atzealdean eta, aurrean, berriz, kostaldeko lorategi arrunta, bitxilorez eta geranioz beteta. Bandera makila bat zegoen, eta bandera britainiar erraldoia zintzilik, geldirik erabat, haizerik ez zebilen eta.

Orduan ikusi nuen norbait etxetik atera eta itsaslabar gainera joan zela paseoan. Teleskopioaren bitartez, gizon adindu bat ikusi nuen, flanela zurizko prakez, ehun urdinezko jaka batez eta lastozko txano batez jantzita. Prismatikoak eta egunkaria zeramatzan; burdinazko banku batan eseri zen eta irakurtzeari ekion zion. Batzuetan, egunkaria uzten zuen eta itsasoari begiratzen zion prismatikoekin. Gerraontziari luze begiratu zion. Ordu-erdiz aritu nintzen behaketa-lanetan. Orduan, zutik jarri zen eta etxera itzuli zen, bazkaltzera. Ni ere hotelera itzuli nintzen, bazkaltzera.

Ez nengoen oso ziur. Etxebizitza arrunt eta errespetagarri hori ez zen espero nuena. Gizona landako baserri beldurgarri horren arkeologo burusoila izan zitekeen… edo ez. Hiri-inguruko auzo eta opor-leku guztietan ikusten diren gizon lasaien eta kontenten estereotipoa zen. Kalterik sortuko ez duen pertsona baten eredua marraztu nahi izanez gero, ziur aski, halako pertsona bat litzateke.

Baina, bazkaldu ondoren, hoteleko arkupean eserita nengoela, ikustea espero nuen eta galdu nahi ez nuen hori ikusi nuen. Yate bat etorri zen hegoaldetik, eta The Ruff parean ainguratu. Ehun eta berrogeita hamar tona izango zituen, gutxi gorabehera, eta bandera zuriagatik ikusi nuen armadakoa zela. Beraz, Scaife eta biok portura joan ginen eta bote bat alokatu genuen, arratsaldea arrantzan emateko.

Arratsalde epela eta lasaia zen. Elkarrekin hamar bat kilo bakailao eta arrain zuri harrapatu genituen, eta, han, dantzan ari zen itsaso urdinaren gainean, gauzak baikorrago ikusi nituen. The Ruffeko itsaslabar zurien gainean, txaleta berdeak eta gorriak ikusi nituen eta, batez ere, Trafalgar Lodgeko bandera makila handia. Laurak aldera, nahikoa arrantzatu ondoren, botezainari yatearen ingurura joateko eskatu nion. Txori zuri txiki baten modura, edozein momentutan ihes egiteko prest zegoen. Tamaina ikusita, Scaifek esan zidan itsasontzi azkarra zela eta motor handikoa.

Itsasontziak Ariadne zuen izena, letoia distirarazten ari ziren gizonetako baten txanoan ikusi nuen. Harekin hitz egin nuen eta Essexeko dialekto leunean erantzun zidan. Beste marinel bat agertu zen eta Ingalaterrako azentuaz agurtu ninduen. Gure arrantzaleak haietako batekin eguraldiari buruzko eztabaida bat

izan zuen eta, minutu batzuez, gure arraunak haien istriborreko brankatik gertu egon ziren.
Bat-batean, gizonek guri kasu egiteari utzi zioten eta lanean murgildu ziren ofizial bat yatearen bizkarrera igo zela. Gazte atsegina eta itxura onekoa zen eta arrantzaren gainean galdetu zigun, oso ingeles onean. Hala ere, ez zegoen zalantzarik. Ile motzeko buru hori, lepokoa eta gorbata ez ziren inolaz ere ingelesak.
Horrek baretu ninduen pixka bat, baina, Bradgatera arraunez itzultzen ari ginela, ezin nituen zalantzak baztertu. Kezkatzen ninduena zen etsaiek bazekitela informazioa Scudderengandik lortu nuela eta Scudderek leku horren kokalekua ere eman zidan. Scudderrek arrasto hori zuela jakinez gero, ez zituzten haien planak aldatuko? Plan haien arrakastaren mende zegoen dena, ezin zuten arriskurik hartu. Giltza zen ea zer puntutaraino ohartu ziren Scudderrek zer zekien. Bezperan, erabat ziur esan nuen alemaniarrek planak beti betetzen zituztela; baina, ni beren atzetik nenbilela susmoa izanez gero, tontakeria zatekeen arrisku hori ez saihestea. Nire buruari galdetu nion bezperan ikusitako gizona konturatu ote zen ezagutu nuela. Nolabait uste nuen ezetz eta hori zen nire itxaropena. Alabaina, afera ez zitzaidan inoiz arratsalde hartan bezain zaila iruditu, nahiz eta orduan, kalkulu guztien arabera, arrakasta ziurra ospatzen ibili beharko nukeen.
Hotelean, gerraontziaren kapitaina ezagutu nuen. Scaifek elkar aurkeztu zigun eta harekin hitz egin nuen pixka batez. Orduan, Trafalgar Lodgeri ordu pare batez behatzea erabaki nuen.
Aldapan gora, leku bat aurkitu nuen, hutsik zegoen etxe baten lorategian. Handik, tenis-kantxa ondo ikusten zen eta bi gizon jokatzen ari ziren. Bata dagoeneko ikusita nuen gizon adindua zen; bestea gaztea zen, klub baten koloreak zeramatzan gerri inguruan zuen zapian. Adore handiz jokatzen zuten, poroak irekitzeko ariketa bizia egin nahi zuten hiriko bi jaunek bezala. Hura baino ekintza tolesgabeagorik ezin nuen imajinatu. Garrasi eta barre egin zuten eta, neskame batek erretilu gainean bi pitxer ekarri zituenean, edateko eten bat egin zuten. Begiak igurtzi nituen, ez ote nintzen ni munduko memelorik handiena izango. Eskoziako landetan hegazkinez eta autoz ehizatu ninduten gizonak misterioz eta iluntasunez inguratuta zeuden, batez ere infernuko arkeologo hori. Erraza zen jende hori Scudder zoruan iltzatuta utzi zuen labanarekin lotzea, baita munduko bakea apurtzeko planekin ere. Baina aurrean nituen bi herritar errugabeak, inori kalterik egin gabe kirola egiten ari zirenak… Laster, etxeratuko ziren afari arrunta hartzera. Burtsaren prezioen gainean hitz egingo zuten eta azken kriket-emaitzak eta Surbitongo esamesak ere komentatuko zituzten. Putreak eta belatzak harrapatzeko sare bat egin nuen, eta begira! Bi txolarre potolo sartu ziren hutsegitez.

Gero, hirugarren bat agertu zen, gizon gazte bat bizikleta baten gainean. Golf-makilak zeramatzan bizkar gainean, poltsa batean. Tenis-kantxara lasai gerturatu zen, eta jokalariek zarata handiz egin zioten ongietorria. Argi zegoen adarra jotzen ari zirela; kontu guztiak izugarri ingelesa zirudien. Orduan, gizon potoloa, kopeta setazko musuzapi batez igurtziz, esan zien bainu bat hartu behar zuela. Haren hitz zehatzak entzun nituen:

—Izerditan blai nago. Honekin, pisua eta handicapa jaitsiko ditut, Bob. Bihar jokatuko dugu eta erraz irabaziko dizut—. Ez zegoen ezer hori baino ingelesagorik.

Etxean sartu ziren eta benetan ergel sentitu nintzen. Oraingo honetan, ildo okerrean nenbilen. Beharbada, gizonak antzezten ari ziren, baina, hala izanez gero, non zegoen publikoa? Ez zekiten ni hogeita hamar metrora nengoela, errododendro batean. Ezinezkoa zen pentsatzea gizon osasuntsu horiek ez zirela ziruditena: hiri-inguruko ingeles arrunt, jokatzen; aspergarriak, beharbada, baina erabat errugabeak.

Hala ere, hiru ziren eta haietako bat zaharra zen; beste bat, lodia, eta hirugarrena, argala eta beltzarana. Etxea Scudderren oharrekin lotuta zegoen, eta, hortik kilometro batera zegoen motordun yatean, bazegoen ofizial alemaniar bat, gutxienez. Karolidesekin gogoratu nintzen, Europa osoarekin, dar-dar eta lurrikara jasateko zorian. Londresen utzi nituen gizonekin ere oroitu nintzen, hurrengo orduetako gertaeren zain. Argi zegoen nonbait gauza txarrak gertatzen ari zirela. Harri Beltzak irabazi egin zuen eta, ekaineko gau hartatik bizirik ateraz gero, saria jasoko zuen.

Gauza bakarra egin nezakeen: zalantzarik ez banu bezala jarraitu eta, tontoaren plantak egin behar banituen, muturreraino eraman. Ez nion inoiz lan bati hain gogo gutxirekin ekin. Momentu horretan nahiago nuen gordeleku anarkista batean sartu, guztiak Browning bat eskuetan zutela, edo nire kontra erasoan zetorren lehoi bati jostailuzko pistola batekin aurre egin, hiru ingeles alai horien etxean sartu eta azpijokoa bukatu egin zela esan baino. Gogoz barre egingo zidaten! Halako batean, Peter Pienaarrek Rhodesian behin kontatutako gauza batez gogoratu nintzen. Peter dagoeneko aipatu dut kontakizun honetan. Ezagutu nuen esploratzailerik onena zen eta, gizon agurgarri bihurtu baino lehen, legez kanpoko jardueretan ibilia zen askotan, polizia haren atzetik zuela adore handiz. Behin, Peterrekin, mozorroei buruz hitz egin nuen eta bazuen deigarria iruditu zitzaidan teoria bat. Azaldu zidan iheslaria trebea izanez gero, ezaugarri fisikoak ez zirela oso lagungarriak pertsona bat identifikatzeko, ziurtasun osoa eskaintzen zuten frogak kenduta (hatz-aztarnak, kasurako). Ile tindatuak eta bizar faltsuak barregarriak iruditzen zitzaizkion, umeentzako tontakeriak ziren horiek. Peterrek “giroa” deitzen zuen hori omen zen garrantzia zuen gauza bakarra.

Gizon bat lehenbizikoz ikusi zuten lekutik oso desberdina zen inguru batean sar bazitekeen eta, garrantzitsuena, inguru berri horretan etxean bezala aritu eta hortik kanpo inoiz egon ez balitz bezala jokatzen bazuen, munduko detektiberik argienak ere nahasiko zituen. Eta istorio bat kontatzen zuen: behin, jaka beltz bat hartu, elizara joan eta, han, ereserki-liburua partekatu zuen bere bila zegoen gizonarekin. Gizon hark aurretiaz pertsona agurgarriz inguratu ikusi izan balu, ezagutuko zukeen; baina taberna batean argiak pistola batez itzaltzen baino ez zuen ikusi.

Peterrek esandakoak gogoratzean, egun hartan lehenbiziko aldiz adorea sentitu nuen. Peter eskarmentudun txoria zen, baina gizon horiek txoritegiko bizkorrenak ziren. Eta Peterrek azaldutakoa egiten ari baziren? Gizon txotxolo bat beste itxura bat hartzen saiatzen da; gizon bizkor bat ez da itxuraz aldatzen, baina ezberdina dirudi.

Peterrek bazuen beste esapide bat, errepide-langile nenbilenean oso lagungarri izan zitzaidana: «paper bat betetzean, ezinezkoa da paper horri eustea gure buruari pertsona hori dela sinetsarazi ezean». Horrek tenis-partiduarena azalduko zukeen. Gizon horiek ez zuten antzeztu behar. Heldulekuari bira eman, eta beste bizimodu batera pasatzen ziren, eta, bigarren bizimodu horretan, lehengoan bezain eroso zeuden. Klixea dirudi, baina Peterrek esaten zuen gaizkile handi guztien sekretua zela.

Ia zortziak ziren eta Scaiferi aginduak ematera itzuli nintzen. Poliziak non kokatu esan nion eta ibiltzera atera nintzen. Ez nuen afaltzeko gogorik. Golf-zelaian ibili nintzen, hutsik zegoen ordu hartan, eta txaletetik iparralderago eta itsaslabar gainean zegoen leku bateraino joan nintzen. Bide berrietan eta txukunetan, flanelaz jantzita zegoen jendea ikusi nuen, tenisetik eta hondartzatik etxera zihoala. Telegrama bulegotik zetorren kostazain bat ere ikusi nuen, baita astoak eta canicheak etxerako bidean ere. Itsasoan, iluntze urdinean ikusi nuen Ariadnen eta hegoalderago zegoen gerraontzian argiak piztu zituztela eta, Cock hondartzatik harago, Thameserantz zihoazen ferryetan ere bai. Hain zen baketsua eta arrunta dena, non gero eta goibelago sentitzen bainintzen. Adore guztia behar nuen Trafalgar Lodgeraino abiatzeko bederatzi eta erdietan.

Bidean umezain baten ondoan zihoan erbi-txakur bat ikusteak animatu ninduen. Rhodesian nuen txakur bat gogorarazten zidan, baita harekin Pali mendietara igarotako ehiza-egunak ere. Rhebok arreen bila joaten ginen. Gogoratu nuen behin animalia baten atzetik genbiltzala txakurrak eta biok arrastoa galdu genuela. Erbi-txakurrak ikusmenarekin gidatzen dira eta nire begiak nahiko onak dira, baina rhebok hura atera egin zen paisaiatik, besterik gabe. Geroago, jakin nuen nola egin zuen. Kopje grisen artean, belea ekaitz-hodeien artean bezain ikusezina zen. Ez zuen ihes egiteko beharrik: geldirik egotearekin nahikoa zuen atzean zuenarekin bat egiteko.

Bat-batean, oroimen horiek guztiak burmuinean nahasi zitzaizkidan, aurrean nuen kasuan pentsatu nuen, eta denak uztartu nituen. Harri Beltzak ez zuen ihes egiteko beharrik. Paisaian, lasai ederrean desagertzen zen. Bide onetik nenbilen. Hori buru barruraino sartu nuen eta zin egin nuen ez nuela inoiz ahaztuko. Peter Pienaarrek edukiko zuen azken hitza.

Ordurako, Scaifen poliziak beren lekuetan egongo ziren, baina ez zen inor ikusten. Etxea azoka bat bezain irekita zegoen, edozeinek ikusteko moduan. Metro bateko burdin hesi batek banatzen zuen itsaslabarreko errepidetik. Beheko leiho guztiak irekita zeuden; argi eta ahots baxuek esaten zidaten afariaren bukaeran zeudela. Dena ongintzazko erakunde baten azoka bezain publikoa eta agerikoa zen. Munduko tontorik handiena sentituz, ataka ireki nuen eta txirrina jo.

Nire motako gizonok, munduko leku basatietan ibiliak garenok, oso ondo konpontzen gara bi motatako pertsonekin: goikoak eta behekoak, nolabait esatearren. Guk haiek ulertzen ditugu eta haiek gu. Gustura nengoen artzainekin, eskaleekin eta errepide-langileekin, baita Sir Walterrekin eta bezperan nirekin egondako gizonekin eta halakoekin ere. Ez dakit zergatik, baina horrela da. Baina nire motako gizonok ez dugu klase ertaineko mundu erosoa eta lasaia ulertzen: txaletetan eta hiri-inguruetan bizi direnak. Ez ditugu haien ikuspuntuak eta ohiturak ulertzen eta, aukeran, haietatik ihes egiten dugu, manba beltzetik ihes egiten dugun bezala. Neskame oso txukun batek atea ireki zidanean, ia ezin nuen hitz egin.

Appleton jaunarekin hitz egiteko eskatu nion. Jangelara zuzenean sartzea izan zen nire plana, eta, ustekabean agertzean, agerian geratuko zen gizonek ezagutzen nindutela. Aitzitik, atondo txukun hartan, lekuak menperatu ninduen. Etxe britainiar mordo batean izaten diren golf-makilak, tenis-erraketak, lastozko txanoak, kaperak eta ibiltzeko makilak hor zeuden. Txukun tolestutako berokiak eta gabardinak harizko kutxa zahar bat gainean, kutxa luzeko erloju batek tiki-taka egiten, hormetan letoizko lapiko distiratsuak, barometro bat eta zaldi-lasterketa baten koadroa. Lekua eliza anglikano bat bezain konbentzionala zen. Neskameak izena galdetu zidanean, automatikoki esan nion eta egongela batera eraman ninduen, atondoaren eskuinetara.

Gela hura are okerragoa zen. Ez nuen astirik aztertzeko, baina, tximinia-apalaren gainean, zenbait kirol talderen argazkiak ikusi nituen markoetan, Ingalaterrako eskola edo unibertsitate pribatuetakoak ziruditenak. Begiratu bat baino ez nien bota, berehalakoan bihotz eman eta neskameari jarraitu bainion. Baina beranduegi heldu nintzen. Jangelan sartua zen dagoeneko eta jabeari nire izena eman zion. Ez nuen ikusi hiru gizonek nola hartu zuten.

Gelan sartu nintzenean, mahaiburuan zegoen gizon adindua altxatu, eta bira eman zuen ni agurtzeko. Arropa formalez jantzita zegoen, jaka motza eta

gorbata beltza, eta nik potoloa deitzen nuen hori ere bai. Hirugarrena, beltzarana, traje urdinez jantzita zegoen, lepoko zuri leunarekin eta klub edo eskola baten koloreekin. Gizon zaharraren portaera perfektua zen.

—Hannay jauna? —nigana zuzendu zen zalantzati—. Nirekin hitz egin nahi duzu? Momentu bat, lagunak, oraintxe itzuliko naiz. Joan gaitezen egongelara.

Nahiz eta neure buruarengan batere konfiantzarik ez izan, nire burua jokoan sartzera behartu nuen. Aulki bat hartu nuen, eta eseri nintzen.

—Uste dut gaur baino lehen elkar ezagutu dugula —esan nion—, eta badakizula zergatik etorri naizen.

Ez zegoen argi handirik gela horretan, baina, haien aurpegietan ikusten nuenez,oso ondo egin zuten ez ulertuarena.

—Agian, agian —esan zuen gizon zaharrak—. Nire memoria ez da oso ona eta, tamalez, esan beharko didazu zertara etorri zaren, jauna, ez baitakit.

—Ondo da —esan nion eta iruditzen zitzaidan tontakeria hutsetan nenbilela—. Jokoa bukatu egin dela esatera etorri naiz. Zuek hirurok atxilotzeko egiaztagiria ekarri dut.

—Atxilotzeko! —garrasi egin zuen gizon zaharrak eta, itxuraz, harrituta zegoen benetan—. Atxilotzeko! Jainkoarren, zergatik?

—Franklin Scudder Londonen erailtzeagatik, maiatzaren 23an.

—Ez dut inoiz ere izen hori entzun —erantzun zidan gizon zaharrak, ahots harrituz.

Beste batek hitz egin zuen.

—Hori Portland Placeko hilketa izan zen. Irakurri nuen. Jainkoarren, erotuta zaude! Nondik etorri zara?

—Scotland Yardetik —erantzun nion.

Minutu batez, isiltasuna erabatekoa izan zen. Gizon zaharra aurrean zuen platerari so zegoen, intxaur batekin jolasean eskuetan, ezer ulertzen ez duenaren itxurarekin.

Orduan, gizon potoloak hitz egin zuen. Totelka hitz egin zuen, bazirudien hitzak kontu handiz hautatzen ari zela.

—Ez urduritu, osaba —esan zuen—. Hau guztia zentzugabeko nahasketa da. Baina, batzuetan, halakoak gertatzen dira, eta erraz konponduko dugu. Gure errugabetasuna frogatzea ez da zaila izango. Maiatzaren hogeita hiruan atzerrian nengoela froga dezaket eta Bob bainuetxe batean zegoen. Zu Londresen zeunden, baina egin zenuena azal dezakezu.

—Oso ondo, Percy! Erraza da, bai horixe. Hogeita hirua! Hori Agatharen ezkontzaren ondorengo eguna da. Ikus dezagun… Ni zertan nenbilen? Wokingetik etorri nintzen goizean eta Charlie Symonsekin bazkaldu nuen klubean. Gero… A, bai, Fishmongerstarrekin afaldu nuen. Ondo gogoratzen dut, txanporrauak gaizki egin zidan eta hurrengo goizean ez nengoen oso ondo.

Arraioa, hor dago afaritik ekarri nuen zigarro-kutxa—. Mahai gainean zegoen objektu bati seinalatu zion eta barre egin zuen urduri.
—Uste dut, jauna —esan zidan gazteak adeitsu—, onartuko duzula oker zabiltzala. Edozein ingelesek bezala poliziari lagundu nahi diogu, baina ez dugu nahi Scotland Yardek tontoarena egitea. Ezta, osaba?
—Jakina, Bob—. Zirudienez, gizon adindua ahotsa berreskuratzen ari zen—. Jakina, autoritateei laguntzeko gure esku dagoen guztia egingo dugu. Baina hau… Hau gehiegi da. Ezin dut sinetsi.
—Nelliek barre egingo du —esan zuen gizon potoloak—. Beti esan du asperraldiak hilko zintuela, ez zaizulako inoiz ezer gertatzen. Eta orain benetako arazoak dituzu — eta atsegin handiz hasi zen barreka.
—Jainkoarren, bai. Pentsa! Hau bai klubean kontatzeko modukoa! Benetan, Hannay jauna, ziurrenik, haserretu behar nuke nire errugabetasuna frogatu behar izateagatik, baina dibertigarriegia da! Eman didazun izuarengatik barkatzekotan nago ia! Hain zeunden serio, ezen pentsatu dudan lo-ibiltaria naizela eta lo nengoela norbait erail dudala.
Ezinezkoa zen itxurak egiten aritzea: benetakoegia zen. Goibeldu nintzen izugarri eta barkamena eskatzea eta alde egitea izan zen lehenbiziko pentsamendua. Baina erabaki nuen bukaeraraino joan behar nuela, nahiz eta Erresuma Batuko guztiek nitaz barre egin. Jangelako mahai gainean zeuden kandelek ez zuten argi handirik ematen, eta, nire nahastea argitzeko, zutik jarri eta atera joan nintzen, argi elektrikoa piztera. Bat-bateko argiak begiak kliskarazi zizkien eta ni, zutik, hiru aurpegi horiei so geratu nintzen.
Ez nuen ezer garbirik atera. Bat zaharra eta burusoila zen; beste bat, potoloa eta hirugarrena, beltzarana eta argala. Haien itxuran ez zegoen ezer Eskozian nire atzetik ibilitakoak ez zirenik frogatzen zuenik, baina ez zegoen ezer haiek nor ziren jakiteko. Ez dakit zergatik nik –errepide-langile nintzela begietara begiratu zien eta beste behin Ned Ainslie izan zen horrek–, nire memoria eta behatzeko trebetasun onekin, ez nuen behar nuena aurkitu. Bazirudien esaten zuten hura zirela eta ezin nuen kontrakoa zinez esan.
Han, jangela atsegin hartan, hormak akuafortez apainduta eta mantelinaz jantzitako emakume zahar baten erretratua tximinia gainean zegoela, ezin nuen landetako gaizkileekin lotzen zituen ezer ikusi. Nire ondoan, zilarrezko zigarro-kutxa bat zegoen eta ikusi nuen Saint Bede Klubeko Percival Appletonek golf-txapelketa batean irabazi zuela. Peter Pienaarrek esaten zuenari gogor eutsi behar izan nion etxe hartatik korrika ez ateratzeko. —Orduan —esan zidan gureak adeitsu—, ikusi duzunak lasaitzen zaitu, jauna?
Ezin nuen ezer esan.

—Espero dut zure betebeharren artean egotea afera barregarria hau bertan behera uztea. Ez naiz kezkatzen, baina ulertuko duzu herritar zintzo garenontzat hau ezatsegina dela.
Ezezkoa egin nion buruarekin.
—Alajaina! —gazteak garrasi egin zuen—. Hau gehiegi da!
—Polizia-etxera eramango gaituzu? —galdetu zidan potoloak—. Hori liteke irtenbiderik onena, baina, segur aski, hemengo polizia-etxearekin ez zenuke nahiko izango. Zure baimena ikusteko eskubidea badut, baina ez dut zure gainean susmorik jarri nahi. Zure eginkizuna betetzen ari zara, besterik ez. Baina onartuko duzu oso ezatsegina dela. Zer egin behar duzu?
Bi aukera baino ez zeuden: poliziei deitu hiruak atxilotzeko, edo nire akatsa onartu eta alde egin. Lekuarekin eta giro errugabearekin tentelduta nengoen eta ez zen errugabetasuna bakarrik, bazik eta aurpegi horietan ikusitako kezka eta benetako nahastea. —Ene, Peter Pienaar… —xuxurlatu nuen nire baitan, eta, istant batez, nire burua ia memelotzat hartu nuen eta haiei barkamena eskatu.
—Bitartean, bridgean joka dezagun —esan zuen potoloak—. Horrekin, Hannay jaunak hausnartzeko denbora izango du eta, badakizue, laugarren jokalaria behar genuen. Jokatuko duzu, jauna?
Klub bateko gonbidapen arrunta izan balitz bezala onartu nuen. Afera harekin zur eta lur nengoen. Egongelara joan ginen: mahaia kartetan jokatzeko prest zegoen eta erretzekoa eta edatekoa eskaini zidaten. Mahaira eseri nintzen, amets batean banengo bezala. Leihoa irekita zegoen eta ilargiak itsaslabarrak eta itsasoa argi horiz margotzen zituen. Ilargi-argia nire buruan ere bazegoen. Hiru gizonek lasaitasuna berreskuratu zuten eta eroso hitz egiten ari ziren. Edozein golf-klubetan entzuten den elkarrizketa erlaxatua zen. Itxura bitxia izan behar nuen han eserita, kopeta ilun, begiak galduta…
Nire bikotekidea gizon gaztea zen. Normalean, bridgean nahiko ondo aritzen naiz, baina, gau hartan, oso gaizki aritu nintzen seguru asko. Ikusten ari ziren nahasi nindutela eta horrek inoiz baino gehiago lasaitu zituen. Hiru aurpegiei begiratzen nien, baina ez zidaten ezer esaten. Kontua ez zen itxura ezberdina zutela, baizik eta ezberdinak zirela. Peter Pienaarren hitzei ahalegin handiz heldu nien.
Orduan, zerbaitek esnarazi ninduen.
Gizon zaharrak kartak mahai gainean utzi zituen puru bat pizteko. Ez zuen berehala hartu. Momentu batez atzera mugitu zen aulkian eta hatz-muturrekin belaunen gainean jo zuen.
Mugimendu hori landako baserrian ikusi nuen, ni haren aurrean nengoela eta haren atzean bi zerbitzari pistoladun.

Gauza txikia zen, segundo batekoa, eta hori ez ikusteko aukera itzelak ziren, kartetara adi nengoelako, besteak beste. Baina ez nuen aukera hori galdu eta iruditu zitzaidan tximista bezain azkar, airea lainoz garbitu egin zela. Itzala desagertu zitzaidan burmuinetik eta hiru gizonak ezagutu nituen zalantzarik gabe.

Tximinia gaineko erlojuak hamarrak eman zituen.

Hiru aurpegiak nire aurrean aldatu ziren eta beren sekretuak azaldu zizkidaten. Gaztea hiltzailea zen. Aldarte onaren ordez, krudeltasuna eta bihozgabekeria ikusten nituen. Ez nuen zalantzarik haren labanak utzi zuela Scudder zoruan itsatsita. Karolides haren gisako batek erail zuen tiroz.

Potoloaren hazpegiak desegin eta, berriro ere, nire aurrean berregin ziren. Ez zuen aurpegirik, ehun mozorro baizik, nahi zuenean janzteko edota aldatzeko. Aparteko antzezlea izango zatekeen. Beharbada, bezperan berak egin zuen Lord Alloarena, edo agian ez. Ez zitzaidan axola. Nire buruari galdetu nion hura ote zen lehenbizikoz Scudderren aztarna aurkitu zuena, eta Scudderri txartela utzi. Scudderrek zizipaza egiten zuela esan zidan eta imajina nezakeen zizipazak izua areagotzen zuela.

Baina zaharra zen onena. Burmuina hutsa zen: izotza bezalakoa, kalkulatzailea, mailu erraldoi bat bezain errukigabea. Orain ikusten ari nintzela, ez nekien zergatik pentsatu nuen onbera zela. Masailezurra altzairu hotza bezalakoa zuen eta hegazti baten begien argitasun ankerra begietan. Jokatzen jarraitu nuen eta, segundoak pasatu ahala, bihotzean nuen gorrotoa handitzen ari zen. Gorroto horrek ia ito egiten ninduen eta kidearen galdera bat egin zidanean, ezin izan nion erantzun. Ezin nuen konpainia hori askoz luzeago jasan.

—E! Bob! Begiratu ordua —esan zuen zaharrak—. Trena hartu beharko duzu. Bobek Londresera joan behar da gaur —gehitu zuen, niri begira. Orain, ahotsak doinu faltsua zuen erabat.

Erlojuari begiratu nion. Hamar eta erdiak ziren kasik.

—Tamalez, bidaia atzeratu beharko du —esan nion.

—Ene, bada —esan zuen gazteak—. Uste nuen tontakeria hori bertan behera utzita zenuela. Joan beharra daukat. Nire helbidea emango dizut eta nahi duzun bermea ere bai.

—Ez —esan nion —, geratu behar duzu.

Uste dut orduan konturatu zirela jokoa larria zela. Aukera bat eta bakarra zeukaten: niri sinestarazi oker nenbilela eta porrot egin nuela. Zaharrak hitz egin zuen berriro.

—Ilobaren fidantza ordainduko dut. Horrekin nahikoa izango duzu, ezta, Hannay jauna? —Nire imajinazioa zen, ala ahots koipetsu horretan zalantza nabari nuen?

Ez zegoen zalantzarik: hari begira ari nintzela, betazalak jaitsi baitzituen belatz batek bezala.
Txilibitua jo nuen.
Istant batean, argi guztiak itzalita zeuden. Pare bat beso indartsuk gerritik heldu zidaten eta sakelak estali, badaezpada ere pistola ote neraman.
—Schnell, Franz —ahots batek egin zuen oihu—, das Boot, das Boot! —Hitz horiek esatearekin batera, bi polizia ikusi nituen ilargiak argitutako belardian.
Gazte beltzaranak leihotik egin zuen jauzi, hortik atera eta hesi baxu batean gora pasatu zen aitaren batean. Zaharrari heldu nion eta gela pertsonez bete zen. Potoloa harrapatu zutela ikusi nuen, baina nire arreta etxetik kanpo zegoen. Franzek azkar gurutzatu zuen errepidea eta hondartzarako eskaileren aurrean zegoen sarrerarantz zihoan. Polizia bat zihoan haren atzetik, baina ez zuen aukerarik. Eskaileren sarraila iheslariaren atzean itxi zen eta horri begira geratu nintzen, eskuekin zaharraren eztarriari eutsita, gizon batek eskailerak jaisteko beharko zuen tarteaz.
Bat-batean nire gatibua nigandik askatu zen eta hormaren kontra aurka jauzi egin zuen. Klik bat entzun zen, palanka bati tira egin izan balio bezala. Lur azpitik eta oso urrundik, burrunba bat entzun zen, eta leihoaren beste aldean ikusi nuen eskaileretatik klerazko hauts-hodei bat ateratzen ari zela.
Norbaitek argiak piztu zituen.
Zaharra, begiak sutan, niri so zegoen.
—Seguru dago —oihu egin zidan. — Beranduegi da hari jarraitzeko… Joan egin da… Irabazi egin du… Der Schwarzestein ist in der Siegeskrone.
Begietan, garaipena baino gehiago zuen. Hegazti batek bezala ezkutatuta zeuzkan ordura arte, eta, orain, belatz baten harrotasunarekin kartsu irekita zeuden. Fanatiko baten sugarraz, dir-dir egiten zuten eta lehenengo aldiz konturatu nintzen aurka nuena benetan beldurgarria zela. Gizon hori espioia baino gehiago zen eta, modu nazkagarri batean bazen ere, abertzalea.
Eskuburdinak jartzen ari zitzaizkiola, azken hitz batzuk esan nizkion.
—Espero dut Franzek garaipena ondo hartzea. Jakin ezazu azken ordu honetan Ariadne gure menpean egon dela.

Zazpi aste geroago, guztiok dakizuen bezala, gerra piztu zen. Lehenengo astean, armada berrian eman nuen izena, eta, Matabelen hartutako eskarmentuari esker, kapitain egin ninduten berehala. Baina uste dut lanik onena uniformez jantzi baino lehen egin nuela.



Hitzatzea

'Hogeita hemeretzi mailak' John Buchan egile eskoziarraren hamazazpigarren liburua eta zortzigarren eleberria da. Lehenbizikoz, Blackwoods aldizkarian atera zen, 1915eko abuztua eta iraila bitartean; urrian, William Blackwood and Sons argitaletxeak liburu-formatuan plazaratu zuen. Abentura-liburua da.

Hasieratik, 'Hogeita hemeretzi mailak'-ek arrakasta handia izan zuen. Lehenengo Mundu Gerra 1914an hasia zen, eta lubakietan zeuden soldaduek –baita haien ahaide eta beste milaka britainiarrek ere– gogoz irakurri zuten liburua: lehenengo hiru hilabeteetan 33.000 ale saldu ziren (garai hartan, nobelako 1.000 ale saltzen ziren, asko jota). Geroztik, 'Hogeita hemeretzi mailak' beti egon da herrialde ingelesdunen liburu-dendetan; ikastetxeen literatura-eskoletan irakurtzen da; liburuaren kontakizunean hiru film oinarritzen dira; eta antzerki- eta irrati-bertsio batzuk ere egin dira.

Irakurleak Richard Hannay protagonistarekin identifikatzen dira edo, behintzat, haren aldekoak dira liburuan zehar. Itxuraz, Hannay gizon arrunta da, eta, nahi gabe, arazo larri batzuei aurre egin behar die: arruntasun hori urtu egiten da ataka estu batetik ateratzen den bakoitzean.

Ondorengo hogeita bat urteetan, Richard Hannay protagonista izan zen Buchanen beste lau eleberriotan: 'Greenmantle' ('Kapaberdea', 1916; non alemaniarrek profeta musulman turkiar bat erabiltzen duten Ekialde Hurbileko biztanleriaren atxikimendua eskuratzeko); 'Mr. Standfast' ('Sendoegon jauna', 1919; non espioi alemaniar talde bat –irakurleek espioien nagusia 'Hogeita hemeretzi mailak'etik ezagutzen dute– guda modu zikinean irabazten saiatzen den); 'The Three Hostages' ('Hiru bahituak', 1924; non itxuraz establishment britainiarraren parte-hartzaile garrantzitsua den gizon batek hiru pertsona gazte bahitzen dituen, gizarte osoa suntsitzeko); 'The Island of Sheep' ('Ardien Irla', 1936; non Hannayk maltzur batzuen azpijokoa oztopatzen duen, eta oinordeko aberats bat salbatzen duen).

Lehenengo Mundu Gerraren hasieran, Buchan inteligentzia-zerbitzu britainiarretan aritu zen, eta, neurri batean, 'Hogeita hemeretzi mailak' propaganda egiteko idatzi zuen: liburuan zehar alemaniarren azpijokoak gaitzesten dira, eta britainiarren portaera noblea eta zuzena agerian geratzen da. Baina egilearen asmo propagandistikoak ez zion liburuaren kalitateari kalterik egin, ezta irakurleen plazera oztopatu ere.



Egilea

John Buchan 1875ean jaio zen, Fifen, Eskoziako ekialdean. Aita apaiz protestantea zen. Fifeko kostaldeak eta eliza protestanteak 'Prester John' ('Apaiza Johannes', 1910) eleberrian leku garrantzitsua izan zuten.

Familiak oporraldiak Eskoziako mugaldean ematen zituen, amaren gurasoekin, eta hango kultura eta paisaiak garrantzitsuak ziren Buchanen ipuin askotan, baita 'Witchwood' nobelan ('Sorginbasoa', 1927) eta 'Hogeita hemeretzi mailak'-en ere.

Unibertsitatean ikasteko diru-sari bat irabazi zuen eta, hari esker, kultura klasikoa ikasi zuen Glasgown eta, geroago, Oxforden, elite britainiarraren gazteekin batera. Unibertsitate-garaian, poesia- eta saiakera-sari ugari jaso zituen, eta sei liburu argitaratu zituen.

Lizentziatu ondoren, 1901ean, Buchanek inperio britainiarraren goi-mailako administrazioan lan egin zuen Hego Afrikan. Bigarren Boerren Gerran parte hartu zuen.

Ingalaterrara itzuli zenean, 1903n, Thomas Nelson & Son argitaletxeko bazkide izendatu zuten, baita The Spectator aldizkariaren zuzendari ere. Zuzenbidean lizentziatu zen. Aldi berean, liburuak idazten jarraitu zuen; 1914 arte, hiru biografia, sei eleberri eta zazpi saiakera-liburu argitaratu zituen.

1907an Susan Grosvenor aristokratarekin ezkondu zen. Bikoteak lau seme-alaba izan zituen.

Victoria erreginaren aldian jaioa eta hezia, Buchan abertzale eta inperialista zen, herrikide ia-ia guztiak bezala. Erresuma Batua eredugarria zela uste zuen eta, ondorioz, inperio britainiarrak mundua hobetzen zuelakoan zegoen. Inoiz, liburuetan erabili zituen esapide batzuengatik, iruzkingile batzuek arrazakeria leporatu izan diote; baina arazo hori ez zen Buchanena bakarrik, gizarte oso baten joera baizik. Hala nola, inoiz esan da Buchan antisemita zela; kasu horretan, aldiz, kritikak ez dira sinesgarriak, batez ere Buchan sionismoaren aldekoa zela ikusiz.

Familia xume batean jaiota eta gaztetatik –Oxfordeko unibertsitateko garaitik– lagun boteretsu eta aristokratikoez inguratuta, Buchanen gizarte-maila horrekiko eta titulu eta dominekiko lilura nabaria izan zen. 'Hogeita hemeretzi mailak'-en, esaterako, ministro bat, almirante bat eta bi jeneral agertzen dira.

Lehenengo Mundu Gerran, Buchan inteligentzia-zerbitzuetan aritu zen; The Times egunkariaren berriemailetako bat izan zen Frantzian; armadan izena eman zuen, eta, gudaren bukaerako, koronel izan zen; gerraren historia ofiziala idazten lagundu zuen; eta sei liburu plazaratu zituen.

Gerra ondoren, liburuak plazaratzen jarraitu zuen (1918 eta 1940 artean, hemezortzi eleberri, zazpi biografia eta hogeita sei saiakera-liburu, azken horietako gehienak historiaren gainekoak). 1927an, alderdi kontserbadoreko legebiltzarkide izendatu zuten.

1935ean Jurgi V.ak lord izendatu zuen, eta Buchanek Tweedsmuir titulua hartu zuen. Urte haren azaroan, erregeak Kanadako gobernadore jeneral izendatu zuen. Hurrengo bost urteetan, Buchanek Kanada osoa ezagutu zuen; hango herri guztien alde lan egin zuen, aniztasunaren balioaz konbentzituta; alfabetatze-kanpaina garrantzitsu batzuk martxan jarri zituen; eta Kanadako literaturaren alde lan egin zuen.

John Buchan 1940an hil zen, Kanadan. Eskoziarraren azken eleberriak –'Sick Heart River' ('Bihotz gaixo ibaia', 1941)– Kanadako iparraldean zahartuta eta gaixorik zegoen gizon batek egin zuen bidaia gogorraren gainekoa da. Buchanen liburu askotan bezala, gizonezko bat hiritik kanpo bizitzera behartuta dago, mendialdean eta egoera latzetan, baita beldurra eta oztopo anitz gainditzera ere. Nobelaren esaldi bat Buchanen aipurik ospetsuenetakoa da: “Bizitza hau zoragarria da, ahultzen ez garen bitartean”.

Pertsonaiak

Richard Hannay da liburuaren protagonista, Eskozian jaioa eta Hegoafrikan hezia. Kolonia britainiarrean meatze-ingeniari aritu da, eta, lan horri esker, dirutza irabazi du. 1914an, Erresuma Batura itzultzea erabaki du, dauzkan baliabideez Londresen gozatzera. Hiriburuan, aldiz, aspertu egin da, eta bakarrik dago gustura liburuan zehar gertatzen diren zailtasunei aurre egiten dienean. Hirian ezeroso sentitzen da; mendialdean, ordea, bere lekuan dago.

Irakurle askoren beldur bati eta nahi bati ematen die gorputza Hannay pertsonaiak: batetik, gizartean –edo edozein egoeratan– deseroso sentitzeko beldurra, lekuz kanpo egotearena; bestetik, maltzurrak agertzen direnean, Hannayk bezain sendo eta ausart egin nahi genieke aurre.

Franklin Scudder estatubatuar geldiezina da, hizkuntzalari apartekoa, zerbitzu sekretu britainiarrei informazioa ematen diena, eta espioi-talde alemaniar baten sekretuak jakin dituena. Espioiak horretaz konturatu direnez, Scudder, beldurrak jota, Londresera joan da babes bila, eta, azkenean, babes hori Hannayri eskatu behar izan dio, eta datu sekretuak kontatu dizkio. Scudder pertsonaiak beldurra eta jazarpen-sentsazioa txertatzen ditu liburuan, hasieran bere jazarpenarena eta, geroago eta liburuan zehar, Hannayrena.

Espioi alemaniarrek Scudder erail dute, eta Hannay jazarri dute Londresen eta Eskozian barrena. Mozorrotzen eta nortasun anitzak hartzen adituak dira. Haien helburuak lortzeko bidean ez dute eragozpenik onartzen; maltzurrak dira.

Onartu behar da Buchanen ikuspuntua espioiei dagokienez ez dela koherentea: alemaniarrak maltzurrak dira nortasun faltsuak hartzen dituztelako; Hannay, aldiz, heroi ausarta eta bertutetsua da gauza bera egiten duenean.

Pertsonaia 'xume' asko daude, xumeak paper txikiak dituztelako kontakizunean, eta gizartean dituzten estatusak xeheak direlako. Nahiz eta protagonismo handirik ez izan, kontakizunari kolorea ematen diote, baita umorea ere. Hannayk Eskoziako mendebaldeko pertsonaien bertuteak goresten ditu, eta haiekin barre egiten dugunean, begirunez eta modu amultsuan egiten dugu. Londreseko pertsonaiekin, aldiz, Hannayk erabiltzen duen umore-mota ezberdina da, eta, batzuetan, haietaz egiten dugu barre, burugabeak direlako; kasu, Marmaduke pertsonaia penagarria agertzen denean.

Gizon 'handi' batzuk –ministroak, jeneralak eta almiranteak– liburuaren bukaeran agertzen dira. Ziurrenik, goi-mailako politikariek eta militarrek ez lukete parte hartuko halako benetako krisialdi batean: istorioan parte hartzea Buchanen klase horrenganako miresmenaren lagin bat da.

